

GOIENA TELEBISTA 2014 UDAZKENA-NEGUA



**Bertakoa
eta
sasoikoa**



**Halakoa da Goiena
telebista, eta berrituta
dator, unean unekoak,
bertatik bertara,
herritarrekin, kaletik,
kontatzeko gertu.**

Programa berriekin dator Goiena telebista

Sortzaileekin elkarrizketa saioa izango da nobedadeetako bat, osoko bilkurak bestea, eta 'Pedalka'-ren itzulera ere bai

Goiena telebistak astelehenean hasiko du udazkenen -negu sasoi berria. Denboraldi berrian ez dira orain arteko hainbat saio faltako, eta zenbait nobedade ere izango dira.

Askotariko arte edo kultur adierazpideetako sortzaileak elkarriketatuko ditu, adibidez, Larrait Zeberio *Kulturriketak* izeneko saio berrian: musikariak, idazleak, zinemagileak...

Beste nobedadeetako bat izango da Goiena telebista hasiko dela Debagoieneko herri handienetako osoko bilkurak osorik eskaintzen, ikus-entzuleek aukera izan dezaten udalbatzek erabakitzen dituztenen berri lehen eskutik jasotzeko. Hilero, Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko osoko bilkurak ikusi ahal izango dituzue.

Udazkeneko programazioko beste berrikuntza *Pedalka* saioa izango da; 2013. urtean eman zuen Goiena telebista saioaren lehen

sorta, Julen Iriondo kazetari oñatiarrak Frantziako Alpeetan bizikletarekin egindako bidaia jasotzen zuena. Izaera desberdinarekin dator saioaren bigarren aldia; izan ere, ibilbide eder batean oinarrituko da oraingoa ere -kasu honetan, etxean, Gipuzkoan-, baina, herrialdeko hainbat txoko erakusteaz gain, batean eta beste bizikletaren erabilera bultzatzeko dauden ekimenen berri ematea ere izango da programaren funtsa. Eta pertsona ezagunek ere hartuko dute parte saioan: Leire Olaberriak, Ainhoa Muruak, Txomin Perurenak...

OHIKO SAIOAK

Gainerakoan, Goiena telebistan ohikoak diren saioekin segituko dute denboraldi berrian. Batetik, egunerokoak: *Berriak* eta *Debagoiena zuzenean*; bestetik, astean behingoak: *Harmailatik*, *Harira* eta *Amaia DJ*.

Antenan aldaketak egin behar dira zenbait kate ikusten segitzeko

Urte berriarekin ezingo dira bestela telebista kate nagusietako zenbait ikusi

Dibidendu digitalaren libereazio prozesua delakoaren ondorioz, etxebizitza-erakinetako antenatan aldaketak egin beharko dituzte auzo komunitateak; egin ezean, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera ezin izango dira telebista kate nagusiak ikusi: ETB, Antena 3, Cuatro, Telecinco, Sexta, Teledeporte... Antenan aldaketak egiteaz gain, nork bere telebista aparailua berriro sintonizatu beharko du, kateak frekuentzia berrietan egongo direlako. Goiena ikusteko ez da aldaketarik egin beharko.

LEHENBAILEHEN EGIN

Aldaketak lehenbailehen egitea komeni da: batetik, instalatzaileek oso epe laburra dutelako aldaketa guztiak egiteko; bestetik,

Espainiako Gobernuak diru laguntzak emango ditu egindako aldaketengatik, eta diru laguntzak emango dituzte eskakizunen hurrenkeran eta horretarako aurreikusitako kopurua agortu arte, hain zuzen ere.

Laguntza jaso ahal izateko, ezinbestekoa izango da antenako aldaketak instalatzaile autorizatuak egitea, eta laguntzak izango dira 150 eta 550 euro artekoak, egin beharreko aldaketan araberak. Komunitateek instalatzaileari ordainketa egin beharko diote aurrena, beharrezko dokumentuak eskatu, eta ondoren itzulketa (diru laguntza) eskatu Industria Ministerioari. Beharrezko dokumentuak digitalizatu egin beharko dira, gainera, eskaera Internetez egin beharko da-eta.



SAIO BERRIA

'**KULTURRIKETAK**' Askotariko arte edo kultura adierazpideetako sortzaileekin elkarrizketak: musikariekin, idazleekin, zinemagileekin... Larrait Zeberio izango da Goienako saio berriaren aurkezlea.

Ordua: 22:00. Eguna: Egubakoitza.



'**BERRIAK**' Goiena telebistaren albistegia da, egunak Debagoienean emandakoak jasotzen dituena. Monika Belastegi da albistegiaren aurkezlea, eta hainbat kazetarik jarduten dute saiorako.

Ordua: 14:30, 16:30, 18:30, 20:30, 21:30 eta 23:00. Eguna: Astelehenetik egubakoitzera.



SAIO BERRIA

Etxeko programazioa osatzeko, beste kate batzuetakoak ere bai

Tokiko telebistetako hainbat saio ikusi daitezke Goienan, trukearen ondorioz

Etxeko programazioa osatzeko, euskarazko beste telebista batzuetako saioak ere jasotzen ditu Goienan -trukea da; jaso bezala, beste telebistei eman ere egiten dizkie saioak Goienan.

Gaur egun, gisa honetara, Goienaren programazioan dauden saioetako batzuk dira *Onein* eta *Ikusi irratia* -Goierrri Telebistakoak-, *Sasoi betean* -28 Kanalekoa (Tolosaldea)- eta *Idemitateak*, *Ertzak* eta *Euskal egitura* -Hamaikakoak.

Izan ere, Hamaikarekin ere egiten du trukea Goienan, Tokiko sareko telebistekin egiteaz gain. Tokiko sarean daude, aipatutako Goierrri Telebista eta 28 Kanalarekin batera, Oizmendi -Busturialdea eta Lea



Iñaki Arratibel.

Artibai-, Erlo-Urola Kosta- eta Xalao -Baztan.

'SASOI BETAEN'

28 Kanalak ekoiztutako saio berrian kirolaren gaineko aholkuak emango ditu Iñaki Arratibel kirol medikuak.

Instalatzaileak

ARRASATE

Milar Elkoro: 943-79 45 99

AGT: 943-79 70 39

Aranzabal: 943-79 68 21

Musakola: 943-79 39 22

Bereya: 943-79 13 79

ARETXABALETA

Aranzabal: 943-79 16 10

Aretxargi: 645 73 40 32

ESKORIATZA

Rele: 615 75 91 33-685 72 04 41

BERGARA

Mercurio: 943-76 11 01

Aizpurua: 666 42 78 59

Elektrolan: 943-76 17 65

Matxiategi: 943-76 19 94

Ricardo Peña: 943-76 20 81

OÑATI

Arregi: 943-78 02 63

Argi elektrizitatea: 943-71 63 54

Belar: 943-78 06 57

Zelaia: 943-78 04 04

ELGETA

Irama: 943-78 90 57



'GIPUZKOA PEDALKA' Aurrenekoan Frantziako Alpeak zeharkatu eta gero, *Pedalka*-ren bigarren aldian, Gipuzkoa eta bertan bizikletaren erabilera bultzatzeko ekimenak ezagutzera izango da helburua.

Ordua: 22:00. **Eguna:** Eguaztena.



'DEBAGOIENA ZUZENEAN'

Askotariko erreportajeak.

Ordua: 20:00, 21:00 eta 22:30.

Egunak: Astelehenetik egubakoitzera.



'HARMAILATIK' Kirol kontuak, Xabier Urzelaik aurkeztuta: laburpenak, elkarrizketak...

Ordua: 22:00. **Eguna:** Astelehena.



'HARIRA' Eneko Azkaratek aurkeztuta, elkarrizketa saioa, erakundeetako ordezkariekin...

Ordua: 22:00. **Eguna:** Martitzena.



'AMAIA DJ' Amaia Txintxurretarekin, bideklipak aurkezten dituen saioa, ikusleen eskariak aintzat hartuta.

Ordua: 22:00. **Eguna:** Eguena.

Tokikom eta EITB elkarlanean

Berriki hitzarmena sinatuta, areagotu egingo da harremana

U rri hasieran sinatu zuten Tokikom-ek eta EITBk elkarlanerako hitzarmena. Hasiera baten, agendak trukatuko dituzte bi erakundeek; aurreantzean, baina, materiala elkarbanatzeko aukeraz ere jardungo dute. Izan ere, bi erakundeen

arteko hartu-emana zertan gauzatuko den zehazteko prozesu bat finkatu dute, eta pixkanaka joango dira emaitzak ikusten.

Bi aldeen arteko lankidetzaren erakusgarri, baita ere, Tokikom-eko hedabideetako kideek parte hartzen dute, adibidez, Euskadi

Irratiko *Mezularia* saioan, eta ETB1eko *Azpimarra* programan ere hasi dira kolaboratzen Tokikom-eko kazetariak.

Euskara indartzeko helburuan, Tokikom-en laguntza "oso inportantea" izango dela zioen EITBko zuzendari Maite Iturbek.



Tokikom-eko Urko Aristi eta EITBko Maite Iturbe, akordioa sinatzen.

Goiena telebista behar bezala sintonizatzeko jarraibideak

Goiena telebista ikusteko hiru modu daude: batetik, ohiko antena bidez, Lurreko Telebista Digitalaren bidez (LTD); bestetik, Euskalteko kable bidez, eta azkenik, Internetetik, streaming bidez (*goiena.net*).

► **ANTENA (LTD).** 52. kanalean sintonizatzen da. Antena kolektiboa denean, bereziki, moduladorea jarri behar da. Komeni da antena jartzailearekin harremanetan jartzea.

► **EUSKALTEL.** Kable bidez, Debagoienean, automatikoki topatuko du Goiena telebista. (S/11). Eskuz sintonizatu nahi bada, 231,25 frekuentzian dago. Debagoienetik kanpo ere ikus daiteke: 933. dialean.

► **INTERNET.** Beste aukera bat da *goiena.net* webgunean ikustea, Telebista atalean, edozein tokitatik. Streaming bidez emititzen da.



Goiena telebista ikusteko arazorik baduzu edo argibiderik nahi izanez gero, deitu: 943 25 05 05.

Bertakoa eta sasoiakoa

Telebistako programazio berria

Berritasunekin dator Goiena telebista udazkenean

- ▶ Programazio berria prestatu dugu familia guztiarendako.
- ▶ Protagonistak eta gertaerak bertatik bertara aurkeztuko ditugu.
- ▶ Edukiak, gauzak kontatzeko modua eta itxura, berrituta.



goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2014-10-17
EGUBAKOITZA
613. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM



Proiektuko hainbat kide. | JAGOBA DOMINGO

Umeen paga ezkurtxotan

Aretxabaletako
moneta soziala da | 18

Bergara txotxongiloen hiriburu
izango da, eguenetik aurrera | 26



Euskarak jasandako eraso
taularatuko dute Oñatin | 10



30 orduko maratoia, Txapa
Irratiaren 30. urteurrenerako | 29



Zutik, ezkerretik:
Beñat Barberena,
Imanol Zeziaga,
Iban Saez de
Kortazar eta Gorka
Arexolaleiba;
makurtuta: Andoni
Arantzabal.

EBA SASKIRATZERA!

Bihar hasiko du denboraldi historikoa
Mondragon Unibertsitateak, EBA ligan | 24

JAGOBA DOMINGO



Txantxiku ikastolako umeak. | I.G.

LOMCE legearen kontra daude hezkuntzako eragile gehienak

Ikasturte berriarekin, indarrean da LOMCE legearen hezkuntza erreforma. Eta gure eskualdean ez du ongi etorri berorik jaso. Aurten LHko 1., 3. eta 5. mailatan eragingo du eta, besteak beste, datorren asterako ikasle grebak deitu dituzte, legearen ondorioei kontra egiteko. | 3

SINADURAK

Emakumea naiz... eta zer? | 8
AINTZANE IRIZAR

8 | Bidegorrian ibiltzeko abiadura
MIREIA BIKUÑA

Aramaion ekografiak euskaraz | 22
AITOR MONTES

36 | Ikastitis prematuroa?
IDOIA ETXEBERRIA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | ELKARRIZKETA 7
| IRITZIA 8 | HERRIAK 10 | KIROLA 24
KULTURA 28 | ZURE IRAGARKIAK 31
TELEBISTA-IRRATIA 32 | EZKONTZAK 32
ESKELAK 33 | NON-ZER 34

943 71 48 45

Hemen GARBIKETAK

www.hemen-garbijetak.com

Zure konfiantzako garbijeta enpresa

Mantentze garbijetak,
obra amaierakoak eta garbijeta orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbijetak.com

SEAT LEON ST BERRIA

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Zirrikietatik sartu da LOMCE hezkuntza erreforma ikasgeletan

- ▶ Aurten eragingo du LHko 1., 3. eta 5. mailetan eta Oinarrizko Lanbide Heziketan
- ▶ Eskola Kontseiluen eta euskararen arloan akordioa Jaurlaritzak eta Madrilek

IRATI GOITIA | ARRASATE

Ikasturte berriarekin, indarrean da LOMCE hezkuntza erreforma, baina irakasle, ikasle eta gurasoek ez diote ongi ongi egin Wert-en legeari. Lehen Hezkuntza eta Oinarrizko Lanbide Heziketan izango du aurten eragina.

LHn, "mesfidantza"

LHko lehenengo, hirugarren eta bosgarren mailetan aplikatu da, zehazki, eta hiru aldaketa nagusi ekarri ditu: lehena, abian dela erlijioaren ordezkotik berria: Gizarte eta Herritar Baloreak -Eusko Jaurlaritzak eman ditu ikasgai horretarako edukia eta irizpideak-. Bigarren aldaketa Ingurune ikasgaiari dagokiona da. Madri-

letik zehaztu da bitan banatu behar dela: Gizarte Zientziak eta Natura Zientziak. Euskal Autonomia Erkidegoan, baina, orain arte bezala jarraituko dute -curriculum ez da aldatu, astirik ez delako izan, Jaurlaritzaren esanetan-. Hala ere, ikaslearen espedienteetan bi nota azalduko dira. Hirugarren aldaketa nagusia da LHko hirugarren mailako ikasleek ebaluazio bat egin beharko dutela, euren ezagutzak neurtzeko. Emaitzak ikaslearen gurasoek eta ikastetxearen jakinaraziko zaizkie.

"LOMCErekin hezkuntzaren kalitatea hobetuko dela diote. Zer hobekuntza dakar ikasgai bat bitan banatzeak? Non dago esaten duten aurrerapauso hori? Orain-

goz, sortu duen bakarra da ezin negona eta ezjakintasun handia", adierazi du Mikel Uribarrenek, Aretxabaletako Kurtzebarri Eskolako irakasleak. Gaineratzen du "presaka, gaizki eta informazio gabe" egin direla aldaketak. "Ikasgai berriak eman behar badira, aurreprestatuak bat egon behar du. Irakasleok prestatu egin behar gara. LOMCE zapaltzeko makina bat bezala etorri da". Kritiko azaldu da baita Zigor Ibartzabal, Oñatiko Txantxiku Ikastolako zuzendaria: "Mesfidantza eta mehatxupean hartu dugu lege berriaren ezarpena. Sorpresaz ere esan daiteke; aurreko ikasturtean Eusko Jaurlaritzatik EAEn ahalik eta eraginik txikiena izan zezan

neurriak hartuko zituztela zioten. Ikasturte honetan, aldiz, derrigorrez hainbat eskabide bete behar direla adierazi digute". Horretan dabilta orain ikastolan, derrigorrezko eskaera horiek martxan jartzen. Hala ere, Ibartzabalek argi du euren beharretara egokitzeko ez den legea dela eta ikasleengan ahalik eta eragin txikiena izan dezan nahi dute. "Proposatzen diren aldaketak espainiar hezkuntza sistemak dituen gabezia eta arazoak gaintzeko helburuarekin egin dira; hala ere, espainiar erakundeek ere legea errefusatu dute. Euskal hezkuntza sistemak aspalditik gaintu dituen erronkak dira LOMCErekin lotu nahi direnak". Gaineratzen du eleaniztasunaren "aitzakia" aintzat hartuz, euskara eta hizkuntza minorizatuen aurka egiten duela: "Espainiar nazio ikuspegia bultzatzen du, euskal nortasunaren aurka eginaz". Hain zuzen, hori ere kritikatu zaio LOMCEri. Izan ere, Gizarte eta Herritar Baloreak ikasgai berriak, Espainiako Konstituzioaren baloreak eta Espainiako sinboloen esanahia landuko dira, adibidez.

Lanbide Heziketan, "atzera"

Lanbide Heziketan ere aurten hasi dira nabaritzen hezkuntza erreformaren eragina; zehazki, Oinarrizko Lanbide Heziketan. Julen Elgeta HETELeko -Gizarte Ekimeneko Lanbide Heziketako Ikastetxeen Elkarte- presidentea esan du ikasturte honetan nabaritu duena ez dela



Oñatiko Txantxiku Ikastolako 3. mailako ikasleak.

asko izango, baina datozen urteei begira "kontu handiz" hartu behar direla erabakiak, bi urte barru ager daitezkeelako lehendabiziko eragin esanguratsuak. "Gure Lanbide Heziketa sistemak ez du horrelako legerik behar. Irakasleentzat, ikasleentzat, enpresen-



Emaiozu neguko hotzari ongi etorri beroa

- Diru laguntzen kudeaketa (EVE):
 - Biomasa (egurra, pelleta, ezpalak...)
 - Prever plana
 - Galdara gela berriak
- Berokuntza instalazioen efizientzia hobetzea
- Egin beharreko lanak finantzatzeko aukera zabala
- Galdara indibidualen (partikularrak) mantentze lanak (azterketa, berrikuspena)
- Galdara gela kolektiboen mantentze lanak

Deitu eta eskatu aurrekontua konpromisorik gabe.

... eta informa zaitez bainuontzia dutxa bihurtzeko daukagun eskaintza bereziaz!

Amaia-Berri S.L.

Otalora kalea, 18. Aretxabaleta
Tel/Faxa.: 943 77 06 49
amaiaberri@amaiaberri.com
www.amaiaberri.com

Instagi.





IMANOL ZUBIZARRETA

MIKEL URIBARREN

MANIFESTAZIOAK Protesta agerraldiak egin zituzten joan den zapatuan Hego Euskal Herriko hiriburuetan. Hezkuntza eredu propio baten alde egin zuten, eta Espainiako Gobernuaren hezkuntza erreformaren aurka. *Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki, LOMCEri ez, inposizioei ez lelopean* egin zituzten manifestazioak. LOMCEren aurkako plataformak –Hezkuntza Plataformen Topagunea, Sortzen, Ikasle Abertzaleak, ELA, EILAS eta LAB– egin zuen deialdia. EHIGE guraso elkarteak, Ikastolen Elkarteak eta EH Bilduk ere babestu zuten.

Ikasle grebak deitu dituzte urrirako

Euskal Herria Sozialistak eta Ikasle sindikatuak ikasle greba orokorrak deitu dituzte urriaren 21, 22 eta 23rako. *LOMCEri ez! Unibertsitatearen, batxilergoaren eta LHren pribatizazioari ez! Kalitatezko hezkuntza publikoa, laikoa, doakoa eta euskalduna!* lelopean. Bestalde, dei egin diete LAB, ELA, STEE-EILAS, CCOO, UGT eta EHIGERI urriaren 23an Euskal Herrian hezkuntza komunitate osoaren greba orokorra egitera, "hezkuntza publikoaren aurkako murrizketa basatiak denon artean geratzeko".

amaierako ebaluazioak egitea edo aparteko zailtasunak dituztenak gaztetxotatik bereiztea.

Bat eginda

Argi dute denek LOMCEri bateratuta egin behar ziola aurre. "Lege honen aurka erakundeok, sindikatuak eta herritarrek elkarrekin lan egin behar dugu. Eusko Jaurlaritzak herria aurka duen lege bat dela jakin behar du eta horrela hezkuntza lege propio baterantz urratsak ematen jarraitu. Herriaren indarrean dago gakoa", esan du Ibartzabalek. Bat dator Zubizarreta: "Denok bagaude LOMCEren aurka, bateratuta egin behar dugu". Urribarrenek azpimarratu du hezkuntzaren erreforma egin behar bada, hezkuntza komunitateko agenteekin batera egin beharko litzatekeela. Eta gaineratu: "Hezkuntza erreforma ez da irakasleriaren arduraz izan behar soilik, gizarte guztiari eragiten digun zerbait da".

tzat eta Lanbide Heziketa sistemarentzat atzerapauso nabarmena ekarri du", adierazi du. Eta gaineratu du Euskal Herriko Lanbide Heziketa sistemaren maila "bikaina" dela eta LOMCEk ez diola ezer berririk eskaintzen: "Alderantziz, gure Lanbide Heziketan duela urte asko baztertu ziren planteamenduak berreskuratzen dira". Hezkuntza erreformak zehazten du, esaterako, DBH bukatzen ez duten ikasleak Oinarriko Lanbide Heziketa egitera bideratzea. Elgetak bi puntutan adierazi du desadostasuna horri dagokionez: "Batetik, ikasle horiek DBHko titulua jasotzea oso zail izango dute, ezinezko ez esatearren; eta bestetik, erdi mailako zikloetara joateko izango duten pasabide automatikoarekin ez gatoz bat". Lanbide Heziketa eskola porrotaren erantzuna izateko arriskua ere ikusten du Elgetak. Hala ere, ez da guztiz ezkorra: "Zorionez, aurreko astean onartu zen Lanbide Heziketako IV. Euskal Planaren helburuak erabat desberdinak dira".

Gurasoak, kezkatuta

Hezkuntzako eragileek ez dute begi onez ikusten, ezta gurasoek ere. Imanol Zubizarreta eskoriatzarra Baikarako –Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa– koordinatzailea da. Joan den ikasturtean hainbat hitzaldi egin zituen LOMCEren gainean. "Orokorrean, jendea eta familiak ez dira jabetzen etorkizunean LOMCEren aplikazioak ze garrantzi izango duen. Nik ez dut kontzientziarik ikusten, ekarriko dituen aldaketak kontuan izanda. Hitzaldiak egin ostean, konturatu zena jendea lur jota gelditzen dela. Izan ere, orain dela 40 edo 50 urteko hezkuntza sistemara itzultzea da. Esango nuke jendea lasai dagoela, lasaiegi", dio. 2013ko ekainean Elgetan izan zen hitzaldia eginen. Zera dio Ibai Etxani-

zek, Elgetako ikastetxeko guraso elkarte idazkariak: "Informazioa Baikaratik, komunikabideetatik eta eskolan egin diren bileretatik jaso dugu. Hala ere, ez dugu informazio zehatzik legearen aplikazioak izango dituen eraginez. Adibidez, entzuten da ikasleak euren mailaren arabera banatuko dituztela, egia al da hori? Edo hirugarren mailan egin behar duten ebaluazio horrek zertarako balioko du?".

ESANAK

"Aurreprestakuntza gabe, LOMCE zapaltzeko makina bat bezala etorri da"

MIKEL URIBARREN | KURTZEBARRI ESKOLAKO IRAKASLEA

"Legeari aurre egiteko, herriaren indarrean dago gakoa"

ZIGOR IBARTZABAL | TXANTXIKU IKASTOLAKO ZUZENDARIA

"Gure Lanbide Heziketa sistemak ez du horrelako legerik behar"

JULEN ELGETA | HETEL-EKO PRESIDENTEA

"Familiak ez dira jabetzen LOMCEren aplikazioak izango duen garrantziaz"

IMANOL ZUBIZARRETA | BAIKARAKO KOORDINATZAILEA

Akordioa hainbat puntutan

Hezkuntza erreformaren eragina txikiagoa izateko, akordioa sinatu zuten abuztuan Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak. Horrela, euskara eta Eskola Kontseiluak ez omen dute erreformaren eraginik izango. Izan ere, LOMCEren eraginez, kontseiluak kontsultarako organo izatera pasako lirakete eta zuzendaritzek izango lukete ahalmen handiagoa. Hitzarmenaren arabera, baina, Jaurlaritzak arautuko du kontseiluaren eta zuzendaritzaren arteko harremana. Euskara dagokionean ere, Jaurlaritzaren esku egongo da eta Madrilek euskaraz gaztelaniaz baino ordu gehiago ematea onartu du –gurasoek aukera izan behar dute gaztelaniazko ereduak hautatzeko–. Hein batean, ereduaren alde egin da Madrildik. "Guretzat euskararen alorrean lortutako akordioa ez da aurrerapausoa; baizik gauden bezala jarraitzea. Guk beti aldarrikatu dugu euskarazko sistema eredu bakarra. Honekin, oraingoz, bide hori itxi egiten da", esan du Zubizarretak. Urribarrenek informazio gehiago eskatzen du: "Esan dezatela zein izango den kontseiluren papera zehazki". Bi puntu horietan akordioa lortu duten arren, Jaurlaritzak ez du kenduko erreformaren aurka Auzitegi Konstituzionalean aurkeztutako helegitea, Euskadirena delako hezkuntza eskumena eta LOMCEk ez duelako hori betetzen. Epaitegiko tramiteak luze joko du, ordea.

Bestalde, Heziberri 2020 proiektua lantzen dabil Jaurlaritzak, horrek zehaztuko ditu curriculum berriak. Zain dira hainbat; tartean, Zubizarreta bera ere: "Orduan ikusiko dugu Jaurlaritzaren benetako jarrera. Ea bere curriculum aplikatzen duen, edo burua makurtzen duen. Legez, Madrildik ezarri behar du". Ibartzabalek, ordea, hori jo du LOMCEk ekarri duen alderdi positibo bakartzat: "Lege

honen ezarpenari aurre egiteko lege propio bat sortzeko bideari ekin izana da alderik positiboena, Heziberri 2020".

Aurten LOMCE "oharkabeen" pasako zela esan zuen Hezkuntza Sailburu Cristina Uriartek, ikasturtea hasi zenean. Hurrengoetan ikusi egin behar zer gertatzen den, ordea. LOMCEk proposatzen ditu, besteak beste: LHko seigarren mailan, DBH 4.enean eta batxilergoa amaitzean kurtso



Bergarako Hezkuntza Mahaia aurkeztu zuten ekitaldia. | GOIENA

Bergaran, Hezkuntza Mahaia

Hainbat herritan sortu dituzte hezkuntza plataformak LOMCEren aurka. Bergaran, Hezkuntzaren Mahaia eratu zuten. Lau herritarrek, irakasle batek eta Aranzadi Ikastolako, Ipintza Institutuko eta Miguel Altunako ordezkariak osatzen dute. Hala ere, parte hartu nahi duenendako zabalik dago. Izan ere, beharrezkoa ikusten dute batasuna. Hilean behin elkartzen dira kultura etxean –hurrengo azaroaren 6an, 19:00etan–. "Argi dago eragile bakoitzak ikuspegi desberdina izango duela aspektu ezberdinen aurrean, baina denok ados baldin bagaude LOMCEri ez, Euskal Herrian gure hezkuntza mezuarekin, batu ditzagun indarrak eta egin dezagun lan", adierazi dute mahaiko kideek. Izan ere, diote gizarte osoan izango duela eragina, ez eskoletan bakarrik: "Gizarte guztiarentzako atzerapausoa ekarriko duen legea da. Eta gizartearen arazoa delako, herria izan behar da honi erantzuna emango diona. Horregatik, Bergarako herriak eta Euskal Herriak ez dutela horrelako lege doktrinatzailerik zentralizatzaile, uniformizatzaile, segregatzaile, atzerakoi eta elitista nahi argi eta garbi utzi behar du". Gaia kalera ateratzea behar dela-eta, ostiralero elkarretaratzera eginen dute eta ikasturte honetan hilero zerbait "xumea" egitea pentsatu dute.

Gipuzkoako hondakin inerteak Zestoako harrobira

Gure hondakin inerteak datozen 15 urteotan Zestoako Osinbeltz harrobian biltzeko proiektua aurkeztu du asteon Gipuzkoako Foru Aldundiak

UBANE MADERA | ALBISTELEKXXX

"Ez du usainik, ez lixibiatuak sortuko". Berba horien bitartez lasaitasun mezua zabaldu nahi izan du Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen diputatu Iñaki Errazkinek Gipuzkoan sortzen diren hondakin inerteen biltegia Zestoako harrobian egokituko dutela iragartzeaz batera.

Diputazioaren asmoa da 2015eko amaierarako erabilgarri izatea biltegi berria. Eta hara eramatea datozen 15 urteotan –epea luzatzeko aukerarekin– gure hondakin geldoak.

Hondakin inerte edo geldoak dira birziklatzeko edo konposta egiteko balio ez dutenak, eta, era berean, ingurumenean arrisku-tutzat jotzeko adinako aldaketa fisiko, kimiko edo biologikorik ez duten eta lixibiatuen arauzko irizpideak betetzen dituzten hondakinak.

Zubietan inertizatu

Diputazioak iragarri du hondakin "soberakinei" tratamendu biologiko-mekanikoa emango zaiela Zubietan (Donostia) eraikiko duten planta batean. Horren bitartez, material batzuk berreskuratu egingo dira, gero konposta egiteko edo birziklatzeko; beste batzuk, berriz, "inertizatu" egingo dira. Hau da, duten oxigenoa, gasa eta likidoa kendu egingo zaizkie, kutsadurarik eta usainik sor ez ditzaten. Eta horiek dira Zestoara bideratuko direnak.

Urtean 170.000 tona tratatzeko gaitasuna izango du planta mekaniko-biologikoa. Eta Osinbeltz harrobiak, berriz, urtean 70.000 tona hondakin inerte hartzeko gaitasuna, Gipuzkoako Diputazioaren kalkuluen arabera.

Gunea berreskuratu

Bi arrazoiengatik aukeratu dute Osinbeltz: bata da Gipuzkoan erabiltzen ez den harrobirik handiena dela; eta bigarrena da hura betetzen joateaz batera, gunea ingurumen ikuspuntutik berres-



Zestoako Osinbeltz harrobia. | GOIENA

kuratzeko proiektua abiarazi gura dutela.

Gure eskualdeko planta

Hau guztiau iragartzeaz batera, Diputazioak jakinarazi du Osinbeltzeko biltegia martxan jartzeaz batera, Gipuzkoako zabortegiak itxi (Zarauzkoa, Azpeitiko eta Beasaingoa) eta konpost-planta berriak zabalduko dituela. Azken horien artean dago Debagoieneko: Epele (obretan dagoena). Eta gure eskualdekoarekin batera, erabiliko dute Azpeitiko (Lapatx, martxan dagoena) eta Zubietakoa.

"Kutsadura eta usain txarrak"

Oposizioak, berriz, ez du begi onez ikusi Gipuzkoako Diputazioaren proposamena. Debagoieneko EAJren esanetan, "Zestoako Osinbeltz harrobiko zabortegia ezker abertzalearen kale itsua da, 'governatzeko modu berria'

den inposaketaren bidez asmatutako kale itsua".

Aintzane Oiarbidek, Debagoieneko EAJko ordezkariak, azpimarratu du Diputazioaren erabakia "legez kontrakoa" dela, "Batzar Nagusiei baitagokie erabaki hauek hartzea. Ezker abertzaleak Batzar Nagusietan gehiengorik ez duenez inposatu egiten ditu bere erabakiak", salatu du.

Gaineratu du Osinbeltz aukeratzaren arrazoi bakarra bere kapazitatea dela, eta "ingurumenarekiko errespetuzko arrazoirik" ez duela aztertu Diputazioak.

Era berean, azpimarratu du Zestoara eramango duten hondakin motak "materia organikoa" izango duela, "eta honek kutsadura eta usain txarra" sortuko dituela. "Kataluniako Cerdanyolako modu bereko zabortegian gertatu zen antzera, non zabortegi honen inguruan, kilometro eta erdira sufritu ezinezko kiratsa sumatzen zen", jarri du adibide moduan. Eta besteak beste, salatu du proiektuak gauzatze epeak bete ezinda dabilela EHBildu. "Honen adibide Bergarako Epelen joan den legealdian konpost planta egiteko lur erosketak egin ziren baina Bildu ez da gai izan hiru urtetan planta hau abian jartzeko, oraindik adjudikazioa ere egin gabe dago eta legealdia bukatzeaz dago".

Gure altxorak bisitatzera

Bestalde, gogorarazi dute base-rietako hainbat produktu *on line* lortzeko bidea abian dagoela (www.baserrisarea.com); baita ere aurtengo jardunaldi gastronomikoen baitan bost sukaldaritza tailer antolatuko dituztela, azaroko martitzenetan lau eta azkena abenduaren 10ean. Eta, besteak beste, *Ezkatuko altxorak* izenburupean, hainbat bisita ere ahalbidetzen dituztela. Bihar, zapatua, adibidez, Oñatiko unibertsitatearena eta parrokiarena.

Maren Belastegi Guridi | UEMAKo lehendakaria

"Garrantzitsua da administrazioa eredu izatea herritarrendako"

UEMAk udalen eta goi administrazioaren artean harremanak euskalduntzeko pauso berria eman du

U.M. | DEBAGOIENA

UEMAko hainbat udalek gutunak bidali dituzte goi administrazioa harremanak euskaraz izan nahi dituztela ohartarazteko; Debagoienekoek, tartean. Norberaren herrialdeko aldundira eta Jaurlaritzara bidali dituzte gutunak. Maren Belastegi Guridi (Bergara, 1986) da UEMAKo presidentea. Bada, hark eman ditu ekimenaren xehetasunak.

Gutunak bidali dira bakarrik ala aurrerantzean harreman guztiak euskaraz gauzatuko dira?

Helburua da dena euskaraz izatea, bai dokumentazio idatzia eta baita harremana ere, telefono bidezkoa zein bileretakoak. Egia da goi administrazioan badaudela langile batzuk euskaraz ez dakitenak, eta muga hori izango dugu, baina asmoa da harremanak euskaraz izatea. Debagoienetik bost udalerririk hartu dute parte, UEMAKo kide direnek: Oñatik, Antzuolak, Elgetak, Aramaiok eta Bergarak.

Orain arte udalen eta goi administrazioaren arteko harremanak zein hizkuntzatan egin dira, ba?

Urteotan, orokorrean euskaraz egin da bai Gipuzkoako Diputazioarekin eta baita Jaurlaritzarekin ere, nahiz eta alorraren arabera egoera aldatu. Baina orain onartu diren planetan ikusten zen pauso bat harago egin behar zela, administrazioa euskalduntzeko bidean.

Planak aipatu dituzte; administrazioa euskalduntzeko erabilera planen gainean diharduzu. 2017a amaitu arte indarrean egongo dira. Zertan datza?

2013an diagnostikoa egin genuen, eta, egoeraren arabera, lau mailatan sailkatu udalak. Sailkapen horretan, adibidez, Antzuola dago *Tontorrean*: euskaraz funtzionatzen du ia %100. Eta Oñati, Elgeta, Aramaio eta Bergara daude *Gorabidean*: nagusiki euskaraz funtzionatzen dute eta ele bitan funtzionatzen duten kasuetan, lehentasuna euskarari ematen diote. Beste bi mailak honako hauek dira: *MagaLEAN* (ele bitan) eta *Abian* (gaztelania dezentekoa erabiltzen den kasuetan). Planen helburuak, berriz, hiru dira: 1- Herritarrekiko harremanetan euskara izatea zerbitzu hizkuntza, betiere, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuta. Hau da, bat edo batek gaztelaniaz eskatzen badu, gaztelaniaz emango zaio. Gaur egun ere horrela jokatzen da. 2- Beste administrazioarekiko euskarazko harre-



Maren Belastegi. | UBANE MADERA

manak bultzatzea. 3- Eta administrazio barruko lan hizkuntza euskara izatea.

Zein da eskualdeko egoera hiru helburu horien garapenean?

Planak udal bakoitzaren errealitate egokitu dira, eta, horren arabera, eman beharreko pausok desberdinak dira. Adibidez, Antzuolan garatuago dago, herri txikia delako eta herri euskaldunago delako: %90 edo gehiago euskalduna da. Eta Aramaion, berriz, inguruko administrazioarekiko harremanak euskaraz izatea zailagoa da, Arabako Aldundiarekin, adibidez, hori lortzea zailagoa delako. Edo bertako Koadrilan bertan ere. **Kanpora begira, zergatik da horren garrantzitsua administrazioen harremanak euskaraz izatea?** Garrantzitsua gu da eredu izatea herritarrendako. Gu aurretik joatea gero herritarrek administrazioa gerturatzen direnean, eurak ere, inongo beldur barik euskaraz gertura daitezten.

"Antzuolako Udalak ia %100ean euskaraz funtzionatzen du"

Onddoa, bakailaoa eta sagarra oinarri aurtengo turismo gastronomikoan

U.M. | DEBAGOIENA

Dagoeneko adinez nagusi da eskualdea ezagutzeko Debagoieneko Mankomunitateak proposatutako turismo gastronomikoa. XVIII. aldi honetan, onddoa, bakailaoa eta sagarra dituzte oinarri ekimenen parte hartzen duten zazpi jatetxeetako menu bereziek, abenduaren 14ra arte.

Eta horien osagarri, eta bisita gidatuak baliatuta, "bertako produktuen jatorria eta elaborazio prozesua ezagutzeko eskaintza zabala" prestatu dutela iragarri dute: Antzuolako Lapatza, Aretxabaletako Mendibitzu edo Arantzazuko Gomiztegiko ekoizpenak, Leintz Gatzagako Gatz Museoa, Oñatiko Txokolateixia, eta beste.

DATUA

3

KONPOST PLANTA



Zestoako biltegiarekin batera, hiru konpost planta erabiliko dira, Epelekoa tartean.



UDAKO ARGAZKIEN X. GOIENA LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: blogak.goiena.eus/argazkiak

Baita hemen ere:  udakoargazkiak  udakoargazkiak



Banatu ditugu sariak

Banatu ditugu udako argazkien X. Goiena lehiaketako sariak. Nerea Mendiola oñatiarrak irabazi du lehen saria, *Golden Gate* argazkiarekin. Argazkia San Frantziskon atera zuen. Bigarren saria Xabi Urteaga oñatiarrak

eskuratu du, *Palmera basoa kristalezko bolan* argazkiari esker; Koh Racha Yai uhartean (Tailandian) egindako argazkia da. Eta hirugarrena Ixaso Kalbano bergararrak New York argazkiari esker. Herritarrek euren

botoekin Maitane Roa arrasatearraren *Arratsalde pasa Udalaitzen* argazkia aukeratu dute. Hauen artean, Nagore Balenciaga aretxabaletarrak jaso du boto emaileentzako saria.

1



SARI NAGUSIA

Nerea Mendiola oñatiarrak irabazi du sari nagusia: Canon EOS 1200D reflex argazki-kamera digital bikaina, KBPhotoestudio argazki-dendak eskainitakoa. Dendako Bibi Anduezak eta Jon Anduezak eman zioten saria.



2. SARIA

Oñatiko Xabi Urteagak irabazi du bigarren saria, Arrasate Bidaiak-en eskutik Orioko AISIA hotelean bi pertsonendako SPA zirkuitua eta aste-buruko menua. Arrasate Bidaiak-eko Beak eman zion saria.



3. SARIA

Bergarako Ixaso Kalbanok irabazi du bigarren saria, bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean. Jatetxeko Marisak eman zion saria.



HERRITARREN SARIA:

Arrasateko Maitane Roa irabazi du herritarren saria, Liburu elektronikoa, Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.



HERRITARREN SARIA



BOTO EMAILENTZAT SARIA



BOTO EMAILENTZAT SARIA

Aretxabaletako Nagore Balenciagak irabazi du bigarren saria, Munduko kafe ezberdinen otarrea, Arrasateko Karibu dendaren eskutik. Karibuko Nuriak eman zion saria.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

KB
photoestudio
www.kbphotoestudio.com

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA
JATETXEA

Arrasateko hipermerkatua

EROSKI

zvrekin

karibu
munduko zaporeak
karibumundukosaporeak.com

Bularreko minbiziaren kontrako borroka, Bergaran

Bihar, zapatua, informazioa partekatu eta dirua batuko dute, ikerketetarako

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Domekan, urriaren 19an, bularreko eta ginekologiako minbiziaren kontrako nazioarteko eguna da. Eta hori abiapuntu, Bergaran ordezkariak duen Katxalin elkarteak kideak kalera aterako dira, bi helbururekin: informazioa partekatzea eta dirua batzea.

Hain justu, dagoeneko hasita dira gaiari oihartzuna ematen, asteen minbizi mota hori jasaten duten gaixoen adierazgarri den lazo arrosa jarri dute eta Bergarako udaletxeko balkoian.

Eta horrez gain, biharko, zapatua, egin dute hitzordua Bergaran bertan. "Hiru puntu esanguratsutan jarriko ditugu mahaiak: Irala kalean, Eroski inguruko izkinan eta azoka plazan. Hamabost bat lagunak egingo ditugu txandak. Gaixoak, lagunak, laguntzaileak... izango gara bertan (...) Urtean dirua eskatzen dugun egun bakarra da horixe. Eta batzen dugun guztia minbiziari aurre egiteko ikerketara bideratzen da. Katxalin elkarteak gardentasun osoz jakinarazten du batutako zenbatekoa eta zertara bideratuko den", esplikatu du Maite Valle, Katxalin elkartearen ordezkariak.

Datorren barikuan

Irailaren 26az geroztik du ordezkari Katxalin elkarteak Debagoiengan. Errotalde jauregian elkartzen da 8-10 bat laguneko taldea, egubakoitzetan, hamabostean behin: 10:30etik 13:00ak arte eta 16:00etatik 19:00ak arte. Gaur zortzi da bulego horren hurrengo hitzordua. Ateak zabal-zabalik ditu beharra duten edozeinendako, doan, eta, gainera, "buruan gauza asko" dituzte, gure eskualdean garatzeko: psikologo zerbitzua, hitzaldiak... Indartsu daude.



Lazo arrosa Bergarako udaletxeko balkoian. | U.M.

Beldurra eragiten du oraindik?

BEGOÑA MUXIKA
ARRASATE



"Ezagutzen dudan jendeak modu naturalean berba egiten du gaixotasunaz. Bestalde, normala da beldurra izatea, gaixotasun serioa da".

AINARA MENOYO
ZORNOTZA



Medikuntza aurrera doan neurrian, seguru aski, beldur txikiagoa eragingo du. Informazio gehiago behar dugu".

ALBA PARRILLA
ARRASATE



"Bai, beldurra eragiten du. Uste dut jendeak jakintza handiagoa izan beharko lukeela; bestela, jendearen beldurra handiagoa izango da".

MIREIA RIVERA
ARRASATE



"Uste dut informazio gehiago izan beharko genukeela edo sarriago joan medikuarengana. Informazio gehiagok lagunduko luke beldurra txikitzen".



Diputazioko eta Udaleko ordezkariak, Kulturaten. | MAIALEN TORRES

Lanera oinez edo bizikletaz joateko dei egin dute

Sentsibilizazio kanpaina abiarazi dute Gipuzkoako Diputazioak eta hainbat udalek

MAIALEN TORRES | DEBAGOIENA

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Aretxabaletako, Arrasateko, Eskoriatzako eta Oñatiko udalek lanerako joan-etorriak oinez edo bizikletaz egitea sustatzeko kanpaina aurkeztu dute asteen. Enpresekin elkarlanean eta haiei laguntzak eskainiz egingo diote proiektu aitzindariari, baina kanpainak herritarren kontzientziazioa izango du oinarri.

Komunitatea sortu guran

"Kontzientziazioa bultzatu nahi dugu, kontziente izan daitezen autoa hartzen duten bakoitzean, eroso izan arren, zein eragin sortuko dituzten, bai mugikortasun aldetik, baita ingurumenari dagokionez ere" azaldu du Igor Ezpeletak, Eskoriatzako Mugikortasun zinegotziak. Horretarako, lantokira oinez edo bizi-

kletaz joateko aukeren "informazio argia" eskainiko diete herritarrei, Lanera Bizikletan ekimenaren blogean (*LaneraBizikletan.net*) eta sare sozialetan. Tresnok erabiliz, komunitate bat sortzeko asmoa dutela esan du Larraitz Ugartek, Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Bide Azpiegiturako diputatuak, herritarrek informazioa parteka dezaten. "Sare bat osatu nahi dugu lanera oinez edo bizikletaz joaten direnekin, eta bertan alta ematen duten guztiek txartel bat eskuratuko dute", dio Ugartek.

Eta herriz herriko informazio batzarrak iragarri dituzte: urriaren 21ean Oñatiko udaletxean, 19:00etan; 23an Eskoriatzako Ibarraundin, 18:30ean; 27an Aretxabaletako kultura etxean, 19:00etan; eta urriaren 30ean Arrasaten, Kulturaten, 18:30ean.

Elikagaiekin lan egiten duten profesionalentzako edo profesional izan gura dutenentzako ikastaroa

Elikagaien manipulazailer-txartela ateratzeko ikastaroa antolatzen ari dira langileendako eta langabeendako. Hobetuz-en bidez %100 diruz lagundutakoa da, eta oraindik izena emateko aukera dago. Informazio gehiagorako, deitu 943-76 93 94 telefonora edo idatzi info@bizikasi.com helbidera.

KOMUNITATEA GOIENA
BIZIKASI | BERGARA

Kontrabandisten, erromesen eta merkatarien bideak ezagutzeko ibilaldia egingo dute etzi, domeka

Elgea-Urkilla mendilerroan historian zehar erromesek, kontrabandistek eta merkatariek erabilitako ibilbideak ezagutzeko aukera izango da, besteak beste, domekan, Arantzazu Parketxetik abiatuko den txangoaren bitartez (Gandiaga 1 eraikinetik, 09:00etan). Ibilbide horietatik esanguratsuenak, adibidez, Calahorrako Galtzada da. Arantzazuko Parketxeak eta Arantzazuko Adiskideek 2014an antolatutako azkeneko mendi irteera da hori.

Larrialdietan eman beharreko lehen sorospenen gaineko ikastaroa, Gurutze Gorriaren eskutik

Emergentzien aurrean zer egin jakiteko, nondik hasi edo zela jokatu, Gurutze Gorriak lehen sorospenen ikastaroa egingo du Kulturaten (Arrasate). Kontuan hartu behar diren jokaerei buruz egingo dute berba. Adibidez, BAS araua (Babestu, Abisatu eta Sorostu) eta bihotzekoen aurrean jarrailu behar den prozedura, BBB (Bihotz Biriketako Bizkortzea). Ikastaroa 20an hasiko da eta azaroaren 20ra arte izango da, 17:30etik 20:30era.

Herritar ugari garraioaren berrikuntzen berri jasotzera

8 milioi kilometro egitetik 10,5 milioi kilometro egitera pasatuko da garraio publikoa, Diputazioak gure eskualdean jarriko dituen zerbitzu berriei. "%33 haziko da kilometro kopurua", esan du Larraitz Ugarte diputatuak Arrasaten, Kulturaten. Zerbitzu berrien gaineko xehetasunak eman dituzte, eta interes handia eragin dute.



TXOMIN MADINA

Iñigo Lamarca | Arartekoa jardunean

"Krisian gaudenetik gora egin dute oso modu nabarmenean gizarte laguntzei buruzko kexuek"

- Oraingo astean agortu du agintaldia Lamarca Arartekoak, baina jardunean jarraituko du
- "Motibazio handia izan dut, baina buruhaustek ere bai" dio 10 urteren ostean

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Iñigo Lamarca (Donostia, 1959) 10 urte bete berri ditu Ararteko moduan. Eta agintaldia amaitu ostean, utzi egingo du kargua. Une honetan, jardunean dihardu hurrengo aukeratu bitartean. Arartekoaren erakundearen garrantziak dihardu. Xenofobiak azkenaldian gora egin duela dio. Kezkatuta agertu da horregatik.

Egindakoarekin gustura?

Bai, baina azkenera arte lanean jarraitu beharra dago. Oso modu intentsuan jardun dut. Oso aberasgarria izan da. Gizartekintzatik nator eta Zuzenbidean lizentziaduna naiz. Hortaz, gauza biak uztartu ahal izan ditut. Oparia izan da niretako. Zuzenbideari ahalik eta etekinik handiena ateratzea herritarren eta giza eskubideen mesedetan benetan aberasgarria eta pozgarria da. Motibazio handia izan dut, baina baita buruhaustek ere, eta nekegarria izan da.

Arantzaren bat geratu zaizu?

Esango nuke ezetz. Baina, batzuetan, kosta egin zait Arartekoaren eskumenen barruan aritzea. Herriaren defendatzaile eta giza eskubideen babesle naizen heinean, herritar askok eskatu digu gehiago egiteko. Baina mugatua da gure jarduna. Administrazio publikoa da gure lan eremua. Eta muga horiek oso kontuan eduki behar izan ditut, esaterako, egin ditudan adierazpenetan. Izan ere, Arartekoaren ebazpenek ez daukate betearazteko indarririk eta, horregatik, oso inportantea da argi edukitzea gure eskumenen barruan ari garela lanean, inpartzialtasun osoz. Alegia, gizartearen aurrean sinesgarriak izatea. Hori egingo ez bagenu, alderdikeria ariko ginatke eta gure sinesgarritasuna eta eraginkortasuna kolokan egongo litzateke, ahuldu egingo litzateke.

Inoiz egin diozu galdera zeure buruari: Arartekoa zertarako?

Gure eraginkortasun maila oso handia da. Administrazioaren batek zuzen jokatu ez duela ebatzi dugunean, kasuen %87an men egin diete administrazio publikoek gure ebazpenei. Herritarrek ezagutzen dute Arartekoa eta, gutxi-asko, haren eginbeharra zein den ere bai.

Zenbat erreklamazio, kontsulta edo kexu jasotzen ditu Arartekoak urtean?

Urtetik urtera gero eta gehiago. Iaz 9.600 izan ziren. Gehienak etorri dira hiru hiriburuetan ditugun bulegoetatik, baina postaz edo Internetez ere egin daitezke.



Iñigo Lamarca Arrasaten, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

Krisian gaudenetik aldatu egin dira kexuak?

Bai. Kexu edo erreklamazioen herenak zerikusia dauka gizarte laguntzekin. Eta krisian gaudenetik %120 gora egin dute era honetako kexuek. Gainerako bi herenak hezkuntzarekin, osasun zerbitzuekin, isunekin, hirigintzarekin edo ingurumenarekin zerikusia dutenak dira... Arartekoan 28 lan arlo ditugu eta horietatik hamabost herritarren ekimenez jasotzen ditugun kexuak kudeatzeko dira eta besteak gure ekimenezkoak. Politika publikoak aztertzeoak dira.

Baduzue beste herri defendatzaile batzuekin harremanik?

Harreman estua daukagu Espainiako herri defendatzaileekin. Eta datuak alderatzen ditugu. Esan genezake Arartekoaren efikazia maila altuenetakoa dela. Beti izan da %80tik gorakoa. Beste batzuean hortik behera dago. Baina, bestetik, beste herrialde batzuetako *ombudsman*-ekin ere badaukagu harremana. Suedian sortu zen erakundea duela 200 urte baino gehiago. Arartekoak 25 urte ditu. Han errotua dago herri defendatzaileen kultura. Demokrazia bera. Suedian eraginkortasun maila ia-ia %100ekoa da. Gure batez bestekoa handia da, baina Suedia daukagu helburu moduan.

Fagor Etxetresnen itxiera dela-eta, Ordaindu eta Eskuratu plataformarekin elkartu zinen. Zein izan da zure gomendioa?

Arartekoaren esparrua erakunde publikoak dira. Baina, krisiarekin batera, enpresa pribatuek euren langileekin dituzten arazoek gaineko kontsultak handitu egin dira. Horietako bat da aipatzen duzuna. Aholkularitza juridikoa eman dugu eta bitartekari lana egin dugu, esaterako, eskatuz, Mondragon Taldeko buruei plataforma horietako kideekin batzartzeko. Elkartu izan direla erantzun ziguten.

Euskal erakunde guztiek betetzen dituzte modu berean Arartekoaren ebazpenak?

"Arartekoaren eraginkortasun maila oso handia da, %87 inguru"

"Erreklamazioen herenak zerikusia dauka gizarte laguntzekin"

Bai. Administrazioen artean ez dago ezberdintasun nabarmenik. Herritarren kexu, erreklamazio edo iradokizunik bada, lehenbizi, erakundearekin jartzen gara harremanetan eta erakundeak obligazioa du informazioa emateko. Bestetik, iaz egindako erreklamazioen osteko txosten guztien ostean, ondorioztatu genuen erreklamazioen %55ean ez zela zuzena izan administrazioaren jokabidea. Eta, horrenbestez, eskatu zitzaion erakundeari alda zezala bere erabakia edo prozedura eta, esan bezala, %87an gure eskaera bete zuten. Administrazioaren obligazioa ere bada, gure ebazpena bete behar ez badu, zergatik egingo ez duen erantzutea.

"Kosta egin zait batzuetan nire eskumenen barruan aritzea"

"Hondarribiko eta Irungo alardeetan udalek gehiago egin behar dute"

Oraintsu Gipuzkoako Diputazioaren eskaeraz egindako inkesta baten arabera, gipuzkoarrak ez gara arrazistak. Hala uste duzu zuk ere?

Ondorioa zen gipuzkoarren gehiengo ez garela arrazistak. %80 baino gehiengo. Baina batzuek aitortzen zuten arrazistak direla. Bestetik, gure lanaren ondorioz, esan genezake xenofobiak gora egin duela azkenaldian. Gurera etortzen den jendeari entzunda, edizio digitaletako iruzkinak ikusita... nabarmen daiteke badela gutxiengo bat arrazista dena eta, gainera, azkenaldian hazten ari dela xenofobia gure gizartean.

Javier Maroto Gasteizko alkatearen berbak ere hor daude.

Bai. Marotok esan zuen, eta hori ari da aztertzen fiskaltza, magrebtarrek ez dutela lanik egin nahi. Beste kontu batzuk ere esan eta egin ditu. Baina hori esan zuen eta ez du zuzendu esandakoa. Gutxienez, bidegabekeria izan zen.

Ze helbururekin egindako adierazpenak dira?

Ez dakit. Hark dio kalean jende askok arrazioa ematen diola. Kargu publikoan dihardugunok erantzukizunez jokatu behar dugu. Demagogia egitea erraza da, baita sua piztea ere. Ez dut esaten Marotok hori egin duenik. Orokorrean dihardut. Nazioarteko Giza Eskubideen Adierazpenak lehen artikuluan dio gizon eta emakume guztiok dugula duintasun berbera izateko eskubidea. Krisiak jende asko kolpatu du eta horrek sortzen du gizartean beldurra, egoneza... Eta horren ondorioz sortu ohi dira jarrera populistak. Baina saihestu egin behar dira. Gustatuko litzaidake halakorik ez errotzea gure komunitatean.

Zer gertatzen da Hondarribian edo Irunen alardearekin? Arartekoak, Emakundeak, erakunde ezberdinek esandakoaren kontrara dihardute han. Zer egin?

Aldaketak izan dira. Eta erakundeek erantzukizunez jokatu behar dute. Giza eskubideak tartean daudenean, are gehiago. Hondarribiko edo Irungo udalek ez dute erantzukizunez jokatu. Bizikidetzaren aldetik urteen poderioz hobera egin du egoerak, baina ez udalek egin dutenaren-gatik. Beste alde batera begiratu dute udal horiek. Herritar batzuen ahaleginari esker hobetzen joan dira gauzak. Berdintasun eskubidearen inguruan udal horiek ez dute egiten egin beharrekoa.

ZABALIK

AINTZANE IRIZAR
goiena.eus/komunitatea/



Emakumea naiz... eta zer?

Orain dela hilabete inguru, etxean nengoela, gizonen baten ahotsa entzun nuen kaletik, "Ajos, melones, patatas de primera calidad, venga y compruébelo... señora!!!", garrasika. Hurrengo egunean, berriz, etxeko telefonora deitu "zidaten" (zioten) eta emakume baten ahots siku batek: "¿Está el señor de la casa?", esan zidan; telefono konpainia batetik deitzen zuen. Ni ez nintzen, antza, haren azalpenak ulertu eta erabakirik hartzeko gai. Berakatzak ikusi eta erosteko bai, ordea, horretarako berezko sena daukat, itxuraz, señora izate hutsagatik.

Dena dela, arrautza edo oiloa, zein izan zen lehenengo? Izan ere, berakatz-saltzaileak gizonen nola deituko die, ba, inoiz gizonen bezerorik gerturatu ez bazaio? Ez dut uste emakumeoi rolik ezartzeko ezkutuko asmorik izango zuenik furgoneta gainezka Antzuolara iritsi zen gizon horrek.

Berriki, bi lagunek (emakumeak biak) esan didate lantokian, lan berdinarekin truke, gizonen baten gutxiago kobratzen dutela. Ideiarik ere ez daukat, baina, legez kanpokoak izango da hori, ez? Eta hala ez bada, izan beharko luke!!!

Neuri ere gertatu zitzaidan halako zerbait. Langabezia nengoen; kafetegi batean langile bat behar zutela eta, deitu nuen eta emakume batek galdetu zidan ia umerik neukan. Ez dakit erantzun ere nolatan egin nion, baina, nik, baietz! Eta erantzuna, "orduan ez zait interesatzen".

Umeen ardurak buruan, ez omen dugu behar bezala lan egiten... emakumeok. Horixe esan zidan!!! Eta ni, hitzik gabe, aho zabalik. Aitek, antza, ez dute umeen ardurarik; edo, behar bada, ardurak izanda ere, gai izango dira behar bezala lan egiteko.

Anekdotak dira, egunerokotasunean gertatutakoak, besterik ez, ez noa ni genero-desberdintasunari buruzko azterketa sakonik egitera, baina, sakonago dagoen zerbaiten isla dira.

USTEAK USTE


MIREIA BIKUÑA | mbikuna@goiena.com

Bidegorrian ibiltzeko abiadura

Domeka. Goizeko hamaikak. Egun eguzkitsua. Oñati eta Arrasate arteko bidegorria jendez lepo: familiak bizikletan, patinetan, oinez... Zubillagako zuzeneko baten bizikleta batek abiadura handiz aurreratu ninduen. Ni Zubillaga aldera eta hura Oñatirantz. Ikaratu egin nintzen. Bidegorrian ibiltzeko abiadura 10 kilometro ordukoa dela dio lurrean margotutako seinale gorriak. Baina inork errespetatzen al du abiadura hori? Are gehiago, bidegorrian erabiltzaile asko baldin badabil? Halakoetan, hobe da bizikletak errepidetik joatea. Bizikleta erabiltzaile naizen aldetik, bidegorriak lasai ibiltzeko guneak direla esango nuke.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.eus/komunitatea/



GUTUNAK

Herri harresia

Garikoitz Igartua
(Herri harresiko parte-hartzailea)
Aretxabaleta

Ostiralean, urriaren 3an, Koldo Mediavillak idatzi eta Arrasateko EAJko taldeak itzulitako gutuna dela eta, hainbat kontu argitu nahiko nituzke.

Nire burua aurkeztu behar lehenengo. Beste hainbat herritarrekin batera, Madrilerara abiatzearen ziren gazteei zein bertan geratzea erabaki zuten bost gazteei elkartasuna eta maitasuna helarazteko, Loiolako herri harresian parte hartu nuenetako bat naiz. Aldez aurretik, gogorarazi nahi dut gazte hauek Euskal Herriaren aldeko lan politiko eta soziala egiteagatik izango direla epaituak eta honen aurrean sortu berri den mugimendu berria guztiz herritarra dela. Beraz, herritik horren urrun sentitzen bazarete, atera zeuon kontuak. Horregatik, testua ez dut kritika bezala hartu. Argi gelditzen da haserre zegoen batek idatzi zuela. Haserre

zegoen batek burura etortzen zitzaizkionak besteei leporatzeko.

Baina ez da hori bakarrik. Herri harresia kontestutik atera duzue, nahi bezala interpretatzeko. Garbi utzi zuten bost auzipetuek elkartasuna eta konpromisoa eskatzearen zergatia: "Gure helburua Euskal Herrian sortu behar dugun herri harresia eraiki eta indartzea da. Herri harresi bat epaiketarik amaitzeko. Herri harresi bat gatazka politikoan aurrera egiteko". Begira, bestela, hemerroteka. Horregatik hurbildu ginen ni eta beste hainbat gazte Loiolara.

Baina ez, zuentzako ez. EAJ geneukan jopuntu, Ertzaintza probokatu nahi genuen, errepresioa bizi...

Epaiketa politikoan aurkako herri harresia zen, konponbidearen aldekoa. Non kokatzen da zuen alderdia, hortaz? Auzitegi Nazionaleko epaileak agindu, Ertzaintzak atxilotu, epaitegira eraman eta epaitu. Ez al da epaiketa politikoetako katebegi bat poliziaren papera? Eta epaiketa salatzeak ekintza bat

desobedientzia? Ez. Barkatu. Ahaztu egin zait "probokatu eta errepresioarekin lotu" nahi genituela bakarrik.

Egunkarietako iritzi artikuluek ez dute ezer aldatu: epaiketarik aurrera doaz. 28 dira oraingoan eta gutxiago akaso hurrengoan. Baina aurrera doaz. Eta ez dut zuen elkartasun zantzurik ikusi.

Harritu egiten nauzue. Hurrengo herri harresian, ordea, han izango naiz berriro. Epaiketa politikoak amaitu arte, konponbidearen alde.

Eskoitzara eguna

Larraitz Iparragirre
Eskoriatza

Euskal Herrian, konponbidearen aitzinean pauso garrantzitsuak ematen ari diren honetan, euskal presoen oinarriko eskubideak herri giroan aldarrikatzera gonbidatzen zaitugu.

Azaroaren 15erako Eskoitzara eguna antolatu nahi dugu; eta egun hau zure egina.

Animatu eta parte hartu!

Karakterek, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena-abizenak, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatibea Elkarte
Otarora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Maketaria Inaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziertra Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Uthane Madera
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otarora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otarora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otarora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza
diruz lagundutako
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Bixente Dorronsoro, Arrasateko Iker Sukaldeak-en dendan.

Bixente Dorronsoro | Iker Sukaldeak

"Dicarekin hasi gara lanean, punta-puntako etxea da"

Iker Sukaldeak Arrasaten, Oñatin eta Urretxun dago. Marka berriarekin hasi dira lanean eta sukaldez gain, etxe osorako altzariak ere eskaintzen dituzte orain.

Fagorrekin gertatutakoaren ostean, zuen jarduna moldatu behar izan duzue.

Bai, 30 urte egin ditugu Fagorrekin lanean eta itxi egin behar zutela jakinarazi zigutenean, beste marka bat bilatu behar izan genuen. Kalitatearen aldeko apustua egin dugu. Lehen ere kalitatea eskaintzen genuen Fagorrekin. Orain, prezioaren eta kalitatearen alde egin eta merkatu guztirako dugu eskaintza: prezio merkeetatik garestia-goetara.

Ze marka da orain duzuen?

Sukalderako eta etxerako altzariak egiten dituen Dica etxeaz hasi gara lanean, Errioxarra da. Merkaturako ondo begiratu eta aztertu ostean, aukeratu dugu. Bere kalitatea eta lerroak gustatu zitzaizkigun. Punta-puntako etxea da, Milaneko azokara ere joaten da, esaterako.

Lerroak nabarmendu dituzu. Nola-koak dira?

Apenas erabiltzen ditu heldulekuak, adibidez. Armairuek goletak daramatzate. Hala, lerro oso zuzenak dira. Garbitzeko oso errazak eta erabiltzailearentzako oso erosoak. Horretaz gain, oso tonalitate pastelak erabiltzen ditu. Bistarako oso atseginak, nekatzen ez dutenak; urte asko irautekoak. Bestalde, atea irekitzeko hainbat elementu elektriko ditu. Zehazki, botoi baten bidez zabaltzen dira.

Kalitatea ere azpimarratu nahi izan duzu. Ze motatako materialak erabiltzen ditu Dica?

Egia esan, fabrikatzaile guztiek material berdinak erabiltzen dituzte. Dica, baina, gainerakoek baino armairu alde potoloagoak egiten ditu. Horrela, gogorrakoak dira. Horretaz gain, gilborduraren aurkako hainbat osagarri ditu.

Ze etxetresna elektriko erabiltzen dituzte?

Dica etxeak Electrolux markako etxetresna elektrikoak erabiltzen ditu. Hala ere, une honetan gu marka guztiak ari gara saltzen: Electrolux (AEG, Zanussi eta Electrolux) zein BCH (Bosch, Siemens eta Balay). Catarena aurre-

ra badoa, Fagor markako produktuak ere salduko ditugu. Izan ere, guretzako beti izan da garrantzitsua dirua etxean geratzea.

Sukaldez gain, etxeko altzariekin ere hasi zarete lanean orain.

Bai, orain arte ez dugu arlo hori landu. Sukaldeak bakarrik egiten genituen. Orain, baina, armairuak, jantzigelak, egongelarako altzairuak, apal apaingarriak eta elementu osagarriak eskaintzen ditugu. Dena Dica etxearekin.

Hiru dendak –Arrasate, Oñati eta Urretxu– eraberritu dituzte.

Bai, Fagoretik sukaldeko altzari-eruen lerroa itxi behar zutela jakin ostean, inbertsio handia egin behar izan dugu hiru dendak aldatzeko. Arrasaten hasi ginen lanekin –denda printzipala da– eta dagoeneko bukatu ditugu. Egia esan, asko gustatu zaio jendeari aldaketa. Oñatin ere bukatu dugu jada eta Urretxun azken ukituak falta zaizkigu.

Jendeak bisitatzeko moduan daude beraz?

Bai. Gainera, onena dendara etortzea da. Izan ere, nik hitzez produktua deskribatu arren, etorri egin behar da produktua ikustera eta ukitzera. Esaterako, atea irekitzen diren ikusteko. Egin dugun aldaketa oso-oso handia izan da eta uste dugu hobera egin dugula.

Irekiera ekitaldia ere egingo duzue.

Bai, aldaketa guztiak erakusteko inaugurazioa egingo dugu Arrasateko dendan. Oraindik zehaztu gabe dago eguna, baina jakinaraziko dugu. Jendea animatu nahi dugu etorri eta produktuak lehen eskutik ikus ditzaten.

"Oso erosoak eta garbitzeko errazak dira altzariak"

"Produktua ukitzera eta ikustera etor daitezela"



iker, s.l.

sukaldeak | etxea | armairuak

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

dica®

HERRIAK



Santa Ana aretoan eguaztenez egindako entsegua. | OÑATIKO EUSKAL MEMORIA

ONATI

Euskarak jasandako eraso, taula gainean

Euskal Memoriak ikuskizun multimedia ekarriko du Oñatira urriaren 31n

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Euskara, añubea eta eguzkibegixa izeneko ikuskizuna taularatu du Oñatiko Euskal Memoria Taldeak urriaren 31n Oñatiko Santa Ana antzokian. Euskarak bizitako jazarpena kontatzen duen ikuskizun multimedia da. Antzerkia, dantza, musika, bideoak eta testigantzak uztartzen dituen ikuskizuna, hain zuzen ere. Parte-hartzaileetako batzuk hauek dira: Xabier Amuritz, Kontxita Beitia, Joseba Irazoki, Zigor Etxaburu, Garbiñe Petriati eta Eneritz Dueso. Testigantzen artean, berri, oñatiarren ere entzungo dira bideo formatuan.

Oñatiarrak testigantzen soka
Oñatiko Euskal Memoria Taldea aritu da testigantza horiek jasotzen. Hala, besteak beste, Ana Mari Zumalde, Gurutz Jausoro, Jose Urtzelai eta Jokin Ezpeleta oñatiarren adierazpenak jaso

PRESTATUTAKO EGITARAUA

URRIAK 27-AZAROAK 9

Erakusketa: *Euskara, ospeletik eguterara*. Kultura etxean, 18:00-20:00.

URRIAK 30

Mahai-ingurua: MUren fakultatean, 10:00etan.

URRIAK 31

Ikuskizuna: *Euskara, añubea eta eguzkibegixa*. Santa Anan, 22:00etan.

AZAROAK 5

Hitzaldia: Jerardo Elortzarekin. Kultura etxean, 19:00etan.

ditu. Haiei egindako elkarrizketak ikusi ahal izango dira eta euren ahotik entzun ahal izango da, adibidez, eskolan ze zigor jasotzen zuten euskaraz berba egiteagatik.

Duela bi urte ekin zion Euskal Memoria Fundazioak hizkuntza zapalkuntzaren gaia lantzeari,



Testigantzak jasotzeko egindako elkarrizketetako bat. | OÑATIKO EUSKAL MEMORIA

eta hala hasi ziren Oñatiko taldeko kideak ere. Hala, euskararen kontrako jazarpenaren lekuko izan diren hainbat oñatiar elkarrizketatu zituzten. Euskal Memoria Fundazioko Euskal Herri mailako beste talde batzuetan ere gauza bera egin zuten. Horrela, hainbat testigantza jaso ziren Euskal Herri osoan, eta informazio horrekin *Euskararen kate hautsiak* liburua plazatu zuten.

Liburu hori oinarri hartuta, Fundazioak *Euskara, ospeletik eguterara* izeneko erakusketa ibiltaria prestatu zuen Aldundiaren laguntzarekin, baita izen bereko dokumentala ere. Azken hori Bernat Alberdik egin zuen.

Sarrerak salgai

Bada, dokumental hori taula gainean ikusiko da Oñatin urriaren 31n. Euskal Herri mailako estreinaldia izango da. Taula gainera igoko diren lagunekin batera izango dira Ganbara abesbatza-koak, Oñatz dantza taldekoak eta Ttakun txalaparta taldekoak, besteak beste. Sarrerak salgai daude Txokolateixan, bost eurotan.

Ikuskizunaz gain, erakusketa eta hitzaldia ere antolatu ditu Oñatiko Euskal Memoria Taldeak. Euskarak azken mendean jasandako zapalkuntza erakutsiko du erakusketak, garai askotariko lekukotasunen eta agirien bitartez. Jerardo Elortzak Oñatiko eskoletan euskarak bizitako gorabeherei buruz egingo du berba. Foru Aldundiak antolatuta, berri, mahai-ingurua egingo da MUK Oñatin duen fakultatean.

Eskerrak lagundu diguten guztiei

KOMUNITATEA GOIENA | OÑATI
OÑATIKO EUSKAL MEMORIA TALDEA

Oñatiko Euskal Memoria Taldeko kideok orain dela bi urte ekin genion euskarak gure herrian bizi izandako zapalkuntza lantzeari. Hala, hainbat oñatiar elkarrizketatu genituen: Jose Mari Kortabarria, Juli Guridi, Ana Mari Zumalde, Josefa Zumalde, Joxe Urtzelai, Gurutz Jausoro, Joakin Ezpeleta, Jose Mari Urtzelai, Bernabe Belategi, Markos Barrena, Ines Urtzelai, Pello Zabala, Fermin Altube, Eli Igarzabal, Jose Luis Guridi eta Milagros Madinazkoitia. Gure helburua izan zen Oñatiko auzo bakoitzean bizi izandakoa jasotzea. Horrela, auzo guztietako herritarrez izan ginon. Elkarrizketa luzeak izan genituen eurekin eta hemendik eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei. Guk uste dugu beharrezkoa dela euren lekukotza horiek jasotzea eta antolatu dugun egitarauan ere garrantzia eman nahi izan diegu. Erakusketan *testigantzen soka* jasoko ditugu euren hitzak, zehazki, seirenak. Izan ere, denenak ezin izan ditugu sartu, toki faltagatik. Ikuskizunean ere izango dute euren tokia, bideo formatuan. Ez dira izango ekitaldi horretan parte hartuko duten oñatiar bakarrak. Herritar askok lagundu digute: Lezuri Ormazabal, Iñigo Ugarte, Kepa Aranburu, Aitor Perosterena... Baita taldeek ere, adibidez: Ganbara Abesbatzak eta Oñatz dantza taldeak. Ikuskizuneko gidoia, berri, Bernat Alberdik idatzi du. Hauei guztiei ere eskerrak eman nahi dizkiegu.



ADITUAK IGOGAILUAK INSTALATZEN ETA ZERO KOTARA JAISTEN

ERAIKUNTZAK ETA BIRGAITZE-LANAK
PROIEKTUAK, BARNE DISEINUA,
ITE, CEE...

LOKAL ETA ETXEBIZITZEN ZAHARBERRITZEA
FATXADAK ETA ESTALKIAK

ENERGIA ERAGINKORTASUNERAKO SOLUZIOAK
GILTZA ESKURA ERAKO PROIEKTUAK
AURRETIAZKO AZTERKETAK KOSTURIK GABE



ERAIKIN
PROJECTS

www.igosl.com

943798864
696159959

ELKANO kalea, 3 20500 ARRASATE

Lehiaketa biharko azokan, moxal-okela herritartzeko

Elkarteen artean izango da; haragia gisatu eran eramango dute Seber Altubera

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasaten eta inguruetan moxal-hazkundera sustatu eta arrasatearren artean moxal-okelaren kontsumoa indartzeko kanpainaren barruan, Udala askotariko ekintzak ari da antolatzen. Biharko baserritarren azokakoa izango da hurrengoa; lehiaketa egingo dute moxal haragia oinarri hartuta. Bederatzi elkarte gastronomikok parte hartuko dute; Aretxabaletako Mendibitzu baserriko moxal ekologikoa prestatuko dute, gisatu eran: "Eskertzekoa da SUDC elkartekoen papera, beti daude prest laguntzeko. Beste herri batzuetan ez da erraza izaten halakoak antolatzea", dio Udaleko teknikari Marga Garmendiak.

Moxala, gisatu eran prestatuta
Elkarte bakoitzak 11:30erako eramango du moxal-okela gisatu eran prestatuta. 12:00etatik 13:00etara epaimahaiko kideek -baserritarrek eta sukaldean adituak direnek osatzen dute

epaimahaia- gisatu bakoitza dastatuko dute eta 13:00etan egingo da sari banaketa. Inazio Azkarraurizar alkateak banatuko ditu sariak; irabazleari plaka oroigarri bat emango diote eta gainerako parte-hartzaileek, berriz, Jakionen bertako produktuz osatutako saski bat eramango dute elkartera.

Ondoren, herritarrek dastatu ahal izango dute okela; Udalak 500 platertxo prestatuko direla kalkulatu du eta platertxo bakoitza euro eta erdian salduko da: "Prezio soziala dela esango nuke", dio Ingurumen teknikari Garaik. AEK-ko langileak arituko dira platertxoak banatzen, eta etekinak euren dako izango dira.

Hitzaldia eta dastatzea atzo

Atzo Moxal okela osasun eta dieta ikuspegiatik izeneko hitzaldia egin zuten Kulturateko klastroan: batetik, Nafarroako Unibertsitateko doktore den eta bere tesia moxal-okelaren inguruan egin duen Vicky Sarries Martinezek okela horren gaineko propietate mesedegarrien gainean egin zuen berba, ikuspegi zientifikotik; bestetik, Amaia Diaz de Monasterioren dietista oñatiarrak moxal okela dieta osasuntsu baten sartzeko hainbat argibide eman zituen.

Hitzaldiaren ostean, moxal-okelarekin egindako pintxoak dastatzeko aukera egon zen, Lanbide Heziketako sukaldaritza ikasleen eskutik.

Hamabost postu bihar

Moxal-okela izango da biharko baserritarren azokaren protagonista nagusia, baina baserritarrek ez dute hutsik egingo hileko hirugarren zapatuan. Ohi bezala, Seber Altube plazan egingo da, 09:00etatik 14:00etara.

Biharko azokan hamabost postu egongo dira, Arrasate, bailaratik zein kanpotik etorrita. Eta postu horietan, udazkenekoak "bete-bete" diren produktuak izango dira salgai: ondoak, babak,



Moxala buruntzian erreta, irailaren 20ko baserritarren azokan. | MIRARI ALTUBE

sagarrak, intxaurrek, gaztainak... Udako zein neguko produktuak erosteko aukera egongo da, luzea da zerrenda. Gainera, ohiko zozketak ez du hutsik egingo: azokan erosten dutenen artean saski bat zozketatuko dute. Amaitzeko,

Udalak aditzera eman ditu irailaren 20ko azokan moxal-okela sortak irabazi zituzten herritarrek: Ander Zubizarreta eta Kontxi Axpe dira sarrituak. Bihar banatuko dizkiete sorta horiek, 12:00 aldera. On egin!

ESANAK

"Eskertzekoa da SUDCeko papera, beti daude prest"

MARGA GARMENDIA | UDALA

Baserritar jantziak egiten ikasteko tailerra, Ekin elkartearen eskutik

Azaroaren 5etik abenduaren 17ra arte (18:00-20:00) baserritar jantziak egiten irakatsiko du Amaia Albes diseinatzaile arrasatearrak. Prezioa 25 euro da -bazkideek 22 euro-, eta izena emateko honako telefono zenbaki hauetara deitu behar da: 651 707 936 / 943-79 83 70.

Hil honetan hasiko dira Azoka Plazan igogailua jartzeko obrak

Construcciones Moyua enpresak bi hilabete izango ditu obra amaitzeko; aurrekontua 159.626 euro da. Igogailua eskaileretan jarriko dute eta 20 lagunendako lekua izango du. Obrek iraun artean, eskailerak itxita egongo dira; sarbideak izango dira barruko eskailerak eta arrapala.



Kontxi Tamayo, dermatologoa

Espainiako Dermatologia eta Benereologia Akademiako kidea

"Azaleko gorritasunak eta lesio baskularrak tratatzen ditugu"

Kontxi Tamayo doktoreak dio Ellipse-aren tratamendua rekin modu "erraz, seguru eta eraginkorrean" ezaba daitezkeela kapilarrek eta azaleko gorritasunak. Beste hainbat tratamendu ere eskaintzen ditu: besteak beste, laser-depilazioa, foto-gazteztzea, eguzkiak zein adinak eragindako orbanak garbitzea eta hanketako bariak. Tratamendu horietan guztietan doakoa da aurrekontua eskatzea.

Nolako gorritasunak tratatzen dituzue?

Gorritasunak askotariko tamaina eta formetan agertzen dira azalean eta diagnostikoak ere askotarikoak izan daitezke: kouperisia, hemangioma, errosazeoak, oporto-ardo orbanak, errubi-puntuak... Ellipse-aren argi-flashen tratamenduari esker, gorritasunak eta kapilarrek modu erraz, seguru eta eraginkorrean ezabatzen ditugu.

Nori dago zuzenduta?

Azalean lesio gorriak dituen edonorendako tratamendu egokia da. Hala ere, lesio ohikoena dira urteen poderioz aurpegian eta eskotean agertzen diren gorritasunak.



Horrez gain, errubi-puntuak, oporto-ardo orbanak eta hemangioma ere askotan tratatu behar izaten ditugu.

Zeintzuk izango dira pazienteak espero beharreko emaitzak? Gorritasun motaren arabera da. Tratamendu saio kopuruaren arabera lesioa leuntzen doa edo erabat ezaba daiteke. Gainera, argiaren sarrerak

kolagenoaren sorrera bultzatzen du aldi berean; horrek azalaren testura hobetzen du, poroaren tamaina txikitu, argitasuna handitu eta tonalitatea berdindu.

"Gorritasunak modu erraz, seguru eta eraginkorrean ezabatzen ditugu"

Zenbat irauten du, normalean, tratamendu batek?

Tratamendua iraupena tratatu beharreko gunearen eta tratatu beharreko kapilar kopuruaren arabera izaten da. Normalean, saio batek 5-20 minutu artean irauten du. Era berean, ohikoena izaten da saio bakarretik bost saiora arteko tratamendua ematea; hilabete eta erdian behin saio bat eman ohi dugu.

Zeintzuk izaten dira tratamendua aurretik zein ondoren jarraitu beharreko gomendioak?

Garrantzitsua izaten da eguzkirik ez hartzea edo solariumera ez joatea tratamendurako saio baten aurretik eta ondoren. Era berean, belzteko kremarik ez ematea gomendatzen dugu. Horrekin batera, 50eko eguzki babes duen kremak ematea gomendagarria da, tratamendua jaso aurretik zein jaso ostean. Normalean, tratamendua jaso ondoren ez dira beharrezkoak izaten zaintza bereziak, baina hotza zein eguzkitako kremak ematea aholkatzen diegu pazienteei saioa amaitu eta gutxira.

NAFARROAKO PIPERRAK
Arrasaten egosita

Eroski hipermerkatuaren parkingean gaude

609 21 00 62

arbolapeta

arrasate

beinke

DERMATOLOGIA ETA ESTETIKA KLINIKA
Kontxi Tamayo doktorea

RPS: 6/14.

Atzeko kalea 6, behea | OÑATI | Tel.: 943 71 61 82 / 620 12 48 43.

Portaloian egongo gara gaur, mosaiko erraldoia prestatzeko

KOMUNITATEA GOIENA
GURE ESKU DAGO | ARRASATE

Azken hilabeteetan atsedean hartu eta gero, Arrasateko Gure Esku Dagoko kideak kalera itzuliko gara gaur. Pasa den ikasturtean egin genuen modu berean, GEDko lagunok mahaia jarriko dugu 19:00etatik 20:30era Portaloian; eta bertan, Gure Esku Dagok datorren azaroaren 8an Donostiako Zurriolako hondartzan egin behar duen mosaiko erraldorako atxikimenduak batuko ditugu.

Izan ere, Katalunian egin behar duten kontsultaren bezperan, Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeke duen eskubidea aldarrikatu nahi

dugu. Horretarako, 5.000 pertsonak osatuko duten mosaiko erraldoia eraikiko dugu azaroaren 8an, 11:00etan. Kataluniako galdeketa sortuko duen oihartzuna aprobetxatu nahi dugu, eta hori dela-eta mosaikoak ikurrina, Eskoziako bandera, hautetsontzi bat, orri zuri bat eta Kataluniako banderaren koloreak irudikatuko ditu.

Mosaikoan parte hartzen duen herritar bakoitzak antolakuntzak emango dion aterki eta zira bana eramango ditu. Horregatik, gaur jarriko dugun mahaian bost euroko txartelak salduko zaizkie mosaikora hurbiltzeko asmoa erakusten duten herritarrei.

OHARRAK

1973AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 8an Bergarako Tartufo jatetxean bazkalduko dute; bazkalostean DJa izango dute eta 20:00 aldera itzuliko dira. 12:30ean elkartuko dira, Herriko Plazan. Izena emateko 50 euro sartu behar dira honako kontu zenbaki honetan: 3035 0001 55 00101290545 (Laboral Kutxa). Azaroaren 4a da izena emateko azken eguna.

1967AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 15ean Sara jatetxean bazkalduko dute. Izena emateko 50 euro sartu behar dira kontu zenbaki honetan: 2100 19 7201 0200134059 (La Caixa).

1958AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 8an Errioxara joango dira. Izen-ematea, urriaren 27ra arte: 3035 0001 59 0011144438 (Laboral Kutxa, 60 euro).



Erreka garbiketa, iaz, Mojategi futbol zelaiaren inguruan. | ARRASATEKO UDALA

Erreka garbitzeko iaz baino jende gehiago espero du Udalak

Aurrez izena eman barik ere har daiteke parte; bihar elkartuko dira, Laubide plazan, 09:30ean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Errekaren Astearen barruan erreka auzolanean garbitzeko eguna izango da biharkoa. Aurten lehen aldiz bailarako herri guztiek egun berean egingo dute garbiketa. Udalak espero du iaz baino jende gehiago batzea; iaz 15 bat lagun elkartu ziren eta horietatik bost Udaleko langileak ziren. Aurten,

parte-hartzaile gehiago lortzeko, deialdi berezia egin dute, elkarre eta eragileengana jota.

Izen-ematea atzo itxi zuten, baina jakinarazi dute aurrez izena eman barik ere har daitekeela parte erreka garbiketari. Aurreko urteetan Mojategi futbol zelaiaren inguruan egin izan dute garbiketa, erreka sartzeko

"erraz" dagoelako. Hala ere, aurten erabaki dute Laubide plaza inguruan jaistea erreka: "Erreka garbitzen ari garela herrian bertan ikus gaitzaten gura dugu", adierazi du Ingurumen teknikari Nerea Laspiurrek. Hala, Laubide plazan elkartuko dira 09:30ean eta han bertan hasiko dute garbiketa: "Mankomunitaterantz joango gara eta etortzen den jende kopuruak zehaztuko du noraino helduko garen", dio Laspiurrek. Erreka garbitu ostean, parte-hartzaileek Seber Altube plazan moxal-haragia doan probatzeko aukera izango dute. Ondoren, hilaren 18tik 22ra, jasotako zaborra Monterron jauregiaren pareko Kondekua zelaiari jarriko dute.

Deba ibaian asko dago egiteko

Errekaren Asteari hasiera eman zion Avis produkzioak enpresaren *Ura eta erreka Deba ibarrean* dokumentalaren estreinaldiak, astelehenean. Ekitaldian, Ingurumen zinegotzi Josu Peredak ibaiak zaintzeak duen garrantziaz egin zuen berba, besteak beste.

Peredaren arabera, Debak "oso bilakaera positiboa" izan du, eta Epeleko araztegia eraiki zenezetik nabarmen egin du hobera. Hala ere, argi utzi zuen zaintzak segitu egin behar duela.

Era berean, urriaren 22ra arte *Ura & hiria 2020* izeneko erakusketa dago zabalik Kulturategiaren klaustroan. MUko ikasleek egingo dako proiektuak erakusten dira han eta arratsalde egongo da zabalik, 17:30etik 20:30era.

Azala distiratsu eta gazte izateko programa

**Fotogaztetzea (IPL),
3 saio
+
Aurpegi hidratazioa
opari**

AMAGARA RPS: 228/10

Erdiko kalea 54 behea
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09
www.amagaraestetikazentroa.es



Ume bat pilotari ematen, iazko sanjuanetako txapelketaren barruan. | IMANOL SORIANO

Arrasate Pilota Taldea: "Umeak gonbidatu gura ditugu probatzera, konpromiso barik"

Gaur eta bihar hainbat partidu jokatu dira Uarkapen, askotariko mailetan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasate Pilota Taldea harrobia lantzen ari da, haur eta gazte-txoekin lanean. Ibai Bolinaga pilotari arrasatearra dabil, beste pilotari edo pilotari ohi batzuekin batera, lan hori egiten.

Umeekin lan egiteko jende oso aproposa dabil, Bolinagaren arabera: "Taldeko begirale guztiak pilotariak edo pilotari izandakoak dira eta badakite hasiberriei pixkana pilotan jokatzen nola erakutsi. Gainera, entrenamenduetan giro oso ona egoten da, eta, pilotan ikasteaz gain, umeek oso ondo pasatzen dute". Martitzen eta

eguenetan entrenatzen dira, 16:40tik 18:30era: "Astero bi entrenamendu egiten dituzte eta egubakoitzetan euren lagunarteko partiduak antolatzen ditugu. Hala ere, laster lagunarteko partiduak alde batera utzi eta Santamasetako txapelketarekin hasiko gara. Umeendako klubetik bi txapelketa antolatzen ditugu urtean, santamasetakoa eta sanjuanetakoa, eta partidu guztiak egubakoitzetan jokatzen dira".

Oraindik, baina, badago parte hartzeko aukera: "Pilotan interesa duten ume guztiak kirol hau probatzera animatzen ditugu.

Frontoira etorri eta entrenamenduetan parte har dezakete inongo konpromiso barik. Probatu ostean, erabaki dezakete elkartean sartu edo ez". Izena emateko, Uarkapera joan eta begiraleekin harremanetan jarri behar da.

Pilotak etenik ez Uarkapen

Hainbat partidu eta askotariko mailatekoak jokatu dira gaur eta bihar. Gaurko lehiak 19:00etan hasiko dira eta 22:00 aldera arte ez da etenik izango. Bihar, 16:00etatik aurrera, alebin eta infantil mailetako errendimendu partiduak jokatu dira.

Herrixa Dantzan-en ikasturtea gaur hasiko da

Uarkapeko tabernan egingo dira dantzaldi irekiak zein ikastaroak; Patxi Montero izango da gidaria

J.B. | ARRASATE

Portaloï elkartearen eskutik, gaur hasiko du ikasturtea Herrixa Dantzan ekimenak, eta ikasturte berria nobedadeekin dator. Batetik, dantzaldi irekietarako –ez ikastaroetarako– eguna eta ordutegia aldatu egin dute: orain, hileko hirugarren egubakoitzetan elkartuko dira, 19:30etik 21:00etara. Bestetik, dantzaldi irekien saio horiek Uarkapeko tabernan egingo dituzte Garaia gunean egin beharrean: "Maiztean eta ekainean probatu genuen leku berria, eta gustura gaude. Desabantailak desabantaila, gertuago dago erdigunetik; parte-hartzaileek pozik daudela esan zidaten", adierazi du ekimeneko irakasle Patxi Monterok. Bestalde, 70 lagunek eman dute izena plazako dantza tradizionalen ikastaroetan. Joan den astean abiatu ziren ikasta-



Herrixa Dantzan ekimena. | I.S.

roak eta maizta bitartean, astero izango dira klaseak, astelehen edo eguaztenetan (taldearen arabera). Helduendako ikastaroak dira, eta helburuak, dantzan ikastea, Euskal Herriko plazetan erabili ohi diren dantzak ikastea, eta dantza tradizionalaren ezagutza aberastea. Portaloï elkartea da ikastaro hauen antolatzailea, eta Patxi Montero dute irakasle.

'Lasa eta Zabala' filmerako sarrerak salgai daude Amaiaiko leihatilan, Interneten eta kutxazainetan

Lasa eta Zabala pelikula Amaia antzokira helduko da aste bukarrera honetan; gaur hasi eta astelehenera bitartean bost emanaldi eskainiko dituzte. Udaleko Kultura Sailak "erantzun ona" espero du publikoaren aldetik, eta, horregatik, emanaldi guztietarako sarrerak salgai jarri dituzte hiru kanal hauen bidez: leihatilan, Udaleko eta Kutxabanken webguneetan eta kutxazainetan.

Aggressive Combat, Knock Out eta Madskins taldeen oi! doinuak protagonista bihar gaztetxean (22:00)

Aggressive Combat taldeak hamar urte bete dituela-eta kontzertu berezia eskainiko du bihar gaztetxean. Oi! doinuak izango dira nagusi: "Arrasaten, belaunaldi berrien artean, oi! musika gutxi entzuten da", adierazi du taldeko abeslari Mara-k. Talde arrasatearrarekin batera Madrilgo Knock Out-ek eta Algortako Madskins-ek osatzen dute kartela. Jaialdia 22:00etan hasiko da eta sarrera bost euro ordaindu beharko da.

Zaldibarko areto futbol txapelketan parte hartzeko izena eman behar da urriaren 27an Kulturaten

Azaroaren lehen hasiko da Zaldibarko areto futbol txapelketa eta izena eman behar da urriaren 27an Kulturateko areto nagusian, 17:30etik 20:00etara. Talde bakoitzak 275 euro ordaindu beharko ditu –fidantza 75 euro da– eta argibide gehiagorako honako helbide hau eman dute: zaldibarkofutboltxapelketa@gmail.com. Era berean, adierazi dute antolakuntzan laguntza behar dutela.

Ford Mugarrik Urdaneta hartuko du

Talde "gaztea eta mugikortasun handikoa" dute; bihar, Iturripen, 18:00etan

J.B. | ARRASATE

Ford Mugarrik Urdaneta taldea hartuko du bihar Iturripen (18:00). Hasi baten, ez da ligako aurkari zailena izango, baina, Pablo Gartzia entrenatzailearen arabera, ez da partidu "samurra" izango: "Taldea gaztea dute, esperientzia handirik gabekoa. Erritmoa

hartzen dihardute oraindik eta jokalariek gehienak finak zein mugikortasun handikoak dira. Gu ohituago gaude pisu eta indar handiko jokalariekin lehiatzera".

Ford Mugarri "hobera" doa

Era berean, talde arrasatearra hobetzen doala uste du entrena-

zaile oñatiarrak: "Hobera goaz, jokatzeko gure sistema fintzen ari gara. Azken partiduan egindako defentsako lana ikusi besterik ez dago hobekuntza oharrezko. Hori bai, oraindik ez gaude %100era eta oraindik badago zer hobetu. Denboraldia luzea izango da".

C aroztegia
arrascal

SUKALDEAK
BAINUAK
ARMAIRUAK

**RENOVE
PLANA**
ETXETRESNA
ELEKTRIKOETAN

ZEURE NEURRIRA ZEURE GUSTURA

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • ARRASATE • Tel.: 943 79 01 82 • scarrasc_1@infonegocio.com

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



Igor Larrañaga pasodoblearen konpositorea Iñigo Almortza herriko zezenzalearekin. | IMANOL GALLEGU

Zezenzaleen omenez, herrikidearen pasadoblea

Igor Larrañaga Guridiren pieza bandaren domekako kontzertuan estreinatuko da

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Zaletasun izatetik ogibide izatera pasa da musika Igor Larrañagaren bizitzan. Duela bi urte hasi zen musikari bergararra pentagrama huts bati doinua jartzen, eta apurka-apurka sortu du pasodoble hori. "Askok gustatzen zaidan doinu bat da eta konposatu dudan lehen pieza izateko oso pozik nago", dio Larrañagak.

Lauzpabost entseguren ostean, domekan 12:30ean Udal Pilotalekuan estreinatuko da. "Banda eta zuzendaria oso eskuzabalak izan dira, eta pieza nik zuzenduko dut", argitu du Larrañagak.

Zezenzaleei omenaldia

Bere hasierako asmoen artean ez zegoen arren, partiturak forma hartzen zuen heinean, zezenzaleei eskaintzeko aukera bururatu zitzaion: "Aproposa izango zelakoan, Iñigo Almortzarekin hitz egin nuen eta berehala onartu zuen". Almortza bera oso pozik dago, eta domeka eguerdiko estreinaldiaren ostean, hark gidatzen dituen saioetan jarriko duela agindu du. "Doinua oso ederra da, eta CD batean eroango dugu", dio Almortzak.

Hortaz, aurrerantzean, Bergarak zezenzaleak izateaz gain,

haiek harro egoteko moduko partitura propioa ere izango dute.

Pasodoblea baino gehiago

Bandaren emanaldia, baina, ez da *Bergarako Zezenzaleak* pasodobler mugatuko. Ohiko egutegiaren barruan dagoen kontzertu horretan, *Songs from the catkills* obra estreinatuko dute.

Horren ostean, zarzuelaren txanda iritsiko da, eta, Inauterietako kontzertuan izandako arrakastaren ostean, *James Bond* filmaren soinu-banda ere berreskuratuko dute. Amaitzeko, pasodoblea errepikatuko dute.

Aitor Arantzabal | Jardun euskara elkarteko lehendakaria

"Etorkizuneko erronkak gogoeta saioen bidez identifikatu nahi ditugu"

25. urteurrenaren bueltan, Jardunen bilakaerari eta etorkizunari buruz mintzatu da Arantzabal

I.G. | BERGARA

Osasuntsu iritsiko da Jardun 25. urteurrenera?

Bai; Jardun euskara elkarte osasuntsu dagoela uste dugu, epe luzean lanean segitzeko gogoz eta ilusioz. Eta, elkarte osasuntsu ikusteaz gainera, euskara osasuntsu ikustea da gure ametsa.

Zertan nabaritzen duzue urte hauetako lana?

Duela 25 urte esparru erdaldunak ziren batzuk euskalduntzeko gure ekarpena egin dugula esan genezake. Esaterako, gaur egun herriko kultura arloko eta umeen aisialdirako eskaintza gehiena euskara hutsean egiten da. Bestalde, herritarrekin egin den sentiberatze lanari esker, egitasmo askotan emaitza onak lortzen ari garela uste dugu (Berriketari, Auzoko, Idazlaguna...).

Beti nabaritu duzue herritarren babes?

Elkarte honek sorreratik jaso duen herritarren babesari esker egin du aurrera. Dena den, babes horretaz gain, herritarren inplikazioa eta parte-hartzea beharrezkoak direla uste dugu, eta horren bila gabiltza orain.

Zein erroka dituzue etorkizunari begira?

Hain zuzen ere, etorkizuneko erronkak zeintzuk izango diren



Aitor Arantzabal. | GOIENA

gogoeta saio horietan erabaki nahiko genuke, herritar guztion artean. Betiere, euskararen gaur egungo beharrei hobeto erantzuteko helburuarekin.

Nola eta zein asmorekin sortu da gogoeta prozesu hau?

Euskararen beharrak azken urteetan aldatzen joan dira. Behar horiek identifikatzeko garrantzitsua da ondorengo norabidea zein izango den erabakitzea. Hau da, elkartearen printzipioak, antolakuntza eta eragiteko esparruak definitu eta etorkizuneko elkartearen oinarriak ezarri nahi ditugu.

Saio irekiak izango dira, ezta?

Noski, herritar guztiak izango dira ongietorriak saio hauetara. Ahalik eta jende gehien bilteza nahiko genuke.

Hilabete animatua izan dute Ipintza institutuan



DBHko lehen mailako ikasleek gosari orekatu, ekologiko eta jasangarri baten ezaugarri eta garrantzia era teorikan geletan landu eta gero, argazkian ikusten den moduan, eskolako jantokian gosari orekatua dastatzeko aukera izan zuten. Horrez gain, elkarbizitza indartu, euskararen erabilpena sustatu eta inguratzen gaituen historia ezagutzeko ikasle talde batek hiru eguneko egonaldia egin zuen Sastarraingo aterpetxean.

Deba ibaia eta bere ekosistema balioan jarri eta zaintzeko astea

Aste honetan, udaletzeko osoko bilkuren aretoan, bideoz eta argazkiz osatutako errekarren gaineko erakusketa bat egon da. Eta, horrez gainera, 330 lagunek baino gehiagok herriko erreka zati bat garbituko dute bihar. Batutako zaborra San Martin plazan pilotuko dute, herritarren bistara gera dadin.

Hegazti bidaiarien migrazioak ikusteko aukera domekan

Hegaztiak behatu aurretik, migrazio mugimenduei buruz hitz egingo du Kiko Alvarez biologoak. Giroak laguntzen badu, Pol-Pol Mendi Taldeak antolatutako ekintza Gorlako Iturrigorriko kantinatik irten-go da, eta parte-hartzaileak Santutxutik Agerreburrantz abiatuko dira 09:30ean. Antolatzaileek azaldu dute ekintzak lau ordu iraungo duela.

Udaleko ordezkaria eta *Kirola kalera* ekimeneko arduradunak. | ANABEL DOMINGUEZ

Urriaren 26an, berriz ere 'Kirola kalera'

Agorrosin kirolguneko eskaintza handitu egin dute

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Udalak herritar aktiboak nahi ditu, eta, horren harira, datorren domekan, hilak 26, *Kirola kalera* eguna ospatuko du. Aurtengo hirugarren kirol festa berrikuntza beteta dator, eta familiek protagonismo berezia izango dute. "Gurasoak eredu izatea garrantzitsua dela uste dugu", esan du Lauri Askargortak, Kirol zinegotziak.

Familiak aktibatzeke eguna

Hain zuzen ere, 11:00etatik 13:30era egingo diren ekintzak familiei zuzenduta egongo dira. Ekintza horietan, baina, Udala ez da bakarrik egongo, Lokatza, Hanka

Labanka eta Atxintxika taldeak bidelagun izango ditu-eta.

Eguneko berrikuntza nagusia triatloia izango da. Proba 13:00etan hasiko da, eta parte hartzeko izena ematea beharrezkoa da. Horretarako, eskuorriak banatuko dituzte Bergarako, Antzuolako eta Elgetako ikastetxeetan; bailarako gainontzeko herritarrek Agorrosinera joan beharko dute. Bi eta lau kideko taldeak onartuko dituzte, betiere kideetako batek 18 urte baino gehiago badiu eta beste batek 12 baino gutxiago. Jolas modura eratu da goien triatloian parte hartzeko kaskoa eroatea ezinbestekoa izango da. Parte-hartzaileek triatloia

oinez, bizikletan eta patinete edo patinetan egin beharko dute; guztira, 1,5 kilometro egin beharko dituzte.

Hil amaieran hitzaldia

Kirol kontuak alde batera utzi gabe, urriaren 30ean *Familia, futbola eta formazioa* hitzaldia eskainiko dute Irizar jauregian, 19:00etan. Gurasoei zuzenduta dagoen hitzaldian, adituek familiaren eta kirolaren arteko harremana aztertuko dute.

Horretarako, Luki Iriarte Realaren formazio taldeen arduraduna eta Fran Garagartza Eibaroko idazkari teknikoa gonbidatu dituzte. Biek kirol profesionalean duten esperientziak hitz egiteaz gain, euren ibilbidea ere aztertuko dute. Hitzaldia gurasoei bideratua dagoen arren, entrenatzaile eta zuzendarientzako ere aukera ona izango da, futbolearen ez ezik beste kirol batzuetan ere agertzen dira-eta arazoak.

Kirol ekintza berriak

Erabiltzaileen eskaerei erantzunez, haurdunaldi osteko gimnasia ikastaroa egingo da. Bertan, saiboleko giharrak eta zoru pelbikoa tonifikatzeaz gain, gimnasia hipopresiboa ere landuko da. Bigarren berrikuntza kirolarien erresistentzia jorratzeko entrenamendu funtzionala izango da. Saio horietan, enborreko giharrak jorraztearekin batera, behe-ataleko giharrak ere zaindu eta indartuko dituzte.

Bi kirol jarduerak berri horiez gain, zumba, yoga eta crossfit saioak ere programatu dituzte, jendeari ordutegi zabalagoa eskaini ahal izateko.

Informazio gehiago jaso, ordutegi zehatzak jakin edo izen eman nahi dutenek Agorrosin Ekintza Gunera joan beharko dute urriaren 28a baino lehen.

Minari buruzko bost eguneko tailerra pertsona nagusiendako

I.G. | BERGARA

Minarekin bizi diren eta mina kendu nahi dutenentzako, urriaren 20an hasi eta abenduaren 15a bitartean ikastaroa egongo da Bergarako gizarte etxean.

Tailerra urriaren 20an eta 27an, azaroaren 3an eta 10ean eta abenduaren 15ean emango da, 16:30etik 18:30era. Ana Sanchez erizainak gidatutako ikastaroa gaztelaniaz izango den arren, antolatzaileek esan dutenez galderak euskaraz egiteko aukera ere egongo da.

Nagusiei zuzenduta dagoen ikastaro horretan parte hartzeko, interesa dutenak San Joxepe elkartera gertura daitezke, astelehenera eguenera, 11:00ak eta 12:30ak bitartean, 943-76 21 40 telefono zenbakira dei dezakete edo martxe48@telefonica.net helbidean egin dezakete eskaera.

Kirola egin nahi duzuenok Ariznoa gimnasia taldeko ateak zabalik topatuko dituzue

KOMUNITATEA GOIENA | ARIZNOA GIMNASIA ERITMIKOA | BERGARA

Zure seme edo alabari dantza egitea gustatzen zaio? Musika entzun bezain laster, dantzan jartzen den gazte horietako bat duzu etxean? Ba, Ariznoa gimnasia taldea da bere tokia. Ikasturtea irailean hasi genuen arren, kirola egiteko aukera beti da ona, eta kide berriak pozik hartuko ditugu.

Malgutasuna eta diziplina lantzeaz gainera, gure entrenatzailearen bidez gaztetxoak kirol

berri bat ezagutuko du, eta ziur gustuko izango duela.

Taldeko ekintzak

Kirolaren bidez bere osasuna hobetzeko aukera izateaz gain, lagun berriak egingo ditu, eta giro sanoan talde ekintzak egiteko aukera izango du.

Zure seme edo alabak gimnasia eritmikoa probatu nahi badu, gogoan izan hasierako saioak doan direla. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko: 690 39 44 92.



Gimnasia eritmikoko neska gazteak. | ARIZNOA GIMNASIA TALDEA

Etxekoek borobilduko dute organo erromantikoaren zikloa Santa Marinan

I.G. | BERGARA

Bergarako Orfeoiaren eta Aitor Olea organo-jotzailearen emandak itxiko du organo erromantikoaren zikloa herrian.

Egitaraua klasikoa izango da, eta Santa Marina parrokiara joaten direnek Mozart eta Haendel konpositoreen lanak entzungo dituzte. Orfeoiak eta

Oleak eskarmentu handia dute, eta emanaldi borobila egingo dute bihar, zapatua 20:00etan.

Herrikidearen obrak

Bukatzeke, Xabier Maria de Munibe Peñafloredako kondeak konposatu zituen *Irten ezazu*, *Kurutz bidea* eta *Ave Maria* obrak eskainiko dituzte.

OHARRAK

1976AN JAIOTAKOEN BAZKARIA TXARRANTXAN

Azaroaren 1ean egingo dute ospakizuna. 14:30ean da bazkaria, eta, aurretik, 12:00etan Pol Pol tabernan batuko dira. Izen-ematea urriaren 27a baino lehen egin behar da, eta, horretarako, 45 euro ordaindu beharko dira

Kutxabaneko 2095 5087 60 9114273321 zenbakian.

67KO KINTOEN FESTA

Ospakizunera joateko Elkar fotokopia-dendan 20 euro ordaindu behar dira, urriaren 29a baino lehen. Infernokua tabernan egin dute hitzordua.



IMANOL GALLEGO

Klima, zaindu beharreko ondarea

Mari Karmen Gallastegi ekonomia katedradun bergararrak berbaldua egin zuen eguaztenezan Migel Altuna ikastetxean, San Joxepe erretiratuen elkartearen kultura hamabostaldiaren barruan. Aretoa bete zutenek Gallastegik klimaren inguruan esandakoak arreta handiz entzun zituzten. San Joxepekoen kultura hamabostaldia bihar amaituko da, kideek egingo duten bazkariarekin.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Gaztetxoendako lehen txef lehiaketa, topalekuan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Herriko gaztetxoendako lehen txef lehiaketa egingo dute gaztelekuko topalekuan urriaren 31n. Bertakotze programako hezitzaileekin batera antolatu duten txapelketa izango da, eta gazte etorkinen integrazioari begira egindako ekintza izango da.

Bost euro erosketarako

Topalekuan egingo da lehen txef txapelketa hau, beraz, hamabi eta hamazazpi urte arteko gaztetxoek parte har dezakete. Lau lagunek osatutako sukaldari taldeak izango dira lehiakideak prestatu beharreko hiru menuen aukerak dira: arroza, pasta eta patata tortilla. Hiru horietako bat prestatu beharko dute. Antolatzaileek esango diete zein, justu txapelketa hasi aurretik. Talde bakoitzari bost euro emango diote platera prestatzeko behar dituzten osagaiak erosteko.

Sukaldari gazteen irudimena eta esku ona izango ditu kontuan epaimahaia. Izena txapelketa hasi aurretik eman behar da.

Denetariko ekintzak Txandaren hamabostaldian

O.E. | OÑATI

Ekintzaz beteriko hamabostaldia antolatu du Txandaren herriarrendako. Urriaren 31ra bitartean, Txandaren hainbat dendatan zuzeneko azalpenak emango dizkiete herriarrei komertzio horiek eskaintzen dituzten zerbitzuei buruz. Tailerrak antolatu ditu herriarrendako.

Adibidez, gaur, egubakoitza, frutaren kontsumoa sustatzeko ekintzak egingo ditu Amaia Diaz de Monasterioren nutrizionistak Sustrai fruta-dendan, berriz, etxe jakin bateko labanak nola erabili behar diren jakiteko erakustaldia egingo dute gaur eta bihar. Bihar goizean, batukada ibiliko da herriko kaleetan zehar eta Maibi dendan *Block print* ikastaroa emango du Lexuri Ormazabalek.

Bestalde, hilaren 31ra arte Txandako edozein dendatan eskura daitezkeen kartoia sei zigilurekin betez gero (sei erosketa sei dendatan), 50 eta 100 euroko erosketa bonuak lor daitezke.



Oñati errekarri buruzko informazio paneletako bat, Unibertsitate etorbide parean. | O.E.

Erreka bioaniztasuna berreskuratzen ari da

Domekara arte egongo dira Oñati erreka bazterretako informazio panelak

T.M./O.E. | OÑATI

Oraindik zikinkeria guztiz desagertu ez den arren, azken urteotan errekar garbitu eta gehiago zaindu izanak ekarri ditu bere ondorioak. "Herri barruan, azken hamarkadetan galdu den bio-

niztasuna berreskuratzen ari da. Etorri diren hegazti, ugaztun eta narrastiak ondo kolonizatu dira, eta berriz ikusten ditugu hemengo erreketan; esaterako, Martin arrantzalea edo ur-zozoa", dio Natur Eskolako Imanol Biainek.

30 panel

San Martingo zubitik Otadui zuhaitzira bitarteko erreka bazterretan jarritako hainbat panelen bitartez erakutsi dute hori, *Oñatiko errekar bizirik* izeneko erakusketa osatzen duten panelen

bitartez, hain zuzen ere. 30 inguru jarri dituzte eta helburua da oñatiarrei errekarren bioaniztasuna erakustea, zer dagoen jakinda hobeto zaintzeko.

Bi eratako informazio panelak daude: batzuek errekan bizi diren animalien eta landareen berri ematen dute, gehienak gaur egun ere aurki daitezkeenak. "Batzuk landarezarekin lotuta daude, zuhaitzak, belar-karak, zuhaixkak... Beste batzuek intsektuak, zomorroak eta horiek zein animaliarendako elikagai diren jasotzen dute. Hala, arrainak, ugaztunak eta hegaztiak ere agertzen dira paneletan", dio Biainek.

Beste panel batzuetan, errekan aurki daitezkeen landare eta animalia inbaditzaileak zeintzuk diren azaltzen da; adibidez, seinaledun karramarroa. "Amerikarra da berez eta okela saltzeko ekarri zuten hona. Ugaltzen joan da eta duen arazoa da berrari kalte egiten ez dion onddo baten eramailea dela. Gaitz horrek, baina, bertako karramarroak hiltzen ditu, aurre egiteko defentsarik ez dutelako", azaldu du Natur Eskolako langileak.

Erreka garbiketa bihar

Ibaia Lagun izeneko egitasmoaren barruan antolatu dute erakusketa hori Natur Eskolakoe, eta domekan irteera egingo dute Berotegi eta Arranoaitzera. Bihar, bestalde, erreka garbitzeko deialdia egin dute. 09:00etan elkartuko dira Foruen plazan.

Erorketak prebenitzeko tailerra antolatu dute, nagusiendako

O.E. | OÑATI

Erorketak saihesteko tailerra antolatu dute elkarrekin Oñatiko Udalak, herriko osasun zentroak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoak. 64 urtetik gorako herritarrendako da, eta helburua da erorketa kopurua murriztea.

Izen-ematea, anbulatorioan

Tailerra urriaren 28an eta 30ean egingo da Santa Ana aretoan, 17:00etatik 18:30era, eta parte-hartzaileak izango dira: Oskar Carrascal, Kirol teknikaria; Itxaro Leibar, Gizarte Zerbitzuetako teknikaria; Juan Jose Sagarzazu,

Oñatiko osasun zentroko medikua; Angelika Ugarte eta Kizkitza Alustitza, Oñatiko osasun zentroko erizainak; Joselu Gomez, osasun sustapeneko teknikaria; eta Aitziber Garmendia, osasun publikoko teknikaria.

Bi saiotan banatuta egongo da tailerra: urriaren 28an alde teorikoa erakutsiko dute eta urriaren 30ean, berriz, tailer praktikoa izango dute. Izen emateko epea zabalik dago eta interesa duenak anbulatorioan eman behar du izena. Telefono zenbakia da: 943-03 54 30. Tailerra euskaraz edo gaztelerez egitea nahia gongo duten galdetuko diete.



AMAIA LIZARRALDE

Oparia Martinezek, golagatik

Txantxiku Txuriurdiñak lagunarteak lehengo ohiturekin hasi du futboleko 2014-2015 liga. Hala, Iñigo Martinezek jaso du, opari, denboraldi berriko lehen Oñatiko produktuen sorta. Real Madrilen aurka gola sartzeagatik jaso ditu Azkarretako gazta, Murgialdaiko txakolina eta Fernando Zelaia emandako xanpain botila.

Gaztetxeko tabernaren irekiera jaia egingo dute zapatu iluntzean

Ikasturte berriko gaztetxeko barraren irekiera inaugurazioa egingo dute zapatu iluntzean. 19:00etan izango da, eta, jatekoaz eta edatekoaz gain, musika ere egongo da. Eta, hala, irekiera jaia egin ostean, egubakoitz eta zapatu guztietan egongo da gaztetxeko barra zabalik herritarrendako. Orduetgia izango da 18:00etatik 00:00etara.

Ehiza-postuen zozketa Oñati tabernan egiten dute, iluntzean

Aizkorri-Aratz lerroan dauden ehiza postuen zozketak Oñati tabernan egiten dituzte. Astelehenetik egubakoitzera dira zozketak, 20:00etan. Izen-ematea ordu erdi lehenago zabaltzen dute. Azken zozketa azaroaren 7an izango da. Ehiztari bakoitzak federaziotik bidalitako txartel bakarria aurkeztu ahal izango du.

Argia kenduko dute eguazten gauean hainbat kaletan

Datorren martitzen gauean, urriaren 22tik 23rako gauean, argia kenduko dute, Ramon Irizar kaleko transformazio zentroa berritu behar dutelako. Argia 00:15etik 07:00etara kenduko dute kale hauetan: Apaolaza, Arantzazuko Ama, Atzeko kalea, Kale Barria, Aozaratza, Ramon Irizar, Ultzegei eta Zubibarri.

Sarrera gutxi gelditzen dira trikiti jaialdirako

Goi mailako trikitilariak etorriko dira urriaren 25ean Santa Anara; Kepa Junkera, Kristina Solano eta Gozategi taldea tartean. Sarrerak 10 eurotan daude salgai Arrano eta Urbia tabernetan, baina gutxi gelditzen dira. Gaztelekuan egingo den afarirako sarrerak, baina, oraindik badaude.

Eskoriatzarrek ere garbituko dute erreka bihar, auzolanean

Plazan elkartuko dira, 10:00etan, eta handik garbitze-tokira joko dute

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Uraren eta Errekaren Astearekin bat egin du Eskoriatzako Udalak ere, eta hainbat ekitaldi antolatu ditu. Martitzenean, esaterako, bisita gidatua egin zuen erreka-za zortzi bat laguneko talde txoak Ura agentziako plangintza hidrológikoko teknikari Victor Peñasek gidatuta. Bisita baino lehen dokumental bat ikusi zuten, *Ura eta erreka Deba ibarrean*, eta ondoren, hainbat azalpen eman zizkien hark; besteak beste, erreka ekosistema bizia dela esan zuten eta uraren kalitatea hobea izan arren inguruko basoak oraindik egoera eskasean daudela.

Dokumental labor hori gaur ere emango dute Ibarraundi museoan, 18:00etan. Eta museoan bertan erreka eta uraren gaineko argazki zaharren erakusketa ere badago; gaur itxiko dute, 19:00etan.



Victor Peñas aditua azalpenak ematen martitzenean Ibarraundin. | M.A.

Oinetako egokiekin

Bihar, oster, Debagoieneko hainbat herritan legez, Deba ibaiaren zati bat garbituko dute eskoriatzarrek ere auzolanean. 10:00etan elkartuko dira, plazan, lanerako gogoz dauden guztiak, eta handik

joko dute garbitze-lekura; ordu pare batean jardungo dute horretan. Antolatzaileek gomendatu dute oinetako egokiak eramateko errekan ibiltzeko (katiuskak edo oinetako zaharrak), baita eskularruak ere.

Ezkurtxo Leintz Gatzagara joango da bihar umeak lagun hartuta

M.A. | ESKORIATZA

Aurten, herriko auzoak bisitatu beharrean beste herri batera joango da Ezkurtxo neska-mutikoekin eta gurasoekin batera; Leintz Gatzagara, hain zuzen. Autobusa hartuko dute horretarako: 15:00etan, Akeitako geltokian. Autobus horretan txikiendako lekua egon dadin, nagusienek Gasteizera doana hartzeko eskatu dute antolatzaileek (Akeit, 15:10ean).

Arizmendi Ikastolak udazkenean antolatu ohi duen irteera da, eta Eskoriatzako Udalak eta Leintz Gatzagakoak lagundu diote oraingoan.

Jakionera eta Gatz Museora

"Gure helburuak dira irakurketa eta idazketa lantzea ipuin kontaketen bitartez; herriko auzoak eta inguruak ezagutzea, oraingoan beste herri bat; eta antzinako jolasak ezagutzea eman eta berreskuratzea", diote Arizmendiko arduradunek. Hala, taldean banatuko dituzte neska-mutikoak adinaren arabera, eta gero ibilalditxo bat egin. Hona arratsalderako gertatutako egitaraua: Jakion eta Gatz Museoa bisitatu; goitibeheran ibili; tiragomarekin jolastu; txapak egin; eta kultur etxean, Erdi Aroan gertatutako historia kontuak entzun.



Ezkurtxo, umeekin. | GOIENA

Bukatzeke, txokolate beroa hartuko dute guztiak, eta, 19:00 aldera, berriro autobusa hartu eta Eskoriatzara itzuliko da Ezkurtxo lagunekin batera.

EAJko zinegotziak herritarren iradokizunak entzungo ditu

Puri Regidor eguaztenetan egongo da udaletxean

M.A. | ESKORIATZA

EAJko zinegotzi Puri Regidorrek herritarren iradokizunak, proposamenak eta kezak jakin gura ditu, eta, horretarako, eguazten arratsaldeetan udaletzeko zinegotzian bilera gelan egongo dela iragarri du, 18:00etatik 19:30era bitartean.

Hitzordua egiteko udaletxera dei dezakete herritarrek, eta beste ordutegi bat eskatzeko aukera ere badagoela jakinarazi du; merkataridako, esaterako. Hona zenbakia: 943-71 44 07. Bestela, helbide honetara mezu bat bidal daiteke: eaj-pnu@eskoriatza.net.

Harreman zuzena

Ekainean izendatu zuten Regidor zinegotzi, Aitor Urrutiaren orde, eta orduan jakinarazi zuen eskoriatzarrekin "harreman zuzena" izateko asmoa. Kalean jendeak egiten dizkiola eskaerak eta proposamenak esan du, baina modu "zabalagoan" eta leku "egokiagoan" hartzeko aukera eskaini gura die orain. EAJko ordezkariak haxe gaineratu dute: "Regidorrek herritarrekiko harreman zuzena sustatu nahi du bere zinegotzi karguari zuzeneko esperientzia eta proposamenak gehitzeko".

Zaintzaileendako laguntza taldea osatzeko deia

M.A. | ESKORIATZA

Mendekotasunen bat duten herritarren zaintzaileendako laguntza taldea osatu gura dute Eskoriatzan, eta izena emateko epea gaur bukatuko da. Parte hartu gura duenak Gizarte Zerbitzuetara jo dezala (943-71 31 36); Aretxabale-takoek ere aukera daukatela izena emateko jakinarazi dute.

Taldea, gero, hileko laugarren ostegunetan elkartuko da Ibarraundi museoan (ordutegia zehazteko). Sendian programaren barruan dago ekimen hori eta Aldundiak finantzatzen du.



Maite eta Mari Carmen berbetan bideoaren une batean. | BERBALAGUNAK

Eskoriatzako Berbalagunetan izena eman dezakezue: animatu!

KOMUNITATEA GOIENA | BERBALAGUNAK | ESKORIATZA

Eskoriatzako Berbalagunetan izen ematea zabalik dago. Herritarrek animatu eta egitasmoaren berri izan dezaten, bideo txiki bat egin dugu (Youtubean topatuko duzue eta Goiena.eus-en ere bai). Bertan, aurreko urteetan Berbalagun izan direnen testigantzak jaso ditugu, hainbat herritarren testigantzak.

Animatu eta partu hartu Berbalagunetan! Ederto ibiliko gara-eta!

Zer dira Berbalagunak?

Egunerokotasunean euskaraz mintzatzeko aukerarik ez dutenei edo ohituraz gaztelerazko harremanak egin dituztenei euskarazko harreman berriak sortzeko aukera ematen da Berbalagunetan.

Areto futboleko Ohorezko Ligako gazteek eta Euskal Ligakoek lehen partiduak irabazi gura dituzte etxean

M.A. | ESKORIATZA

Bihar, zapatua, etxean dituzte partiduak areto futboleko bi taldek: Ohorezko Ligako gazteek 18:00etan jokatu dute eta Euskal Ligakoek, 19:45ean. Hirugarren jardunaldia jokatu dute biek, eta ez bata ez beste oraindik ez dute etxean irabazi.

Ohorezko Ligako gazteak puntu barik daude oraindik, jokaturako bi partiduak galdu egin dituztelako; joan den astean, esaterako, 6-1 Xota FSren aurka. Bihar, Cerverano taldearen aurkako norgehiagoka dute,

eta lehen puntuak eskuratzeko aukera bikaina zaleen berotasuna lagun.

Euskal Ligako taldeak, oster, joan den astean irabazi egin zuten Atxurre Bakioren aurka (2-4), eta orain, etxean ere irabazten badakiela erakutsi gura du. Bihar, zapatua, Berrizko Presion Break taldea izango du aurrez aurre.

Saskibaloiko kadeteak

Saskibaloiko kadeteek (errendimendua) ere partidua dute bihar, Ordiziaren aurka. 16:30ean da, kiroldegian.

Buruhandi tailerra antolatu dute 6 eta 12 urte arteko gaztetxoendako eta izen-ematea zabalik dago

Buruhandiak egiteko ikastaroa antolatu du Udalak neska-mutikoendako, 6 eta 12 urte artekoendako, hain zuzen, baina 6 eta 8 urte bitartekoek gurasoekin joan beharko dute. Lau egunetan elkartuko dira, 17:30etik 19:30era bitartean; hona egunak: urriak 26 (domeka); azaroak 2 (domeka); azaroak 9 (domeka); eta azaroak 15 (zapatua).

Izena emateko kultur etxera jo behar dute interesatuek (943-71 46 88); azken eguna eguna urriaren 23a da. Prezioa, 12 euro.

Egurraren brikolaje ikastarorako eta ukenduak egiteko saiorako izen-emateak bukatzeaz daude

Zuk zeuk egin izenarekin ikastaro bi egingo dituzte datozen egunetan. Egurraren brikolajea izango da martitzen eta eguaztenean (18:30-20:30) Jon Pagaldaik gidatuta (ele bitan) eta izen-emate epea gaur bukatuko da. Prezioa da 10 euro.

Ukenduak egiten, oster, urriaren 25ean (10:00-14:00) erakutsiko du Sara Letamendiak (gazteleraz), eta izena emateko epea astelehenean bukatuko da. Prezioa 10 euro da. Bi kasuetan, kultur etxera deitu behar da: 943-71 46 88.

Ezkurtxotan jasoko dute paga neska-mutikoeek urtariletik aurrera

- ▶ 'Pagia Ezkurtxotan' proiektua aurkeztu du Udalak hainbat eragilerekin
- ▶ Aretxabaletako moneta soziala da eta gaztetxoek erabiliko dute hasieran
- ▶ Plastikozko txanponak dira eta Lanbide Eskolako ikasleek egin dituzte



Udal ordezkariak, Lanbide Eskolakoak, Aretxartekoa eta ikastetxeetako irakasleak ezkurtxotan.

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aretxabaletak ere bere moneta izango du laster: ezkurtxoak. *Pagia Ezkurtxotan* herri proiektua aurkeztu du Udalak, hainbat eragilerekin elkarlanean, eta asmoa da urtarrilean ikastetxeetako neska-mutikoeek ezkurtxoak erabiltzen hastea. Oraingoan, haiek bakarrik erabiliko dituzte. Ezkurtxo txanponak, gainera, herrian bertan egin dituzte, Lanbide Eskolan, hain zuzen, hiru dimentsioko inprimagailuak erabilita.

Herri proiektua elkarlanean

Ezkurtxoak ez dira helduendako izango; oraindik, behintzat, ez. Proiektu "xumea", Aretxabaletari "egokitutakoa" jarri gura izan dute abian, eta behetik hasi lanean, neska-mutikoeekin, hain zuzen ere. "Txanpon hau ez da makroekonomia eraldatzeko, ezta mikroekonomia ere. Helburua da herri proiektu bat aurrera eramateko elkarlana sustatzea, eta, batez ere, ikasle kritikoak eta aktiboak sortzea. Hala, ohi daitzela horiek herrian parte hartzea", jakinarazi du Ana Bolinaga alkateak. Hala, bada, ikastetxeekin jarri ziren harremanetan udal ordezkariak, Kurtzebarri Eskolako eta Arizmendi Ikastolako Almen guneko ordezkariak; baita begi onez hartu ere: "Ekimen askotariko ekintzak uztartzen ditu proiektuak, ikastetxeetako eta Udaleko ekintzak. Ikusiko dugu emaitza zein den bukaeran, baina ilusio handiarekin ekingo diogu", dio Arizmendiko Kristina Azkaratek.

Matematika eta harremanak

Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako ikasleen artean banatuko dituzte ezkurtxoak urtarri inguruan, moneta sistemen gaineko ikasgaia landu eta gero. Eta Kurtzebarri Eskolako Gurutze

Urrutiak zera argitu du: "Uste dugu txanpon hori eman egin beharrean irabazi egin beharko dutela ikasleek, geuk ere lan egiten dugu-eta dirua irabazteko". Eta txanponen erabilerarekin batera matematika ere landuko dutela diote irakasleek: "Zenbat

gasta dezaketen kalkulatu, zenbat behar duten, gehiegi den edo ez... Era berean, harremanak ere landuko dituzte, txanponak konpartitu ahal izango dituztelako elkarren artean adostuta". Herriko bi gozoki-dendatan erabiltzeko izango dira ezkurtxoak.

Merkataritza sustatzeko

Aretxarte merkatarien elkarteko ordezkariak ere baiezkoa eman diote proiektuari, eta Udalaren alboan izan dira horri forma ematen. "Bertako merkataritza bultzatzeko egokia ikusten dugu. Oraingoan, ez dugu zabalduko

komertzio guztietara, baina, aurrera begira, ikusiko da", jakinarazi du Idoia Elexpuruk, Aretxarteko presidentek. Eta alkateak berretsi du merkataritza sustatzea ere badagoela helburuen artean: "Umeez, jolasaren bitartez, txanponak herrian bertan erabiltzen


Txanponen fabrikazioa



1. PLASTIKOZKO HARIA PLA izeneko plastikoa erabiltzen dute Lanbide Eskolako hiru dimentsioko inprimagailuek. Hainbat kolore ditu eta merkea da. Biodegradagarria ere bada.



4. HIRU ORDU PASAKO LANA Bederatzi txanpon batera egiteko gai da inprimagailua; horretarako, hiru ordu eta erdi behar ditu. Txanpon bakarra egiteko, oster, 35 minutu.




2. DISEINUA Txanponen diseinua, lehenengo, ordenagailuan egin dute. Hala, erabaki dute ezkurak irudikatzea gainean, eta *Aretxabaletako Udala* berbeekin eta Lanbide Eskolaren logoarekin osatzea.



5. TXANPONAK Hiru txanpon egin dituzte eta hiru koloreekin balio ezberdina eman: berdea, euro batekoa; gorria, bi eurokoa; eta urdina, hamar eurokoa, hain zuzen ere.

3. INPRIMATZEN Hiru dimentsioko inprimagailuari harria jarri gainean eta hori berotu ostean urtu egiten du. Gero, poliki-poliki pieza osatzen du, geruzak bata bestearen gainean jarrita.





3D printuak erakusten, hiru dimentsioko inprimagailuak aurrean dituztela. | JAGOBA DOMINGO

ASIER MORAN
IRAKASLEA

"Uste dugu eraldaketa eragingo dutela industrian makina horiek"


Aretxabaleta Lanbide Eskola-ko goi mailako ikasleekin batera muntatu ditu hiru dimentsioko inprimagailuak Asier Moran irakasleak. Iaz hasi zuten proiektua, eta aurten erabilera eman diote.

Txanponak pieza sinpleak dira, baina konplikatua ere egin ditzake, ezta?

Bai, noski. Hainbat pieza egin ditugu: xake piezak, jokoak, panpinatxoak... Eta pieza mekanikoak ere bai. Gure ikasketean erizaintzako modula ere ematen da eta eurek eskatu ziguten hagin itxurako prototipoak egiteko, gero eurek moldeak atera ahal izateko.

Hiru dimentsioko inprimagailu horiekin edozer egin daitekeela entzuten da: autoak...

Bai, hala da, baita etxeak ere. Zeresan handia eman zuten armek ere, Interneten zintzilikatu zutelako zelan egin. Baina guk ez dugu halako



J.D.

asmorik, gure nahia da prototipoak egiten ikastea; makina horien funtzionamendua ikas dezatela ikasleek. Izan ere, uste dugu industrian eraldaketa eragingo dutela halako makinek.

Kooperatibaren batek interesa erakutsi du, ezta?

Bai, egon dira gurekin. Lan-tegian egiten dituzten pieza batzuen prototipoak atera ahal izateko egin dugu berba, eta ikusiko dugu...

Zuen hiru makinak berdina dira, baina beste era batekoak ere izan daitezke...

Bai, mundu zabala da hau, bai makina motei dagokienez, bai erabil daitezkeen materialei dagokienez. Badaude laserra erabiltzen dutenak, metala, igeltsua, papera... Janariaren dako makinak ere badaude.

Proiektu hori garatzen hasi bakarrik egin zarete orduan? Zuzendaritzak bultzatu duen proiektua da eta buru-belarri dihardu horretan, ikusten dutelako garrantzitsua izan daitekeela gerora begira.

"Kooperatiba batek interesa erakutsi du prototipoak egiteko"

Sinadurak uztailean aurkeztu eta ez dutela erantzunik jaso diote 5. Alde Plataformakoek

M.A. | ARETXABALETA

"5. Alde Plataformakoek jakinarazten dizuegu, gaur egun, Udalak ez digula ezer esan zaborra jasotzeko sistema erabakitzeko kontsultaren aldeko sinadurak uztailean aurkeztu eta gero", diote plataforma horretako ordezkariak. Inolako erantzunik ez dutela-eta zera gaineratu dute: "Ez dakigu aretxabaletarrok eskatutakoa Udalak

nola kudeatu behar duen. Azken plenoa irailaren 29an egin zen eta kontsultaren gaia ez zen bertara eraman".

Era berean, udaletxera behin eta berriz joko dutela gaineratu dute, "herritarren eskakizuna entzun dadin". Eta sinatu zutenei haxe jakinarazi diete: "Jo eta ke jarraituko dugu aretxabaletarren hitza udaletxeok kontuan izan dezaten".

Txakoli tabernatik Errotabarri baserrirainoko Deba ibaiaren zatia garbituko dute bihar

Udalak eta herriko hainbat eragilek elkarlanean Deba ibaia garbitzeko deia egin dute biharko. Herriko Plazan elkartu (10:00) eta Txakoli taberna parera joko dute garbiketara hasteko. Handik Errotabarri bitartean dagoen zatia garbituko dute.

Antolatzaileek gomendatu dute oinetako egokiak (katiuskak edo oinetako zaharrak) eta eskularruak erotea. 16 urtetik beherakoek, gainera, gurasoek lagun eginda joan beharko dute. Bukarera, hamarretakoa eskainiko diete lanean jardundako gutziei.

50 euroko opariak banatzen segitzen du Aretxarte merkatarien elkarteak

M.A. | ARETXABALETA

Aretxarte merkatarien elkarte kide Uxue Erañak sariak banatzen segitzen du herritarren artean. Hilabeteen lau edo bost banatzen ditu, eta Aretxarteko edozein denda edo tabernatan sartu eta momentuan barruan dagoen bezero bati ematen dio 50 euroko balioa duen oparia, gero Aretxarteko beste komertzio batean jasotzeko. Gabone-

tako kanpaina hasi bitartean segituko duela sariok banatzen jakinarazi du Erañak.

Moda desfilea urriaren 31n

Bestalde, urriaren 31n moda desfilea egingo dute Aretxarteko hainbat merkatariak. Oraindagoen bezero bati ematen dio 50€ko balioa duen oparia, gero Aretxarteko beste komertzio batean jasotzeko. Gabone-



Asensio dendako ugazaba opari txartela ematen. | UXUE ERAÑA

ESANAK

"Herri proiektu bat aurrera erroteko sustatuko dugu elkarlana"

ANA BOLINAGA | ALKATEA

"Txanpona eman beharrean irabazi egin beharko dute"

G.URRUTIA | KURTZEBARRI ESKOLA

"Matematika eta harremanak ere landuko dituzte txanponekin"

K. AZKARATE | ARIZMENDI IKASTOLA

"Aretxabaleta haritzetik dator eta horren fruitua ezkurra da, ezta?"

IDOIA ELEXPURU | ARETXARTE

ten ginen, eta gero itzuli berriro, gehiago egiteko". *Ezkurtxo* izena, bestalde, Elexpuren burutazioa izan da: "Aretxabaleta izena haritz zuhaitzetik dator, eta horren fruitua ezkurra da, ezta?".

Hiru dimentsioko makinak

Eta ezkurtxoak Aretxabaletan bertan egin dituzte, Lanbide Eskolan. "Hiru dimentsioko inprimagailuen gaineko proiektua jarri genuen abian iaz, ziklo bateko ikasleekin. Behin makinak muntatuta, kontu askotarako balio dutela ikusi genuen, baina ez genekien zein erabilera eman herri mailan. Alkateari erakutsi genizkion orduan, eta berehala bururatu zitzaion zer egin: ezkurtxoak", azaldu du eskolako zuzendari Rikardo Lamadriderak. Eta onartu du hiru dimentsioko makina horien aldeko apustua egin duela zuzendaritzak.

Asier Moran irakasle donostiarraren egitasmoa izan da inprimagailuen proiektua eta hark argitu du zelako txanponak egiten dabilzan: "Askotariko materialak erabil daitezke inprimagailu horietan, baina gureak PLA plastikoa erabiltzen du; merkea eta biodegradagarria delako aukeratu dugu hori".

Urtarrilean, 300 txanpon

300 txanpon inguru aterako dituzte, oraingoz, eta euro batekoak (berdeak) eta bi eurokoak (gorriak) banatu ikasleen artean. Hamarrek, urdinak, aurrerago erabiltzeko gordeko dituzte, eskolako materiala erosteko, besteak beste. Horretara 600 euro inguruko aurrekontua bideratu du Udalak.

Bien bitartean, makinek jo eta su segituko dute lanean Lanbide Eskolan, neska-mutiko gutziek izan ditzaten txanponok urtarrilean.

Zure ibilgailuaren azterketa egingo dugu DEBALDE!

Zure autoa edo motorra beti puntuan, MAPFREko bezero izan edo ez.

Zure ibilgailuaren puntu garrantzitsuenak azter itzazu.

Egunak: urriak 21 eta 22. 10:00etatik 14:00ak arte eta 16:00etatik 19:00ak arte.

Aretxabaletan, Ibarra kirolegiaren eta futbol zelaiaren artean.

ERREKABARREN, 3
ARETXABALETA
TEL.: 943 77 11 76



XVIII. Gastronomía eta Folklore Jaiak jatekoarekin beteko du Herriko Plaza

Domekan egingo dute, 10:00etan hasita, eta dantza erakustaldiak eta kantu emanaldiak ere izango dira

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Txitxi-burruntziak, urdaiazpikoa, olagarroa, errokillak-eta jateko eta albariñoa, finoa eta Errioxako ardo beltza edateko izango dira domekan, Herriko Plazan, 10:00etan hasi eta 14:30k bitartean. Gastronomía eta Folklore Jaiak 18 urte bete ditu dagoeneko, eta beste herrialde batzuk ezagutzera emateko asmoarekin sortutako jaia guztiz errotu da herrian.

Euskal produktuak, Aratzekoek

Zaraia mendizale taldearen laguntzarekin, eta Txakoli eta Dorleta tabernek babestuta, Udalak antolatutako jaialdian hamabi postu inguru izango dira plazako arkupeetan: "Nobedaderik ez dago, urtero ekartzen dituzten produktu goxoak eskainiko dizkigute, beste behin", jakinarazi du antolatzaile lanetan dabilen Zaraia taldeko Martin Garaik.

Gaztela eta Leongo, Galiziako eta Extremadurako produktuak izango dira postuotan, azken horiek Arrasateko Corazon de Encina taldekoen eskutik. Eta Euskal Herrikoak eskainiko dituzte Aratz taldeko kideek.

Dantzak eta jotak

Folkloreari dagokionez, azken urteotako taldeek egingo dute bisita: Laudiotik etorriko da Gaztela eta Leongo San Fernando dantza taldea; Donostiatik, Galizia Etxeko dantza taldea; eta Errioxako Villamediana de Iregua herritik, beriz, Voces del Ebro jota taldea.



Bi lagun txitxi-burruntziak gertatzen, iazko jaialdian. | IMANOL SORIANO

20. patxaran lehiaketa

Azken urteotan legez, patxaran lehiaketa jokatu dute domekan. 11:00etatik 14:00etara aurkeztu beharko dute Herriko Plazan, Zaraia Mendizale Taldeko kideek jarriko duten mahaian.

Norberak egindakoa izan beharko du patxaranak, eta kristalezko edo beira gardenezko botilan aurkeztu beharko da; botilen originaltasuna kontuan hartuko dute epaimahaiko kideek. Bakoitzak bi botila aurkez ditzake.

Sari banaketa ekitaldia 17:30ean izango da, plazan bertan. Lehenengo hiru onenek trofeoa eta diru-saria jasoko dute. Sariak banatu ostean, lehiaketara aurkeztutako patxaranak probatu ahal izango dituzte herritarrek.



Patxaranak mahaian. | I. SORIANO



Kurtzebarriko eta Merlet Collegeko ikasleak elkarrekin. | GOIENA

Herbehereetako 27 ikasleek astebete egin dute herrian

Cuijk hiriko Merlet College eskolako ikasleek Kurtzebarri institutukoekin egin dute elkartrukea

M.A. | ARETXABALETAKO

Herbehereetako Cuijk hiriko Merlet Collegeko 27 ikasle izan dira Aretxabaletan Kurtzebarri institutuko ikasleekin. Azken urteotan legez, elkartrukea egin dute Merlet Collegeko kideekin Kurtzebarrikoekin, eta Euskal Herriko parajerik dotoreenak erakutsi dizkiete; baita euskal kulturaren berri eman ere. Ia astebete egin ostean, gaur itzuli lako dira etxera. Martxoan, oster, aretxabaletarrak joango dira Herbehereetara.

Bilbora eta Donostia

Joan den zapatuan iritsi ziren, eta, domeka familian pasatu ondoren, astelehenean ongi-torria egin zien alkateak. Gero, Lasturrera joan ziren; talo tailerra egin, errota bisitatu eta zezentxoekin jolasean jardun zuten han. Eguaztenean, oster, Bilbon izan ziren, besteak beste, Guggenheim bisitatzeko, eta eguenean, Donostian. Bertako dantzak ezagutzeko aukera ere izan dute, Erdizka Lauetan taldearen eskutik.

Elikadura burujabetzaren gaineko hausnarketa bultzatzeko hiru dokumental astelehenean

Hiru txetx eta Elkarhezitzen elkarteek elikaduraren gaineko burujabetza bultzatu gura dute, eta hiru dokumental emango dituzte astelehenean, hilak 20, Arkupen (18:30). Hona dokumentalak: *Tres historias y un vaso de leche* (Katalunia, 2007, 26 minutu); *El futuro de nuestra alimentación está en juego* (Espainia, 2011, 4 minutu); eta *Campesinas, semillas de cambio* (Nikaragua, 2007, 25 minutu).

Ipuinak kontatzen ikasteko saioak egingo dituzte bi martitzenetan Pello Añorga idazlearekin

Udal Liburutegiak ipuinak kontatzen ikasteko ikastaroa antolatu du gurasoendako: *Elkar entzuteko gunea sortzen etxean, liburua eta kontutxoak lagun*. Bi saio dira, hilaren 21ean eta 28an (18:00-20:00), eta Pello Añorga idazleak gidatuko ditu. Ikastaroa debaldea da eta plazak mugatuak dira. Izena emateko eta argibide gehiagorako, Arkupen dagoen liburutegira jo behar da (943-08 10 01).

Odola ateratzera datoz osasun etxera astelehenean eta hilaren 29an unitate mugikorra etorriko da

Arabako Odol Bankuko kideak izango dira astelehenean, urriak 20, odola ateratzen osasun etxean, 16:30etik 20:00etara.

Urriaren 29an, eguaztena, oster, unitate mugikorra etorriko da odola ateratzera Durana kalera (Herriko Plaza parean), 16:30etik 20:15era. Pintxo-poteo eguna izanik, gazteak ere anima daitezten gura dute Odol Emaileen Elkarteko ordezkariak.

'Ez da kasualitatea' bertso musikatuen emanaldi berezia antolatu du Lekaixokak azaroaren 7rako

Bertso musikatuen emanaldi berezia izango azaroaren 7an, Lekaixokak antolatuta eta Udaleko Kultura Sailarekin elkarlanean. *Ez da kasualitatea* emanaldian, Miren Amuritzak, Beñat Gaztelumendik, Onintza Enbeitak eta Jone Uriak jardungo dute bertsoan eta Amaia Agirre bertsolariak jarriko ditu gaiak. 19:00etan izango da, Arkupe kultur etxean; sarrerak 4 euro balio du.

Maite Marcos eta Kuartangoko lagunak bi sari jaso dituzte Almeriako zinemaldian

'Algo más que morir' filma izan da western zinemaldiko garaile nagusia

M.A. | ARETXABALETAKO

"Ondo pasatzera joan ginen eta izugarria izan da!", esan du Maite Marcosek. Izan ere, sari bi jaso ditu Kuartangoko lagunekin batera egindako *Algo más que morir* filmak Almeriako western zinemaldian (2014, 74 minutu): publikoaren saria eta *Almeria Collection* sari berezia. "Zirraragarria izan da emanaldia, hunkigarria. Guk egindako lana baloratzen jakin dute", gaineratu du. Eta sari hirukoitza jaso dute, Frantziako produkzio-etxe batek filmaren eskubideak erosi ditu-eta.



Maite Marcos aretxabaletarra trofeoak esku artean dituela. | MAITE MARCOS



Pilar Etxaniz, Antzuolako Herri Ikastetxeko zuzendari ohia. | IRATI GOITIA

Etxaniz: "Betegarria da sinisten duzunean aritzea"

Antzuolako hezkuntza eredua ezaguna da gurean eta baita kanpoan ere

MAIDER A. / IRATI G. | ANTZUOLA

36 urte egin ditu Pilar Etxanizek Antzuolako herri ikastetxean lanean; horietatik azken zortzi urteak zuzendari gisa aritu da, gainera. Ekainean erretiratu zen, eta orain, Izaskun Azpiatzuk betetzen du haren toki.

Aztera begiratu eta garai bateko kontuak ekarri ditu Etxanizek gogora. Hunkituta berba egin du hasierako urteez: "Lanean hasi nintzenean, garai hartan, oso baliabide eskasak zeuden. Arbel eta klariona soilik nituen ikasgelan, ez nuen besterik lanean hasi nintzenean. Askok aldatu dira, ordea, gauzak".

1982an Ikastolak eta eskolak bat egin zutenean etorri zen aldaketa nagusia. Denak ginen ilusioz beteriko irakasle gazte idealistak.

Eskola aldatu eta hobetu nahi genuen. Horretarako, urte osoko mintegia egin genuen; teoria ezberdinak lantzen eta ezagutzen hasi ginen. Gero, pixkanaka, praktikan jartzen joan ginen".

Horrela, proiektua osatzen joan dira urteetan eta orain ezaguna da euren hezkuntza eredua bai gurean eta baita kanpoan ere. "Bartzelonatik ere etorri dira gure eskolako proiektua ezagutzera", azaldu du.

Bidea nekeza izan dela askotan adierazi du, baina emaitza ikusita harro sentitu dela. "Egia esan, hainbat momentutan neke-tsua eta zaila izan da, baina asgarria izan da. Sinisten duzunean lan egitea eta aurrera ateratzea oso positiboa eta oso betegarria da". Zuzendari ohiak azpimarra-

tu gura izan du urteetako lan hau taldean, elkarlanean egin dutela. Bidean lagun izan dituenak ere eskertu nahi izan ditu.

Erroka berriak

Izaskun Azpiatzuk abiatutako ibilbidearekin aurrera segitzea duela helburu azaldu du. "Umeen ongizatea, aniztasuna eta inklusioa bultzatu gura dugu. Ikasle, irakasle eta gurasoak ere proiektu honen partaide sentitzea gura dugu", azaldu du.

Bestalde, eskola txiki geratu dela-eta, hura handitzea da orain helburuetako bat. Izan ere, Azpiatzuk dio gela baten beharra dagoela. "Gai hau Hezkuntza Departamentuan dago zain", nabarmendu du Antzuolako herri ikastetxeko zuzendariak.

Eneko Bidegain: "Euskararen egoera larria da Iparraldean"

I. Mundu Gerraren ondorioz, frantses sentimendua zabaldu eta gizartean errotu da

M.A. | ANTZUOLA

Aiherra-Antzuola senidetzearen 30. urteurrenaren baitan, eguaztenean Eneko Bidegain kazetari eta irakasleak *Euskal Herria eta Lehen Mundu Gerra* hitzaldia egin zuen. Bidegainek azaldu du gerra haren ondorioz Ipar Euskal Herriko euskaldunak frantses sentitzen hasi zirela, nahiz eta Frantziako ama hizkuntza ez jakin. Hilero orotzapenak eta gerlari ohien goraitze sariak balio izan zuten ondoko urteetan frantses sentimendu hori are gehiago errotzeko. "Urte askoan egindako lan baten ondorioa izan da. Herri bat koloniza daiteke indarrez; baina gure kasuan, mentalki egiten da. Hau da, gerra baino lehen eskolan, armadan, kalean... Frantziako maitasuna irakatsiz eta euskalduna izatearen gutxiespena zabalduz. Lan sakona da; jendearen buru garbiketa eginda", nabarmendu du. "Gerran denak bat eginda, Alemaniaren aurka. Zibilizazioa barbaroen aurka. Frantsesa

izatea zibilizatu izatea zen. Eragina izan zuen, noski, euskaldunak frantseserako garaian".

Euskara Iparraldean

Duela 40-50 bat urte hasi zen euskararen benetako galera. "Lapurdin eta kostaldean euskara oso gutxi entzuten da; eta entzuten den euskara delatzen da, duen kalitateagatik. Nafarroa Beherean oraindik euskara indartsu dagoela esango nuke. Azpimarratu behar da ikastolei eta euskalgintzari esker euskarak berreskuratu egin duela prestigioa. Gazte eta haurrengan hobetu egin da egoera eta aldatzen doa", dio Bidegainek.

Baina frantses sentimendu horrek badirau hedabideetan, telebista kateetan, publizitatean eta euskarari kalte egiten diola esan du Bidegainek: "Euskara hainbeste gutxietsi da eta baztertu da, euskararen egoerak larria izaten jarraitzen du".



Eneko Bidegain, Olaran etxean egindako solasaldian. | JONE LARRAÑAGA

Ogia egiten ikasten, Trekutzen

KOMUNITATEA GOIENA | ANTZUOLA
SASKIOLA KONTSUMO TALDEA

Oso gustura ibili ginen ikastaroan; goiz guztia pasa genuen erabat entretenituta. Ama orea erabiliz baserriko betiko ogia egiten ikasi genuen. Teknika honen gako pazientzia da, denbora luzean egin beharreko ogia baita. Ikastaro teorikoaz gain, praktikoa egin genuen. Prozesua hasi eta norberak etxean bukatu genuen. Aurrez prestatuta ekarri zuten orea, ikastaroan bertan sartu genuen labera. Beraz, ogia egiteko eman beharreko pauso guztiak ikusi eta egin genituen.



SASKIOLA KONTSUMO TALDEA

Aiherrako urteurren ospakizunera joateko autobusean izena eman daiteke urriaren 22ra arte

Urriaren 25ean, Antzuola-Aiherra eguna ospatuko da Aiherran. Besteak beste, hitzarmen berria sinatuko dute eta antzularrek eskainitako zuhaitza landatuko dute; ondoren, aperitifa, pilota partiduak eta bazkaria izango dira. Arratsaldean, kantu saioa Kiki Bordatxo eta haren lagunekin; gazteendako kontzertuak: Goliath, Governors eta En Tol Sarmiento. Udalak autobusa jarriko du, debalde. Izena udaletxean -kultura@antzuola.net edo 943-76 62 46- eta gaztetxean eman daiteke. Azken eguna: urriak 22.

Batzarra deitu du Antzuolako gaztetxeak biharko, helburuak eta funtzionamendua adosteko

KOMUNITATEA GOIENA | ANTZUOLA
ANTZUOLAKO GAZTETXEA | Bihar, urriak 18, zapatua, Antzuolako gaztetxean batzarra egingo dugu. Antolatuko dugun batzar horren helburu nagusia da aurrera begira gaztetxeak edukiko duen funtzionamendua eta helburuak adostea denon artean. Deialdia goizeko hamarretarako egin dugu, gaztetxean bertan. Batzarra hasi aurretik, baina, 09:30ean gosaria egongo da prest nahi duenarentako.

Erleen mundu "zirrargarria" bertatik bertara ezagutzen

Alaiak-ekoak Aldekoa baserrian izan dira asteon, Juan Mari Arriolabengoarekin

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Uribarri auzoko Aldekoa baserrian ezta nola egiten den ikasi zuten Alaiak erretiratu elkarteak 21 bazkidek eguzten arratsaldean. Juan Mari Arriolabengoak 30 bat urte daramatza erleekin lanean, 1980ko hamarkadaren hasieran hasi zen eta horiekin lanean: "Gure filosofia da erleen mundu zirrargarria ezagutzera ematea, bisitarien goi mailako ezta dastatzeko aukera ematez gainera", dio Arriolabengoak.

Bisita gidatua erleen gainean berbetan hasi zuen Arriolabengoak: "Haien bizitza, diziplina, legeak, nola egiten duten lan, nola antolatzen diren... Azalpen luzea bezain didaktikoa izan zen; bertaratu zirenek galdera mordoa egin zuten eta oso solasaldi interesgarria izan genuen", adierazi du Alaiak-eko Cristina Etxenasiak. Gero, ezta nola egiten den



Alaiak-eko bazkideak Arriolabengoarekin, Aldekoa baserriaren atarian. | ALAIK

bertatik bertara ezagutu zuten eta, horren ostean, erle-sare batek babestuta, erlez jositako erlauntza bat ezagutu zuten: "Jaiotzeke zeuden erleak nola babesten eta berotzen dituzten ikusi dugu".

Ikasi ostean, dastatu

Prozesu osoa ezagutu ondoren bi eratako ezti ekologikoa dastatu zuten Uribarriko elkartearen, gazta apur batekin lagunduta: "Amaitzeko, inkesta bat osatu genuen

eta guztiok, aho batez, puntuaziorik altuena eman genion. Hiru ordu eder igaro genituen Aldekoa baserrian. Erleen munduaren gainean asko ikasi genuen eta baita goi mailako ezta dastatu ere; giroa ezin hobea izan zen. Bide batez, beste erretiratuei gonbidapena egin gura diegu hurrengo baten parte har dezaten", esan du Etxenasiak.

Arriolabengoak, erretiratuei gain –martitzenean Bergarako 60 erretiraturen bisita izan zuen, umeak ere hartzen ditu bere baserrian: "Udalekutako 5 eta 6 urtetako umeak adi-adi jarraitu zituzten azalpenak, begiak handi-handi zituztela". Bisita gidatu baten izena emateko modurik eraginkorrena da 603 46 99 68 telefono zenbakira deitzea.

Zarzuelarako sarreraren erreserba

Bestalde, azaroaren 29an Arrasateko Amaia antzokian egingo den *La rosa del azafran* zarzuelarako erreserba egin daitekeela jakinarazi dute Alaiak-ekoek: autobusa eta sarrerak erreserbatzeko 20 euro –bazkide ez direnek 22 euro– ordaindu beharko da elkartearen kontu korrante zenbakian, azaroaren 1a baino lehen.

NIRE USTEZ

AITOR MONTES



Aramaion ekografiak euskaraz

Lehen aldiz Debagoieneko ospitalea ekografiaren txostenak elebitan bidaltzen hasi da Aramaiora. Bazen garaia! Gaur egun, zoritxarrez, Osakidetzak ez du osasun arreta euskaraz bermatzen, ezta eskaintzen ere. Eta honek ondorio latzak dakartza. Alde batetik, erabiltzaileen hizkuntza eskubideak urratzen ditu, euren arteko hierarkiak ezarritik. Bestetik, ez du Euskadiko legedia betetzen, ezta goi mailakoa den Europako legedia ere. Azkenik, zerbitzuaren kalitateari kalte egiten dio. Izan ere, kalitateko osasun laguntza pazientearen hizkuntza eskaintzen dena da. Euskarazko osasun

zerbitzurik ez badago, ez da kalitatezkoa. Osasun arreta euskaraz lortu behar genuke, baina bere osotasunean, hau da, ahozko eta idatzizko harremanetan. Alegia, osasun langileekin euskaraz hitz egiteaz gain, ohar eta txosten guztiak euskaraz jasotzea. Funtsean, historia klinikoa euskaraz. Hau guztia lortzeko, irudi proben txostenak, besteak beste, ezinbestekoak dira.

Zergatik, hortaz, ekografiak euskaraz? Eskanerrak edo erresonantziak espezialistek eskatzen dituzte, baina familiako medikuok ekografiak eskatzen ditugu batez ere. Horregatik ekografiak hasi gara.

Ondo eginak ondo dirudi, baina horrelako ekimen bat ez da aurrerapausoa izango, Aramaiora mugatzen bada. Debagoieneko erabiltzaile guztiek euren ekografiaren txostenak euskaraz jasotzeko eskubide osoa dute; egia esan, irudi proba guztien txostenak. Ia eskatzeraz animatzen zaren!

Doke antzerki taldeak ikastaroa antolatu du azaro hasierarako

J.B. | ARAMAIO

Doke taldeak antzerki tailer interesgarria antolatu du azaroaren 1erako eta 2rako. Goiz eta arratsalde izango dira saioak, kultura etxean, eta gura duenak eman ahalko du izena. Hori bai, mugatua izango da izen-ematea, gehienez 15 lagun matrikula daitezke-eta. Ana Perez irakasleak gazteleraz emango ditu saioak eta gorputz bidezko adierazpenak zein irudimena landuko dute, besteak beste. Ikastaroaren prezioa da 50 eurokoa; izena emateko honako helbide elektronikora idatzi: koxmezubia@gmail.com.

Antzerkiari "bultzadaxoa"

Askotarikoak izango dira helburuak: atentzioaren fokatzeko aldazte, berba bidezko ulermenetik harago ulermen bisualaren oinarriak finkatzeko, sentimenduetan eta irudimena aktibatzea eta sentimenduei entzunaz akzioa zein gorputzaren esperientzia susta-



Aurreko ikastaroetako bat. | GOIENA

teza. Doke taldeak hamar urte bete ditu aurten, eta, azaldu dutenez, ikastaro horrekin "bultzadaxoa" eman gura diote antzerki zaletasunari.

Gainera, antolatzaileek aurreratu dute tailerren parte hartzen dutenek Doke taldearen proiektuetan parte hartzeko aukera izango dutela.

Garraiorako eta euskara ikasteko diru laguntzak

J.B. | ARAMAIO

Urtero legez, Udalak eskola garraiorako eta euskara ikasteko diru laguntzak atera ditu. Hortaz, aurten ere aukera egongo da azaroaren 12ra arte diru laguntzak eskatzeko, udaletxean. Ikasturte honetan ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako –Arrasate Institutuko ikasleak izan ezik–, batxilergoko, ziklo formatiboetako edo unibertsitateko ikasketak egiten dituztenek izango dute aukera garraiorako diru laguntza eskatzeko.

Era berean, joan den ikasturtean euskara ikasten ibili zirenek ere aukera izango dute laguntza eskatzeko. Aurten aldaketa bakarra izango da langabeek ez dutela abantailarik jasoko euskara ikasteagatik. Bestalde Udako ordezkariak gogoratu dute eskaerak epe barruan aurkeztu beharko direla, udaletxean bertan.

Mursegok kontzertua eskainiko du gaur, Txirritolak antolatuta

Txirritola elkarteak Maite Arroitauregi gonbidatu du gaur Sastiñara. Izen artistikotzat Mursego duen musikariak kontzertu berezia eskainiko du, zuzenean ikusteko batere ohikoak ez diren instrumentuekin. Udazkeneko ekintzen barruan kokatu dute antolatzaileek gaurko kontzertua; ermita barruan izango da, 20:00etan.

Gaur da azken eguna pilates ikastaroan izena emateko

Pilates ikastaroa azaroan hasiko da udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Azarotik ekainera bitartean martitzen eta eguenetan elkartuko dira, goizean edo 20:30etik 21:30era. Ikasturte osorako kuota izango da 100 eurokoa.

Gaur da izena emateko azken eguna; interesatuek udaletxeko jo beharko dute (945 44 50 16).

Ekimen berezi batekin eta gogoz hasi dugu ikasturtea

KOMUNITATEA GOIENA
BERTSO ESKOLA | ARAMAIO

Aramaio Bertsolari Eskolan bari-kuan ekin genion 2014-2015 ikasturteari, gogoz eta bertsoz. Aurten, gainera, ekimen berezi batekin hasi da bertso ikasturtea.

Sastiñan bildu ginen bariku arratsaldean eta Agin Laburu eta Miren Amurizak eskaintako libreko bertso saioaz gozatu ahal izan genuen.

50 bat lagun izango ginen

Herritar ugari hurbildu zen eta irudi polita osatu zen, bertso eskolako kide eta herritarren artean. Guztira, 50 bat lagun izango ginen Sastiñan.

Ordubeteko saioaren ostean, tripa ondo betetzera abiatu ginen Izarra elkartera eta ondoren, osteraz, bertsoa bilakatu zen protagonista. Laburu eta Amuriza ez ezik bertso eskolako kideok

ere jardun genuen kantuan, mahai inguruan eta ordu txikitik. Udazkeneko gure alea haxe izan da, neguan berriz izango duzue gure berri. Pista bat: Olentzerok zaku bete bertso dakar.

Eskolan bi talde izango ditugu aurten. Batetik, 11 eta 13 urte artekoa eta bestetik, 15 urtetik aurrerakoak. Batean zein bestean, Paula Amilburu jardungo da irakasle lanetan.



Sastiñako saioaren une bat. | BERTSO ESKOLA

Aramaioarrak bikain Arabako Bertsolari Txapelketari begira

Paula Amilburu (206 puntu), Xabi Igoa (194), Iker Agirre (186,5) eta Peru Abarrategi (176) sailkatu dira Arabako Bertsolari Txapelketarako. Aramaioarren artean Maria Izaga (161) izan da kanpoan geratu den bakarra. 2015eko urtarilaren 17an aurkeztuko den txapelketan 18 bertsolari egongo dira.

ELGETA

Ludoteka zerbitzua zabalik Haur Hezkuntzako umeendako ere

17:00etatik 19:00etara eskainiko dute zerbitzua, hilean 30 euroren truke

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Erabaki esanguratsua hartu du Hezkuntza batzordeak, guraso talde batek horrela eskatuta. Orain arte ez bezala, aurrerantzean, ludoteka zerbitzua eskainiko zaie Haur Hezkuntzako adinean dauden neska-mutikoei ere.

Hala, adin horretako erabiltzaileak ez dira zaintza zerbitzua —90 euro hilean— ordaintzera behartuta egongo, eta ludoteka zerbitzuko kuota —30 euro hilean— aplikatuko zaie.

Zerbitzu hori astelehenetik barikura egongo da zabalik, eta Herri Eskolak duen egutegia jarraituko du. Hori bai, ordutegi berezia izango du: 17:00etatik 19:00etara. Hala, erabiltzaile horiek ezingo dira ludotekan 17:00ak arte sartu, eta merienda eginda beharko dute, gainerako erabiltzaileek 16:00etatik 17:00etara meriendatzen dute-eta.



Elgetako neska-mutikoak, barikuan, liburutegian. | L.Z.

Bestelako zerbitzuak

Zaintza zerbitzuaren kuota 90 euro da hilean. Hezitzaileak eskolatik jasotzen ditu umeak 16:00etan, eta merienda ematen die. Horren ostean, ludoteka zerbitzua jasotzen dute haurrek 19:00ak arte.

Haur Hezkuntzako adinetik gora dauden umeendako, berriz, orain arte moduan jarraituko du ludoteka zerbitzuak. Kuota da 30 euro hilean eta ordutegia 16:30etik 19:00etara, astelehenetik barikura bitartean.

Etzi, munduko dantzen ikastaroa Espaloian

Antzerki tailerrak ere antolatu dituzte 8 eta 16 urte arteko neska-mutilendako, azarotik ekainera

L.Z. | ELGETA

Delia Señorrek eta Javier Muelak lau orduko dantza ikastaroa gidatuko dute domekan, hilak 19, Espaloia kafe antzokian. Bi irakasleak Danzas del Mundo elkartearen kide dira, eta 25 urtetik gorako esperientzia dute ikastaroak ematen.

Elgetako saioa 10:00etatik 14:00etara egingo dute, eta Europako hainbat dantza erakutsiko dituzte. "Parte-hartzaileen maiara egokituko dugu ikastaroa",

aurreratu du Javier Muelak. "Europako dantzak erakutsi ohi ditugu, borobilean dantzatzen direnak. Grezia, Bulgaria, Israel, Armenia, Eskozia, Irlanda, Ingalaterra...".

Saioa hasiberriendako izan daiteke edo aurretik esperientzia dutenendako. "Ikastaroa praktikoa izango da guztiz, eta parte-hartzaileen beharretara egokituko dugu", esan du Muelak. "Ibilbide moduko bat egingo dugu: Mediterraneoko dantzekin hasi-

ko gara, eta kultura zeltara egingo dugu jauzi". Interesatuak zabalik dute izen-ematea Espaloian. Prezioa 25 euro da.

Antzerki tailerrak gazteendako

Espaloitik, bestalde, neska-mutikoendako antzerki tailerrak antolatu dituzte. Saioak azarotik ekainera bitartean egingo dituzte, eta hileko kuota 25 euro da.

Bi talde antolatu dituzte. 8-11 urte bitarteko neska-mutikoen antzerki tailerra Belen Azkarate antzuolarrak gidatuko du, bari-kuetan, 17:00etatik 18:30era, euskaraz. Bigarren taldea, 12-16 urte bitarteko neska-mutikoena, Marisol Abreure Venezuelarrak gidatuko du, gaztelaraz, bari-kuetan, 18:30etik 20:00etara. Izen-ematea zabalik dute kafe antzokian edo 607 20 45 03 telefono zenbakian.

Maala guraso elkarteak izendapen berriekin eman dio hasiera ikasturteari

L.Z. | ELGETA

Maala guraso elkarteak eguaztenez egin zuen urteko batzar orokorra. 2013-2014 ikasturteko balantze ekonomikoa aurkeztu zuten, eta batzarkide berrien izendapena egin. Nerea Villak hartu du presidente kargua eta Iban Arantzabal izango da presidenteordea. Gainerako batzarkideak dira Maria Luis Abanto —diruzaina—, Ibai Etxaniz —

idazkaria—, Estibalitz Retolatza —ingeleseko arduraduna—, Diego Cantabrana —baratzeko arduraduna—, Maria Jose Freire, Juan Carlos Errasti, Leire Basauri eta Bea Sarraoa.

Bost kontseilukide berri

Guraso elkarteak, bestetik, bost guraso ordezkari izendatu behar ditu Eskolako kontseilua berri-tzeko.

Kantsatzeke mendi taldeak irteera antolatu du Gorostiagara eta Arrolara urriaren 25erako

Legazpin hasi eta amaituko den mendi ibilbidea proposatu dute Kantsatzeke taldeak. Ibilbidean, Gorostiaga (951 metro) eta Arrola (904 metro) igoko dituzte. Taldea 08:00etan abiatuko da herriko plazatik, eta prezioa bost euro da. Interesatuak udaletxean eman dezakete izena, edo kantsatzeke@gmail.com helbidean.

Beteranoen pilota txapelketa antolatzen bigarren batzarra martitzenean, 19:00etan, udaletxean

Motel doa beteranoen pilota txapelketarako izen-ematea. Iaz 30 lagunek hartu zuten parte: 40 urtetik gorako sei bikotek eta 40 urtetik beherako bederatzi bikotek. Aurtengoari dagokionez, aste erdialderako bi lagun zeuden izena emanda. Antolatzaileek martitzenean, hilak 21, egingo dute bigarren bilera irekia. Interesatuak udaletxean edo Bolatoki tabernan eman dezakete izena.

55 erretiratut eman dute izena urriaren 27an Gernikako azokara antolatu duten irteerarako

Urriko azken astelehena egun handia da Gernikan, eta Elgetako Xalbadorpe elkartetik egun osoko irteera antolatu dute. 55 lagunek eman dute izena, eta bete egin da autobusa. 09:15ean abiatuko dira plaza barrenetik. Irteera egin ostean, azaroaren 7rako antolatu dute erretiratut hurrengo ekintza. Urteroko gaztainera-erre jana egingo dute Ozkarbi elkartearen.

Urriaren 26an, domeka, familiendako bisita gidatua, doan, Intxortako ibilbide tematikora

Berezia izango da urriko azken domekako bisita gidatua. Familiaren egiteko modukoa izango da, eta doan. Azalpenak adin guztietako bisitariendako egokituko ditu Iraitz Lazkano gidariak. Interesatuak aurrez eman behar dute izena. Kontakatuak dira 943-71 89 11, 943-79 64 63 eta turismo@debagoiena.net.

LEINTZ GATZAGA

Hondakinak selektiboki biltzeak, emaitza "onak"

Ekarpen gunean "diziplina" falta da, hala ere

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Pozik dago Udala hondakin biltze selektiboak Gatzagak emandako emaitzarekin. Hondakin guztiak batzen dira selektiboki; kopurutan, %80ra arteko emaitza lortzen dute. "Ekarpen gunean, errefusera joaten dira oraindik komeni ez diren gauza batzuk. Eta hori findu egin behar da, diziplina apur bat falta da; baina bestela, ondo", esplikatu du Eugenio Otsoa alkateak.

Horrez gainera, oraindik ere noizbehinka jasaten dituzten usainak-eta desagerrarazteko zabo-

rraren denborak-eta neurtu beharra dagoela adierazi du Otsoak.

Konpost ugari

Bestalde, konpostari dagokionez, 46 familiak egiten dute konposta udalerrian; baserrietan nor berea egiten du eta udalerriko jatetxeek edukiontzi marroien bitartez bideratzen dute errefusua.

Balorazio orokorra, beraz, da hondakin biltze selektibo "inplantatuta" dagoela eta emaitza ikusita alkateak gura du "jendeari eskertu euren jarrera eta harrera".



LEINTZ GATZAGA

Bilbon, ederto asko!

"Egia esan, oso oso ondo pasatu genuen! Erriberako merkatutik hasi, alde zaharreko bisita gidatu ederra, bazkaria giro onean... erosketatxo batzuk.. hau da, ederto!". Horixe da Sorginak elkarteak kideek kontatutakoa joan den zapatuan Bilbon egindako egun-pasaren gainean. Datorren urteko pasatzen hasteko pizgarri ederra.

LEINTZ GATZAGA

Bengoerrekatik Gatz Museorainoko erreka tartea garbituko dute

Uraren eta Errekaren Astearen barruan, Bengoerrekatik Gatz Museorainoko erreka tartea garbitzeko hitzordua egin dute Udalak eta Debagoieneko Mankomunitateak biharko, zapatua. Zeregina honako hau da: 09:30ean San Migel plazan elkartu, eta Kontzejupetik gora Olaun erreka Deba ibaia-ekin elkartzen den punturaino joko dute. Tartean, Bengoerrekatik errekatxoko emari-tokia eta Santa Kolunbako zubi azpiko ur-putzua ezagutuko dituzte. 12:00etan, *Ura eta Erreka Deba Ibarrean* dokumental laburra emango dute eta 12:30ean ogitarteko banatuko dute guztiendako.

SASKIBALOIA

Hastear da ikuskizuna, gertu dago EBA kategorian lehiatuko den MU

- ▶ Josu Larreategiren mutilek Valladoliden hasiko dute denboraldi historikoa, bihar
- ▶ la %100ean Arrasateko jokalariekin lehiatuko dira kategoría berrian

XABIER URZELAI | ARRASATE

Gertu daude, eta hasteko irrikan. Arrasateko harrobiak aspaldian eman duen jokalarizuzta onena EBA kategorian lehiatuko da, lehenengoz (Valladoliden, zapatuan, 20:30ean). Denak ez dira berriak kategoría horretan, Kintana, Zeziaga, Barberena, Saez de Kortazar... Horien ardura izango da esperientziak jokatzeko, eta besteen ekarpena etorriko da freskotasunetik eta ilusiotik. Hala, inoiz baino denboraldi-aurre luzeagoa egin eta gero, bihar hasiko dute liga, Valladolideko Unibertsitatearen kontra: "Ez da liga hasteko kontrariorik onena, talde gogorra delako, baina lehiatuzera joango gara", adierazi du aste barruan Josu Larreategik.

Valladolidek, berez, Zilarrezko LEB mailara igotzeko txartela lortu zuen denboraldi amaieran: "Baina ez zuten gora igotzeko dirua jarri eta EBAn jarraituko dute. Hala, ligako talde gogorretakoa izango da".

Etxean indartsu izatea

Kanpoko partiduetan ahalik eta etekin handiena lortzen ahaleginduko dira zuri-moreak, jakinda Iturripeko puntuak direla garrantzitsuak: "Oraindik gogoan dut talde honekin egindako lehen urtean zenbat kostatzen zitzaigun partidu bat irabaztea. Orain, gauza bera gertatuko da, partidu osoan zehar egin beharko dugu lan ondo puntuak eskuratzeko, eta bai, kanpoan irabaztea zaila izango da; horrenbestez, etxean izan behar dugu indartsu".

Horretarako, taldeak hainbat erronka gainditu beharko ditu liga hasieran; Barberenaren hutsunea, adibidez, lesionatuta dago eta. Baina, hutsune horien gainetik, talde-lanean oinarrituko da aurtengo denboraldia, eta, igoera fasean moduan, Iturripeko zaleen esku egongo da arrakastaren gako nagusia.



2014-2015 denboraldiko Mondragon Unibertsitatea taldea




IBAN SAEZ DE KORTAZAR

Gasteiz
24 urte | 1,98 m
Pibota



UNAI BARRENA

Arrasate
21 urte | 1,91 m
Hegaleko pibota



IMANOL ZEZIAGA

Arrasate
24 urte | 1,89 m
Joko antolatzailea



MIKEL ATXA

Arrasate
19 urte | 1,85 m
Hegaleko eskolta



MARTXEL BALANTZATEGI

Arrasate
22 urte | 1,92 m
Hegalekoa



BEÑAT BARBERENA

Arrasate
25 urte | 2,04 m
Pibota



ANDER ATXA

Arrasate
23 urte | 1,92 m
Pibota




ALEX LORENZO

Arrasate
20 urte | 1,91 m
Hegaleko pibota



ANDONI ARANTZABAL

Arrasate
23 urte | 1,88 m
Hegalekoa



MIKEL AREXOLALEIBA

Arrasate
24 urte | 1,80 m
Joko antolatzailea




ALBERTO LASKURAIN

Arrasate
70 urte
Masajista



JOSEBA AREXOLALEIBA

Arrasate
52 urte
Delegatua



GORKA HERRANZ

Arrasate
27 urte
Entrenatzaile laguntzai.



JUANCAR DAVILA

Arrasate
40 urte
Bigarren entrenatzailea



JOSU LARREATEGI

Eskoriatza
48 urte
Entrenatzailea

ESANAK

"Partidu osoan zehar egin beharko dugu lan ondo maila honetan puntuak eskuratzeko"

JOSU LARREATEGI | ENTRENATZAILEA



2013ko Tafyd krosetako podiuma. | IMANOL SORIANO

ATLETISMOA

Soraluze-Bergara kroserako izen-ematea zabalik dago

Azaroaren 2an jokatu da Soraluze-Bergara krosaren 10. aldia, eta dagoeneko zabalik dute izen-emate epea. Interesatuek KiroIprobak.com atarian eman dezakete izena. Gehienez ere, 500 korrikalari onartuko dituzte.

Aurten 10. krosa jokatu denez, egun osoko festa egingo du Antxintxika taldeak. Hori horrela, Soraluze-Bergara krosa goizez egingo dute: nagusien lasterketa 11:30ean abiatuko da Soraluzetik; gurrupil-aulkiekin doazenak 11:00etan irtengo dira eta patinatzaileak, 11:15ean. Guztiek 10 kilometro egingo dituzte.

ESKALADA

Linazisoro eta Mulas bikain Espainiako eskalada txapelketan

Urriaren 12an jokatu zuten Bartzelonako Climbat La Foixarda kiroldegian gazte mailako eskalada txapelketa. Emaizta bikainak lortu zituzten Mikel Linazisoro eta Mirian Mulas debagoiendarrak. Linazisorok urrezko domina jantzi zuen 16 urtez azpikoetan, bi bideetan goiraino helduta. Mulasek, aldiz, brontzekoa lortu zuen 20 urtez azpikoetan. Maila horretan Paula Alsina izan zen eskalatzaile onena.

Guztira, 90 eskalatzailek hartu zuten parte gazteen txapelketan, hiru mailatan banatuta: 16, 18 eta 20 urtez azpikoak, hain zuzen.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Ostadar-Aretxabaleta

Zapatua, 17:15. Michelin.

Tolosa-Aloña Mendi

Domeka, 16:30. Berazubi.

Antzuola-Bergara

Domeka, 16:30. Estala.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Zumaia-Mondragon

Zapatua, 18:00. Garmendipe.

Aretxabaleta B-Urola

Domeka, 16:30. Ibarra.

EMAKUMEZKOEN

ERREGIONALA

Iñitxa-Bergara

Zapatua, 18:00. Bikuña.

Arizmendi-Eibar

Zapatua, 18:00. Ibarra.

Mondra-Mutriku

Domeka, 12:00. Mojategi.

GIZONEZKO JUBENILEN

OHOREZKOA

Aloña Mendi-Amaikak Bat

Domeka, 16:30. Azkoagain.

Mondragon-Billabona

Zapatua, 16:00. Mojategi.

Bergara-Aretxabaleta

Zapatua, 17:30. Ipintza.

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Eskoriatza-Presion Break

Zapatua, 18:15. Manuel Muñoz.

JUBENIL OHOREZKO MAILA

Eskoriatza-Cerverano

Domeka, 12:00. Manuel Muñoz.

GIPIZKOAKO LIGA

Allerru-Aretxabaleta

Zapatua, 17:30. Lezo.

Gamon Aker-Mondrate

Egubakoitza, 20:30. Errenteria.

ESKUBALOIA

LEHEN NAZIONAL MAILA

Ford Mugarri-Urdaneta

Zapatua, 18:30. Iturripe.

SENIOR GIZONEZKOAK

Urduliz-Bergara

Zapatua, 18:30. Urduliz.

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Bera Bera-Aloña Mendi

Domeka, 12:30. Gasca kiroldegia.

SASKIBALOIA

EBA MAILA

Unibersidad Valladolid-MU

Zapatua, 20:30. Valladolid.

GIZONEZKOAK 2.MAILA

Soraluze Bergara-Alde Zaharra

Zapatua, 19:30. Labegaraieta.

Mondragon

Unibertsitatea-Andraitz

Egubakoitza, 20:00. Musakola.

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-STL Bilintx

Egubakoitza, 20:15. Manuel

Muñoz.

ATLETISMOA

Tafyd krosa: 5,7 kilometro korrika Arrasateko alde zaharreko kaleetan

KOMUNITATEA GOIENA | ARIZMENDI
EDURNE BALTZATEGI | ARRASATE

Arizmendi Ikastolako Tafyd heziketa-ziklokoen eskutik dator, aurten ere, Arrasaten seigarrenez egingo den Gaueko Tafyd krosa: gaur, egubakoitza, 20:00etan.

Korrikalariak 5,7 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute Arrasateko kaleetan zehar markatuko den zirkuituari hiru itzuli emanda. Aurrekoetan bezala, hasiera eta amaiera Ferixalekuan izango da. Besteak beste, kirola sustatzeko helburuarekin jarri zen abian ekimen hori orain dela sei urte, eta, parte-hartzea eta sortzen den giroa ikusita, Lanbide Heziketakoek beste urtebetez antolatu nahi izan dute lasterketa.

Izen-ematea

Aldez aurretiko izen-ematea (8 euro) Herrikrosa.com webgunean, ikastolako idazkaritzan edo 943-77 20 25 telefonora deituta egin

daiteke. Egunean bertan ere egin daiteke (10 euro). Korrikalariak kamiseta bana jasoko dute opari, eta, sariak ez ezik, beste hainbat opari zozketatuko dira: Arrasateko dendariak emandako produktuak banatuko dituzte. Lasterketaren ostean, Ferixalekuan bertan luntxa egongo da korrikalariendako.

Iazko lasterketan Unai Rodriguez eta Ainhoa Sanz urretxuarrrak izan ziren azkarrenak. 2013an 81 korrikalariak parte hartu zuten Tafyd krosetan.

Gauetz eta alde zaharreen

Badu berezitasunik lasterketa horrek; izan ere, Debagoiengan gauetz eta herriko alde zaharreen egiten den lasterketa bakarra da. Eta, bestetik, herriko komertzioei esker egin da urte hautetan guztietan, dirua edo beste zenbait baliabide emanda lagundu dute-eta.



GOIENA

ANTZUOLA-BERGARA Derbia jokatu dute Jon Murua eta Aitor Arrateren taldeak, Ohorezko Erregional mailako seigarren jardunaldian. Hiru puntuak behar dituzte, biek ala biek.

PREZIOAK

HANKAZ GORA JARTZEN DITUGU

OBRA BERRIA BUKATUTA "SAN LORENTZON"

2 LOGELAKO 2 ETXEBIZITZETAN BAKARRIK APLIKAGARRIA.

Informazioa eta salmenta

943 424 430 • 637 726 522

Ormak

www.ormak.es

KULTURA

Berreskuratu bizipoza, txotxongiloekin

Urriaren 23tik 26ra bitartean askotariko jatorri eta teknikadun txotxongiloak izango dira Bergaran

A. ARANBURUZABALA | BERGARA

1991n egin zuten lehenengo Txotxongilo Mostra Bergaran. Herriko Taun Taun txotxongilo taldea hasita zegoen ordurako lanak herrian eta jaialdietan erakusten. Beste talde batzuen lanak ezagutu zituzten horrela, eta baita arlo horretako jaialdiak nola antolatzen ziren ikusten eta ikasten hasi ere. Heldu gehienendako txotxongiloak ezezagunak zirela konturatu ziren, eta Udaleria jo zuten, mostraren ideia gauzatzeko modukoa ote zen aztertzeraz. "Aurrera!", esan zien Udaleko ordezkari batek, eta aurrera egin zuten Taun Taunekoez, handik aurrera bi urtean behin mostra antolatuz.

Harrezkero, nazioarteko 150 txotxongilo talde baino gehiago izan dira herrian eta mostrak lortu du hasieratik zuten helburua betetzea, hau da: helduak txotxongilo-zale bihurtzea.

Bada, datorren egunean (urriak 23) hasi eta domeka (urriak 26) bitartean izango da hamabigarren edizioa.



Granujas a todo ritmo. | TAUN TAUN

EGITARAUA

URRIAK 23, EGUENA

19:00 KALEANZEHAR.

Granujas a todo ritmo
MG Producciones / Kantabria

URRIAK 24, EGUBAKOITZA

19:00 SEMINARIOKO KARPAN.

El cubo libre
Dromosofista / Italia

20:00 ZABALOTEGIARETOAN.

Clown's Houses
Merlin Puppet Theatre /Grezia

22:30 GAZTETXEAN.

Historieta de un abrazo
Dromosofista / Italia

URRIAK 25, ZAPATUA

13:00 SEMINARIOKO KARPAN.

Katilikada
Kontakatillu / Euskal Herria

20:00 ZABALOTEGIARETOAN.

Allegro ma non troppo
Zero En Conducta / Mexico

22:30 SAN MARTIN PLAZAN*

Sueños de arena
Borja Ytuquepintas / Katalunia

URRIAK 26, DOMEKA

19:00 SEMINARIOKO KARPAN.

Lana
Pez Limbo / Euskal Herria

20:00 ZABALOTEGIARETOAN.

Trau
Guillem Alba / Katalunia

* Euria egiten badu,
Seminarioko karpan.

Txotxongiloekin kalera!

Txotxongiloak bertatik bertara ikusi eta sentitzea gura dutela diote antolatzaileek: "Pintxo-poteoaren aitzakian, ikusgarriak eta dibertigarriak diren *Granujas a todo ritmo* lanarekin ekingo diogu aurtengoari, eta normalean aretoetan erakusten duten *Sueños de arena* kalera aterako dugu. Kalekoek publiko zabala dute helburu; areto barrukoak, berriz, helduentzako aukeratu ditugu".

Gura barik izan bada ere, *Katilikada* izan ezik, gainontzeko guztiak hitz bakoak dira. Askotariko jatorri eta teknikadunak dira: "Istorio barregarriak eta gogorak daude; tamaina handiko zein txikiko panpinak; harea eta zuzeneko musika erabiltzen dutenak... Munduko onenak dira", diote Taun Taunekoez.

Udalarekin elkarlanean

Mostraren hastapenetatik hartu du Udalak aurrekontuaren pisu handiena, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ere laguntzen badute ere.



Borja Ytuquepintas. | TAUN TAUN



Merlin Puppet Theatre taldearen *Clown's Houses*. | TAUN TAUN

ITSASO AZKARATE | TAUN TAUN

"Krisi ekonomikoak baino, publikoaren gose faltak kezkatzen nau gehiago"

Txotxogiloen esparruan helduentzako eskaintza zegoen hutsunea betetzeko asmoz sortu zuten mostra, orain 25 urte.

Mostrako atzeko lanetako maratoia-ri heltzeko prest?

Bai, horixe; lagunekin osatutako gure

ekipoa irrikaz dago, artisten gidari lanak egiteko, argi fokuak ipintzeko, kartelak hormetan jartzeko... **Hasierako indarrarekin segitzen duzue, beraz.**

Bai, beharrezko ikusten dugu-eta Bergarako Mostrak irautea. Arlo-



TAUN TAUN

ko profesional eta zale moduan diot; izan ere, gero eta aukera handiagoa badago ere, helduentzako eskaintza urria da oraindik.

Krisi ekonomikoak badu eraginik?

Artistok beti bizi izan gara krisian; ohituta gaude zintzilik egoten. Krisi ekonomikoak artistikoki eragin positiboa izan duela esango nuke, oso lan onak atera dira-eta. Publikoa ikusten dut krisian, gero eta zailagoa da aretoetara jendea erakartzea. Zergatik? Nik baneki...

HERRITAR KAZETARITZA

Goienaren mugikorretarako aplikazio berria. Goienarekin zu berriemaile!

- **Kexatu:** Testu eta argazkien bitartez kexa eta salaketak egin daitezke.
- **Txalotu:** Ekimen ala gertaerak auzatzeko txokoa izango da.
- **Bidali argazkiak:** Albisteak proposatu, irudiak bidali, zerbaiten berri eman...
- **Oharrak bidali:** Jakinarazpen, prentsa-ohar zein abisuen lekua da.

Deskargatu!

Behiko QR kodea irakurrita, aplikazioa jaitsi daiteke Google play edo App Store dendetan.



goiena.eus





Denis Josselin

ZIRRARA SORTZEN DUEN FUNANBULISTA

'ZERUAREN ETA LURRAREN ARTEAN' IKUSKIZUNA

Urriaren 24an, 19:00etan
Arrasateko Herriko Plazan
15 metroko altueran

IKUSGARRIA!

ZATOZI!

'Hondakindegia': ikuskizun poetiko ez musikatua Zabalotegin gaur

Iñigo Astizek eta Mikel Aierbek antzerkia, hitza eta bideoak batuko dituzte

IMANOL BELOKI | BERGARA

Gaur, egubakoitza, 20:00etan, *Hondakindegia* izeneko ikuskizun poetiko ez musikatua izango da Bergarako Zabalotegi aretoan. Bergarako Kultura Zerbitzuak antolatuta du eta 8 euro da sarrera.

Iñigo Astiz poetaren eta Mikel Aierbe literatura irakasle eta kritikari literarioaren eskutik, musikaren laguntzarik gabe, antzerkiaren eta poesiaren bitartez, lurra oinarri duen ikus-entzunezkoa osatu dute lan horretan. Astizen *Baita hondakinak* ere poesia liburuan oinarritutako

emanaldia taularatuko dute, eta, liburuan ageri den moduan, sukaldako solasaldiak eta manifestazioetako aldarrikapenak batuko dituzte. Antzerkia, hitza eta bideoak erabiliz osatu dute obra; Asier Goikoleak egin ditu bideoak; Alaitz Alberdik, berriz, kartela; eta Astiz eta Mikel izango dira oholtzan.

Begarako Kultura Zerbitzuko ordezkariak haxe adierazi dute: "Ikuskizuna asko gustatu zaigu; gainera, Zarautzen, Azkoitian eta halako herrietan izandako arrakasta ikusita, Bergara-

ra ekartzea pentsatu dugu. Kritika onak izan ditu eta jendea gustatuko zaio ikuskizuna". Azken emanaldia izango da.

Krak, krak, hortzetan

Fernando Pessoa poetak dioten moduan: "Lur guztia hozkatu eta ahosabaian sentitu ahalko banu, zorientsuagoa nintzateke une batez". Hipotesi hori hartu eta esperimentu gisa eroan dute taula gainera Astizek eta Aierbek. Izan ere, literalki lurra jaten ikusteko aukera egongo da ikuskizunean.



Isabel Romeo, taiko ikastaroko momentu batean. | DOMENTX UCIN

Taiko perkusio-instrumentu ikastaroa bihar, zapatua

Seiwa Taiko taldeko Isabel Romeoren eskutik emango da ikastaroa Arrasate Musikalen

I.B | ARRASATE

Bihar, hilak 18, taiko ikastaroa izango da Arrasate Musikalen. Domentx Uzin Arrasate Musikaleko irakasleak antolatuta du eta 11:00etatik 12:30era izango da. Ikastaroa, berriz, Seiwa Taiko taldeko Isabel Romeok emango du.

30 euro ordaindu behar dira eta langabe eta ikasleek, berriz, 25 euro. Bestalde, egun berean, baina 17:00etatik 18:30era, ikastaro bera izango da Soraluzeko Musika Eskolan.

Domentx Uzin antolatzailearen esanetan: "Japoniako perkusio kultura ezagutzera eramatea da gure asmoa". *Taiko* hitzak danbor handia esan nahi du eta perkusio japoniar espezialitate bat da. *Bachi* izeneko baketa batzuekin jotzen da instrumentua eta Japoniako festa

jaialdietan erabili izan da. Erritmo eta esentzia tradizionala izan arren, 60ko hamarkadatik hona asko modernizatu da taikoa eta estilo askotariko talde ugari daude gaur egun. "Taikoa ez da oso ezaguna gurean, baina mundu osoan zabaldua dago. *Nagado-daiko*, *hira-daiko* eta *shime-daiko* danborrak erabiliko ditugu. Mota askotakoak daude; *odaikoa*, esaterako, erraldoia da, baina Isabel Romeok eta biok dauzkagun materialak bakarrik erabiliko ditugu".

Izen amateko azken eguna
Izena domentx@gmail.com helbidean eman behar da eta gaur da azken eguna. Orain arte bost pertsonak eman dute izena, eta, talde handiagoa osatzeko, animatzeko eskaera egin dute antolatzaileek.

'100 metro karratu' antzezlan umoretsua izango da Arkupen

I.B | ARETXABALETA


Txalo Produzioak konpainiaren *100 metro karratu* antzezlanari urriaren 23an Aretxabaletoan Arkupe antzokian izango da, 19:00etan. Begoña Bilbaok zuzendu duen euskarazko komedia horretan, hainbat euskal aktore ezagun ikusteko aukera izango da: Iñake Irastortza, Ana Elordi eta Ramon Agirre, besteak beste; eta sarrera 4 euro ordaindu behar da.

Sara etxebizitza bila dabilen neska bat da. Bila ibili ostean, gustukoa lortuko du prezio eta leku onean, baina baldintza batekin: bertako jabeak bertan bizi beharko du berarekin, bere azken egunera arte. Etxearen jabeak 65 urte ditu eta bihotza oso ahulduta dauka. Beraz, panorama hori ikusita, Sarak etxea erostea erabakiko du eta

andrea azken eguna noiz iritsiko zain geldituko da. Egun hori ez da iristen... eta egoera larritzen joango da. Bi emakumeen izaera kontraesankorren bizikidetzak ikusiko da eremu txiki batean. Emozioz eta adiskidetasunaz betetako eszena dibertigarriak ikusteko aukera izango da komedia eder horretan.

Errealitatean oinarritutakoa

Juan Karlos Rubio sortzailearen bizipena kontatzen duen istorioa islatuko da antzezlanean. Salgai zegoen etxe baten iragarkiari erantzun zion hark, eta jarri zioten baldintza jabea bertan geratzea izan zen. Idazleak ez zuen eskaintza onartu, baina antzezlan baterako istorio bat asmatzeko baliagarria izan zaio bizipena.



**2014/2015 IKASTURTEA
IKASTAROAK DOHAINIK
LANGILE ETA LANGABETUENDAKO**

**PROFESIONALTASUN
ZIURTAGIRI
BERRIAK**

LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUA (HOBETUZ)

KATALOGO MODULAR BERRIA

ZIURTAGIRI PROFESIONALAK	PRESTAKUNTZA MODULOAK	PRESTAKUNTZA UNITATEAK	ORDUAK
(FMEH0409) URRADURAREN, ELEKTROHIGADURAREN ETA PROZEDURA BEREZIEKIN BIDEZKO MEKANIZAZIOA	MF0092_2 Urraduraren, elektrohigaduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazio-prozedurak	UF1006 Urraduraren, elektrohigaduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazio-prozesuen espezifikazio teknikoak	60
		UF1007 Urraduraren, elektrohigaduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazio-prozesuen kostuen kalkulua	40
	MF0093_2 Urradura, elektrohigadura eta prozedura berezietako makina eta sistemen prestaketa eta programazioa	UF1008 Makinak, ekipoak eta erramintak prestatze urradura, elektrohigadura eta prozedura berezien bidezko mekanizazio-eragiketetan	80
		UF1009 Urraduraren, elektrohigaduraren eta prozedura berezien bidez piezak egiteko CNCko programak egitea	80
(FMEC0110) ELEKTRODO ESTALIZKO ETA TIG BIDEZKO SOLDADURA	MF0099_2 Arku elektrozko soldadura, estalitako elektrodoekin	UF1640 Planoen interpretazioa soldaduran	60
		UF1622 Ebaketa-prozesuak eta ertzak prestatzea	70
		UF1623 Altzairu karbonozko profil eta xafiaz estalitako elektrodo bidezko soldadura, errutilozko elektrodoak dituen	90
		UF1624 Altzairu karbonozko profil eta xafiaz estalitako elektrodo bidezko soldadura, oinarritzko elektrodoak dituen	90
		UF1625 Altzairu karbonoz, herdoilezinez eta beste material batzuek egindako egituraz estalitako elektrodo bidezko soldadura	90
(SSCS0208) MENPEKO PERTSONEI ARRETA SOZIOSANITARIOA EMATEA ERAKUNDE SOZIALETAN	MF1016_2 Esku-hartzeen antolamenduan laguntzea, erakunde eremuan	UF0127 Erakundeetan mendeko pertsonen harreraren laguntzea	30
		UF0128 Menpekotasun egoeran dauden pertsonen garbitasuna, mantenua eta antolaketa	70
	MF1017_2 Higiene eta elikagai-arretako esku-hartzeak erakundeetan	70	
	MF1018_2 Arreta sozio-sanitarioko esku-hartzeak erakundeetan	70	
	MF1019_2 Erakundeetan dauden mendeko pertsonekin komunikatzeko teknikak	UF0129 Menpeko pertsonen animazio soziala erakundeetan	30
		UF0130 Erakundeetan dauden mendeko pertsonen eguneroko jarduerak mantentzea eta hobetzea	50
UF0131 Erakundeetan dauden mendeko pertsonekin komunikatzeko teknikak		50	

LANGABETUEI ZUZENDUA (LANBIDE)

DOAN

KATALOGO MODULARRETIK KANPO

DOAN

ZIURTAGIRI PROFESIONALAK: SSCS0108
 Pertsonen etxean gizarte eta osasun-arreta ematea 480 ordu
MODULO FORMATIBOAK: MF0092_2 Urraduraren, elektrohigaduraren eta prozedura berezien bidezko mekanizazio-prozedurak 100 ordu

Garabietan lan egitea 20

Eskorgan lan egitea 20

Solid Edge (Pieza) 30


Solid Edge (Txapa) 30

Solid Edge (Konjuntoa) 30


AutoCad (basikoa) 40

AutoCad (aurreratua) 40


IDAZKARITZAKO ORDUTEGIA: Astelehenerdik ostiralera: 08:00 - 18:00
 ETXEBARRI AUZOAN, Z/G / 22 Pk. 20550 ARETXABALETA (GIPUZKOA)
 WWW.IARETXABALETA.COM - IA@IARETXABALETA.COM
 T. 943 797 900 / 943 797 943 - F. 943 770 955




Lanbidez
heziketa
formación profesional



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



HOBETUZ



Europako Gizarte Funtzia

Iban Gonzalez | Zinema-zuzendaria

"Gudari esker egindako mugimendu politikoak dira garrantzitsuak"

- ▶ Arana Goiri batailoiak San Migel gudan bizitakoa jaso du dokumentalean
- ▶ 2014ko Lauaxeta Ikus-entzunezko saria irabazi du Gonzalezek lanagatik

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Goazen gudari danok ikus-entzunezkoa estreinatu berri du Iban Gonzalez zuzendaria. Arana Goiri batailoien bizipenak jaso ditu lanean. Jendearengan eragina izan du lanak, eta horrek hunkitu egin du Gonzalez. Izan ere, hori da garrantzitsuen, zuzendariaren ustez.

Zer kontatzen du dokumentalak?

Dokumentala memoria historikoa berreskuratzeko lanaren inguruan kokatu beha da. Markina eta Elgoibar artean dagoen San Migel gainean hainbat fosa aurkitu izan dira. Bada, San Migelen gudari bat identifikatu egin zuten –Atutxa politikariaren osaba zen Sabin Atutxa Olabarri–, eta hortik etorri da lana egiteko ideia. Gainera, esan behar da kontu hauek argitzeko presa dagoela. Oraindik badaude garai hartan gazteak ziren testigu zuzenak, baina, nagusiak direnez, presa dezente dago horrelako lanak egiteko.

Lauaxeta saria jaso duzu lanagatik, ikus-entzunezkoen arloan. Zorionak!

Euskaraz egindako lanen inguruko sariak dira. Ikus-entzunezko arloan, aurten, niri eman didate, lan honengatik. Lantalde osoari emandako saria da.

Erakundeek eskatuta egindako dokumentala da?

Sabino Arana fundazioak eta Bizkaiko Diputazioak eskatuta egindako lana da. Babes aldetik, hainbat udalen laguntza jaso dugu.

Guda hark izan zuen garrantzia nabarmendu duzue.

Gerra zibilaren hasiera zen, eta Mola jeneralak Euskal Herri osoa hartu gura zuen. Nafarroan erreketean babesa zuen, eta Gipuzkoan Donostia hartu berri zuen. Helburua Bilboraino heltzea zen. Bizkaian Mola jeneralaren aurka egiteko laguntza eskatu zuten; EAJk batzokietan laguntza eskatu zuen eta gazte askok izena eman zuen gudari moduan. Gazte horiek ez zuten inongo formazio militarrik. Bilbon egun gutxi batzuetan instrukzio minimo batzuk hartu zituzten eta horrela joan ziren San Migelera. Ez zen guda epikoa izan, baina kontua da gazte horiek Ziardiamendi mendiaren tontorrean aurrez aurre eutsi ziotela fronte militar profesional bati. Hain zuzen, egun haietan, Agirre lehendakariak gaur egun ezagutzen dugun euskal gobernuaren oinarriak finkatu zituen. Ez da hainbeste guda hartan gertatu zena, baizik eta guda hari esker egin ziren mugimendu politikoak.

Gertatutakoaren testigu zuzena ere baduzue.



Iban Gonzalez zinema-zuzendaria dokumentalaren une batean. | ALEX GARTZIA

"Garai hartako testigu zuzenak nagusiak direnez, presa dago"

"Eusko Gudariak" eurena egin zuten, animoak emateko erabiltzen zuten"

"Gudan egon zen testigu zuzen baten testigantza daukagu"

Aranzadi elkartearen laguntza dugu deshobiratzeko nola izan ziren azaltzeko, baserriarren testigantza zuzenak ere baditugu: euren etxeetan nola bizi izan zuten gertatutakoa; eta daukaguna da gudan bertan egon zen testigu bat: Jose Maria Otxoa de Txintxetrun. Zoritxarrez, 2013an hil zen.

Horrelako gertakariak kontatzerakoan, ze izaten da zailena?

Karga emozional handia dauka. Hainbat grabazio egin ditugu: tartean, gudari haien senideekin hainbat grabaketa egin ditugu. Gudariak egin zuten ibilbide bera egin dute senideek. Autobusean sartu genituen Bilbon,

eta, omenaldia eginez, San Migelera etorri ginen. Hunkigarria izan zen, bai eurentzat eta baita guretzat ere. Gertatutakoa grabatzeko zine-talde handi batekin egin dugu lan, 100 laguneko taldea, eta 200 figurante. Elgoibarko, Markinako eta Azpeitiko gazteak izan dira figuranteak. Historialarien laguntza behar izan dugu hori egiteko: armak nondik zetozen, nolako kamioiak erabiltzen ziren, zelako orrietan idazten zuten, nola-ko ilea zuten... detaile guztiak kontuan hartu behar dira.

Eusko gudariak abesti ezaguna ere orduan egin zen ezagun?

Eusko gudariak abesti ezagunari batailoi hark eman zion garrantzia. Hitzak aurrez idatzita zeuden [Jose Maria Garate]; baina doinua eta letrak Arana Goiri batailoiak elkartu zituen. Euren egin zuten abestia; eta elkarri animoak emateko erabili zuten.

Nolako harrera izan du lanak?

Niretako garrantzitsua zen telebistan eman aurretik Elgoibarren estreinatzea. Hunkigarria izan zen. Konturatzen zara jendearengan zerbait eragin duzula, eta benetan garrantzia duena hori da. Telebistarena da hedatzea. Uste baino askoz ere hobeto funtzionatu du, bai ETB1n eta baita ETB2n ere. Apustua egin eta *prime time*-n eskaini zuten; audientziak ikaragarriak izan dira, ETBko batez bestearen gainetik. Nik daukadan esperantza da ETBn dokumentalen aldeko apustua egitea.

Irratia kalera aterako dute 30 orduko maratoia egiteko

A.E. | BERGARA

Bihar goizean hasi eta domeka eguerdira arte Txapa Irratia kalera aterako dute. Irratiaren 30. urteurrena ospatuko dute aurten, eta, hori aitzakia hartuta, 30 orduko maratoia egingo dute. Esatariak aurrez aurre ikusteko aukera izango dute bergararrek.

Seminarioan egingo dituzte irrati maratoiaren ordu gehienak –gaueko orduak gaztetxean izango dira–. Mozketa gabeko zuzeneko emisioa izango da.

Beste komunikazio era bat

Komunikazioa beste era batera ulertzen zuen gazte talde handi batek sortu zuen Txapa Irratia. 1984an izan zen hori. Ordutik hona, 30 urte, 262.800 ordu eta 15.768.000 minutu pasatu dira. "Erraz zenbatzen dira", diote Txapa Irratiko kideek. Txapa Irratia kontakizun askoren aho-

tsa izan da, eta orain "gurea erreparatu eta ospatzeko" garaia heldu dela diote.

Irratiko klasikoak

Bihar, 10:00etan hasiko dute maratoia. Txapak oihiko irratsaioak eta ekintza bereziak tartekatuko dituzte 30 orduetan. 13:30ean, erreka garbiketako irratsaio berezia; 14:15ean, bertso saioa; 17:00etan, 30 urteotako historia erreparatuko dute irrati klasikoei; 19:00etan, Deabru Beltzak, plazatik irten eta seminariora; 20:00etan, 2014-2015 ikasturteko irratsaioak aurkeztuko dituzte; jarraian, Mikel Garate eta Ekaitz Aranberriren musika; 23:00etan, Urtzi Azkue&The Funk Junkers taldea; gauean, gaztetxetik, DJ emanaldiak zuzenean; domekan, 11:30etan, umeandako ipuinak eta jarraian Udal Musika Bandaren kontzertua.



Txapa Irratiko kideak zuzeneko irratsaioan. | TXAPA IRRATIA

'Loreak' filmeko aktoreak saritu dituzte Tokioko Latin Beat jaialdian

A.E. | ARRASATE

Loreak filmeko hiru aktore nagusiak saritu dituzte Tokion izan berri den Latin Beat jaialdian. Filmeko zuzendaria eta aktoreak ez dira han izan, baina gustura jaso dute saria.

Latin Beat jaialdiaz gain, Tokioko nazioarteko zinema jaialdian ere parte hartuko du euskarazko lanak. Hain zuzen, sail ofizialean parte hartuko du

filmak: urriaren 25ean eskainiko dute.

Aste bukaeran, Londresen

Aste bukaera honetan, filmeko zuzendari eta aktoreak Londresen izango dira, London Film Festivalean. Sail paralelo batean parte hartuko du filmak. Aitor Arregi filmeko gidolari oñatiarrak jaialdiaren garrantzia nabarmendu du.

Basterretxearen eta Txillidaren oinordekoek Arantzazun duten erakusketa, domekara arte ikusgai

Amets kabi erakusketa domekara arte egongo da zabalik. Rikardo Ugarteren, Jose Ramon Andaren, Jose Zugastiren, Iñaki Ruiz de Eginoren, Iñigo Arregi arrasatearraren, Iñaki Olazabalen, Koldobika Jauregiren eta Guillermo Olmoren eskulturak Gandiaga Topagunean daude ikusgai. Ordutegia da: gaur eta bihar, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara; eta etzi, domeka, 11:00etatik 14:00etara. Sarrera doan da. Arregik hiru obra erakutsi ditu, horietatik bi espresuki erakusketarako egindakoak.



Jon Ugarteburu | Ikaslea

Jon Ugarteburu, AEBetako saskibaloi-kantxa baten, han izan zuen familiarekin.

"Saskibaloiarekiko zaletasuna ikasketekin lotu dut AEBetan, eta asmo horrekin joan nintzen"

IMANOL BELOKI | ELGETA

Jon Ugarteburu (Elgeta, 1997ko abuztua). AEBetara joan zen iaz Batxilergoko lehen ikasturtea egitera, Minnesotako Armstrong High Schoolera. Saskibaloia du pasio eta Bergarako Soraluze BKE saskibaloi taldean dabil senior kategoriako bigarren mailan. Horrez gain, Elgetan gazte-txoendako saskibaloi eskolak gidatzen egon da bi urtez.

Zer dela-eta joan zara AEBetara? Nire lehengusinak animatu ninduen. Esperientzia kontatu zidanean ez nuen bi aldiz pentsatu. Momentu onean joan naizela uste dut... Batez ere, hizkuntzarenatik eta kirolarengatik joan nintzen. Ingelesa oso garrantzitsua dela uste dut, eta saskibaloia gustuko dudanez, ba...

Familia batekin egon zara ikasle truke bidez; nola topatu dituzu familia, unibertsitatea...?

Nacel izeneko enpresa batekin hitz egin genuen lehenengo. Ordaindu ostean, AEBetako familia batekin harremanetan jartzen da enpresa, bizitoki bat topatzeko. Familia lotu ostean, familia bizi den eremuko eskola bat topatzen dizu familiak berak.

Ez duzu beldurrik izan?

Momentuan oso motibatuta nengoen, eta beldurrik batere ez. Hori bai, urte luze batez han egon behar nuela pentsatuta, larritu egin nintzen, baina berehala pasatu zitzaidan.

Zer ikasi duzu han?

Batxilergoko lehen ikasturtea egin dut han. Nacel enpresak hemengo ikasgaiekin baliozkotu

ahal diren ikasgaiak zeintzuk diren esaten dizu. Horiek aukeratu behar dituzu lehenik; gero, bueltatzen zarenean, urte bat ez errepikatzeko. Ondoren, hautazko ikasgaiak daude, eta nahi dituzunak aukera ditzakezu.

Nolako izan da esperientzia? Lagunak, familia, hizkuntza...

Gomendagarria da. Gainera, lagunak egitea oso erraza da, jendea zuregan hurbiltzen da, oso zabalak dira. Hori bai, zuk ere irekia izan behar duzu... Hizkuntzari dagokionez, ingeles maila pixka batekin joan nintzen hara, eta asko ikasi dut. Familia, berriz, niri tokatu zitzaidanarekin suertea izan dut, nahiko europarrak zirelako. AEBetan, aurrez prestatutako jakiak hartzen dituzte familia askotan;

AEBetako nire amak, baina, etxean prestatzen zuen janaria; ondo, gainera. Familia bikaina izan dut, batez ere gurasoak, baina nire adineko anaia bat izateak asko lagundu dit.

Zein desberdintasun dago Euskal Herriko eta AEBetako heziketaren artean?

AEBetako ikasketak dibertigarriagoak dira. Eguneroko lana gogorragoa da, baina azterketak gaintzea errazagoa egiten da. Hemengo heziketa moduari buelta bat eman beharko liokete.

Gogorra da urte batez etxetik kanpora egotea?

Egia esan, ez, oso ondo egon naiz han. Lagun asko egin nituen eta nire familia [Elgetakoa] etorri zen bisitan astebetetz.

AEBetako ikasketek lotura handia dute afizioekin. Hala da?

Bai, zaletasunak ikasketekin lotu ditut AEBetan, eta asmo horrekin joan nintzen. Unibertsitatea

ordain dezakezu zure zaletasunean ona bazara...

Saskibaloia oso gustuko duzu; jokatu eta entrenatu egiten duzu?

Bergarako Soraluze BKE saskibaloi taldean ibili naiz junior mailan, baina orain, senior kategoriako bigarren mailan nabil. Horrez gain, Elgetan gazte-txoendako saskibaloi eskolak ematen egon nahiz bi urtez. Datorren urtean Bilbora joango naiz, seguruenik, eta taldez aldatu beharko dut han entrenatzeko.

Ingeles maila handiarekin bueltatuko zinen. Ezer egin nahi duzu ikasitakoarekin?

Hemen ematen dugun ingeles maila baino hobearrekin bueltatu naiz. Orain, errazagoak egiten zaizkit hemengo eskolak. *Advance* maila egin nahi dut orain, eta praktikatzen segitu. Izan ere, etorkizunean AEBetara bueltatu nahi dut, behintzat, hilabetez bisita egitera...

PERTSONALA

Zure herriko txoko maitea: Kantxa.

Musika talde bat: Timeflief.

Saskibaloi talde gustukoena: GBC Gipuzkoa Basket.

Bidaia gustukoena: Karibera egin genuen kruzeroa.

Amets bat: Saskibaloi jokalaria profesionala izatea.

Irakurritako azken liburua: Pio Barojaren *El árbol de la ciencia*.

Momentu gogoangarri bat: Ameriketara jokatu nuen azken partidua.

JON UGARTEBURU

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Elgeta. Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, jangela-egongela, sukalde hornitua eta bi bainugela. Berokuntza eta igogailua. Egoera oso onean, eraikin nahiko berria. Deitu 606 08 39 92 edo 679 56 84 78 telefono zenbakietara.

Oñati. Etxebizitza berria ematen da errentan Kurtzebide kalean. Hiru logela eta bi bainugela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 652 76 50 90

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, bi logelakoa. Partikularren artean. Deitu 662 43 08 54 telefonora.

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, hiru logelakoa. Hilean 500 euro ordain ditzaket gehienez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 662 68 56 03

Baseri bila Debagoienan. Bikote arrasatearra Debagoienan edo inguruan errentan hartzeko baseri bila dabil. 680 34 29 60 edo 699 28 99 06

Bergara. Bi logelako etxebizitza errentan hartu nahi dut. Interesatuok deitu telefono honetara: 602 03 33 56

Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza errentan hartuko genukeen bi bergarar gazte gara. Ezinbestekoa errenta kontratua. Deitu 608 78 77 71 edo 606 83 82 15 zenbakietara.

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke, konponketabatzuk behar dituen. Aitor. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 608 97 38 67

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Logela bat ematen da errentan. Etxe berria da, argitsua eta balkoia dauka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 662 38 14 18

Arrasate. Etxea osatzeko pertsona bat behar dut edo, bestela, logela bat hartuko nuke errentan prezio onean. Neska arduratsua naiz. Mainer. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634 43 31 79 edo 654 92 57 92

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat beharko genukeen bi langile gara. Interesaturik egonez gero deitu mesedez 18:00etatik aurrera zenbaki honetara: 653 74 87 51

Pisukide bila. Etxea osatzeko pisukide bila nabil. Logela handi bat, bi oherekin, eta etxeko gune guztiak erabiltzeko aukera. Logelak 250 euro balio du hilean eta gastuak erdibana ordainduko genituzke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 34 97 91

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Mitarte kalean garaje itxia ematen da errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 628 56 24 13

Bergara. Ibargarai kalean garaje itxia ematen da errentan, merke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679 74 00 61

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Auto handi batendako garajea hartuko nuke errentan Bergarako erdigunean. 686 24 68 92

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Antzuola. Pertsona euskalduna behar da egun erdiz, goizez, urtebeteko haur bat zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 609 81 89 52

Arrasate. Mutil euskalduna behar da zaintza lanetarako. Bazkariak prestatu, paseatzera irten eta abar. Astelehenerik ostiralera, goizeko ordutegian. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 649 70 23 90

Bergara. Emakume euskalduna behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669 83 06 97

402. ESKAERAK

Aretxabaleta edo Arrasate. Haur hezkuntza zikloa duen neska gazte euskalduna eta hurrekin esperientzia. Arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669 10 77 48

Arrasate eta inguruak. Neska euskaldun gaztea umeak edo nagusiak zaintzeko gertu, arratsaldetan eta asteburuetan. Autoa daukat. 639 44 86 30

Arrasate. Asteazken zehar ume eta nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko nitzuzke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 682 31 97 37

Bergara. Emakume lanerako prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 658 31 06 20

Bergara. Lehen hezkuntzako gradua eta haur hezkuntzako zikloa duen neska gazte euskalduna eta langilea. Goiz eta arratsaldetan haurrak zaintzeko eskaintzen da. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 648 01 32 76

Bergara. Neska euskalduna goiz zein arratsaldetan umeak zaintzeko prest. 685 77 40 26

Debagoiena. Emakumeaprest goizez etxek garbitu edo pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko. (Clara). Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 633 65 19 01

Debagoiena. Bertako neska, esperientziaduna, nagusiak etxean zaintzeko gertu. Baita gaeuz ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

Debagoiena. Dendari, sukalde laguntzaile edo zaintza lanetan arituko nintzateke. Eskarmentua dut nagusiak zaintzen. Erreferentzia onak eta lege paperak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 83 58 20

Debagoiena. Emakume arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaindu, etxeko lanak egin, tabernan eta abar. Etxean bizi izaten, egun oso edo orduka ere bai. 615 06 28 04

Debagoiena. Emakume espainiarra, eskarmentuduna, nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 633 84 65 30

Debagoiena. Emakume lanerako gertu. Eskarmentua dut umeak zaintzen, etxeko lanetan, lantegian, zerbitzari lanetan zein zaintzak egiten. 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

Debagoiena. Esperientziadun pertsona asteburuetan nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695 96 98 74

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 88 38 32

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdtu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoiena. Garbiketa lanetan, nagusiak edo umeak zaintzen edo zerbitzari lanetan lan egingo nuke. 20 urte ditut. Diana. Deitu telefono zenbaki honetara: 663 46 65 17

Debagoiena. Mutila etxeko lanak egin, nagusiak zaindu edota sukalde laguntzaile jarduteko gertu. Esperientzia daukat nagusien zaintzan eta lege paperak ditut. 658 74 94 63 edo 632 26 01 84

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Nagusiak zaindu edota baserri lanetarako. Baita erakuntzan ere. Gidabaimena daukat eta baita elikagaien manipulazio baimena ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 06 33 80

Debagoiena. Mutila lanerako gertu: erakuntzan, gidari, sukalde laguntzaile edota nagusiak zaintzen. 636 60 48 51

Debagoiena. Mutila orduka zainza lanak egiteko gertu. Eskarmentua eta erreferentziak daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 662 43 08 54

Debagoiena. Nagusi edo umeak zaintzen eta garbiketarako egiten lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 678 84 35 81

Debagoiena. Nagusiak zainduko nitzuzke eta garbitasun lanak egin ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 08 57 69

Debagoiena. Neska gertu nagusiak eta umeak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. Orduka, gaeuz, etxean bertan bizi izanda edo bestela. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 674 55 02 98

Umeak zaintzeko prest. Umeak eskolara eraman eta zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 605 71 09 07

Zaintza. Gaixo eta nagusiak zainduko nitzuzke: etxean, ospitalera lagundu, paseoan lagundu eta abar. Baita baserrietan ere. Erizaintza eta ebakuntza-gela laguntzaile naiz. Gidabaimena daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 678 37 32 43

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Fisikako eskola partikularrak. Fisikako ikasle ohia behar da larunbat goizetan Fisika graduko mekanika eta elektromagnetismoko partikularrak emateko. Iluntzetan deitu. Interesatuok deitu 673 21 62 83 edo 607 33 96 85 telefono zenbakietara.

502. EMAN

Arrasate. Esperientziadun psikopedagogo eta ingeles irakaslea eskola partikularrak emateko eskaintzen da, LMH eta DBHn. Banakazaintza txikitzen. Ingeles eskolak goizetan ere bai. 658 70 67 84

Bergara. Ingeniaritza eta Irakaskuntzako Masterra duen pertsona eskola partikularra emateko prest. LH edo BH-ko edozein irakasgai emateko prest, ingelesez barne (Advance titulua dut). Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 620 88 16 29

Oñati. Majisteritzako 3. mailako ikaslea naiz eta klase partikularrak ematen ditut. LHko edozein irakasgai (ingelesez barne). Interesatuok deitu telefono honetara: 672 25 91 89

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Txakurkumeak. Setter txakurkumeak salgai. Ekainaren 30ean jaiotakoak dira. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 630 34 87 35 edo 637 75 60 55

703. EMAN

Akuriak. Akuriak (kuiak) daukat opari emateko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 605 73 68 70

Katakumeak. Bi katakume ematen dira opari. Uztailaren 22an jaiotakoak dira. Baserri edo txaleterako egokiak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 663 65 76 06

Txakurkumeak. Arratoi txakurkumeak ematen dira opari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665 75 86 49

8. DENETARIK

801. SALDU

Fagor sukaldeak. Fagor sukaldeak saltzen ditut: 7 modulu goikoak eta 9 modulu behekoak, granitozko bi entzimerak eta bitrozeramika. 1.200 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 666 24 17 65

802. EROSI

Autoa erosiko nuke. Bigarren eskuko autoa erosiko nuke. Egoera onean eta gehienez 1.500 eurotan. Interesatuok deitu 637 13 16 23 edo 632 61 83 43 telefono zenbakira.

Mendirako eskiak. Mendiko eskiak erosiko nitzuzke. Baita botakere. Saltzeko asmoa izanez gero, deitu hurrengo telefonora: 675 70 58 54

804. HARTU

Bizikletak. Botatzeko dagoen edo erabiltzen ez duzun bizikleta baduzu, nik jasoko nuke. Berdin da zein egoeratan dagoen. Iñaki. Botatzeko badi-tuztu deitu telefono zenbakira: 699 06 23 95

Eskola liburuak. Arrasateko Institutuan, Batxilergo 1. mailako Gizarte adarrean erabiltzen diren bigarren eskuko liburuak hartuko nitzuzke. Ikasgaiak: ekonomia, matematika, gaztelera eta ingeleza. Deitu 696 13 91 22 zenbakira.

Eskola liburuak. Oñatioko Elkar Hezieskolan, 2. DBHn erabiltzen diren bigarren eskuko liburuak hartuko nitzuzke. Ikasgaiak: natur zientziak eta matematika. 696 13 91 22

Eskola liburuak. DBH 4. mailako liburuak hartuko nitzuzke. 632 17 48 38

805. TRUKATU

Hizkuntza trukea. Alemana praktikatu nahiko nuke, C1 maila ikasten nago. Euskaraz, erdaraz edo ingelesez hitz egin dezaket. 657 72 51 65

Hizkuntza trukea. Frantsesa praktikatu gura nuke eta trukean eskuratu edota gaztelania erakutsiko nitzuzke. Arrasatekoa naiz. 685 76 59 73

Hizkuntza trukea. Ingelesa praktikatu gura nuke eta trukean eskuratu edota gaztelania erakutsiko nitzuzke. Aretxabaletakoa naiz. Interesatuok deitu telefono honetara: 628 51 22 78

806. GALDU

Urrezko pulstera. Irailaren 29an, astelehena, urrezko pulstera galdu nuen Malvinetatik Txondorrara jaisten den bidean. Balio sentimental handi du eta eskertuko nuke aurkituz gero telefono zenbaki honetara 626 01 75 33 deitzea.

807. AURKITU

Betaurrekoak Bergaran. Eguzkitako betaurreko batzuk aurkitu ditut Espoñolan. Galdtu duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 659 81 72 37

Patinetea Aretxabaletan. Santa Kurtz kaleko Briko-Lan denda parean patinete bat agertu zen urriaren 1aren bueltan. Galdtu duenak Briko-Lan dendan galdetu dezake edo dei dezala telefono zenbaki honetara: 943 79 68 58

808. BESTELAKOAK

Folk Musikaria. Irlandar, eskoziar eta euskal musika herrikoia 'session' eran jotzeko musikari bila gabilta (gitarra, trabesera, soina, soka instrumentuak, eta abar). Momentuz Arrasaten entsaiatzen gabiltan hiru musikari gara, ondo pasatzeko asmoarekin. Interesatuok deitu 645 73 12 16 edo 695 78 52 49 telefono zenbakietara.

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Debagoienetik Gasteizera autoan elkarrekin. Goizetan Gasteizera joan behar dugun bi pertsona gara eta Debagoienetik autoz doan norbaiten bila gabilta. Interesatuok zenbaki honetara deitu mesedez: 666 74 14 33

ASTEAGOIENAN



Iñigo Lamarca, 'Harira' saioan

Agintaldiaren amaierara heldu den honetan, jardunean jarraitzen du Iñigo Lamarcak, Arartekoak. 10 urteotan egin duen lanaz jardungo du Goiena telebistako *Harira* saioan martitzenean. Herritarrek erakundearen gainean dituzten iritziez ere hitz egingo du.

'Harira'
Martitzena, 22:00



'Gipuzkoa pedalka' saioaren estreinaldia

Julen Iriondo kazetaria bizikletarekin Gipuzkoa zeharkatzen ikusi ahal izango da *Pedalka* saioaren bigarren denboraldian. Eguaztenean estreinatuko da; Oñatin abiatu eta lehenengo geldialdia Udanan egingo du bitxikeriaren bat kontatzeko.

'Gipuzkoa pedalka'
Eguaztena, 22:00

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 17	ZAPATUA, 18	DOMEKA, 19	ASTELEHENA, 20	MARTITZENA, 21	EGUAZTENA, 22	EGUENA, 23
12:00 Debagoiena zuzenean	10:00 Amaia DJ	10:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Amaia DJ	10:30 Ikusmira	10:55 Astea iruditan	13:00 Ikusmira	12:30 Harmailatik	12:30 HARRIRA	12:30 Gipuzkoa Pedalka
13:00 Ikusi irratia	11:00 Debagoiena zuzenean	11:00 Aniztasunean bizi	13:25 Zorion Agurrak	13:00 Sasoi betean	13:00 Bertso saioa	13:00 Sasoi betean
13:55 Zorion Agurrak	12:00 Astea iruditan	11:35 Amaia DJ	13:30 Debagoiena zuzenean	13:25 Zorion Agurrak	13:25 Zorion Agurrak	13:30 Bertso saioa
14:00 Debagoiena zuzenean	12:10 Kontzertua	12:00 Bertso saioa	14:30 Berriak	14:00 Debagoiena zuzenean	13:30 Harmailatik	13:55 Zorion Agurrak
14:30 Berriak	12:45 Aniztasunean bizi	12:20 Idemtitateak	15:00 Bertso saioa	14:30 Berriak	13:55 Zorion Agurrak	14:00 Debagoiena zuzenean
15:00 Amaia DJ	13:15 Ikusi irratia	12:55 Zorion Agurrak	15:30 Oñein	15:00 Harmailatik	14:00 Debagoiena zuzenean	14:30 Berriak
15:30 Oñein	14:00 Amaia DJ	13:00 Debagoiena zuzenean	16:00 Debagoiena zuzenean	15:30 Oñein	14:30 Berriak	15:00 Ikusi irratia
16:00 Debagoiena zuzenean	14:30 Sasoi betean	13:55 Astea iruditan	16:30 Berriak	15:55 Zorion Agurrak	15:00 Ikusmira	15:55 Zorion Agurrak
16:30 Berriak	15:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Ur eta lur	17:00 Ertzak	16:00 Debagoiena zuzenean	15:30 Oñein	16:00 Debagoiena zuzenean
17:00 Erreportajea	16:00 Astea iruditan	14:45 Bertso saioa	17:50 Sasoi betean	16:30 Berriak	16:00 Debagoiena zuzenean	16:30 Berriak
17:30 Ertzak	16:05 Jaiak 2014	15:15 Ertzak	18:25 Zorion Agurrak	17:00 Amaia DJ	16:30 Berriak	17:00 Harira
18:25 Zorion Agurrak	16:30 Ikusi irratia	16:00 Amaia DJ	18:30 Berriak	17:30 Ikusmira	17:00 Harmailatik	17:30 Ur eta lur
18:30 Berriak	17:15 Ikusmira	16:30 Debagoiena zuzenean	19:00 Amaia DJ	18:00 Bertso saioa	17:30 Ikusi irratia	18:00 Jaiak 2014
19:00 Amaia DJ	17:30 Amaia DJ	17:25 Astea iruditan	19:30 Sasoi betean	18:25 Zorion Agurrak	18:25 Zorion Agurrak	18:30 Berriak
19:30 Sasoi betean	18:00 Ertzak	17:30 Ikusmira	20:00 Debagoiena zuzenean	18:30 Berriak	18:30 Berriak	19:00 Ikusmira
20:00 Debagoiena zuzenean	18:55 Zorion Agurrak	18:00 Ertzak	20:30 Berriak	19:00 Aniztasunean bizi	19:00 Harmailatik	19:30 Gipuzkoa Pedalka
20:30 Berriak	19:00 Debagoiena zuzenean	18:45 Ikusmira	21:00 Debagoiena zuzenean	19:30 Harmailatik	19:30 Harira	20:00 Debagoiena zuzenean
21:00 Debagoiena zuzenean	19:55 Astea iruditan	19:00 Amaia DJ	21:30 Berriak	20:00 Debagoiena zuzenean	19:55 Zorion Agurrak	20:30 Berriak
21:30 Berriak	20:00 Idemtitateak	19:30 Ertzak	22:00 Harmailatik	20:30 Berriak	20:00 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean
22:00 Idemtitateak	20:40 Amaia DJ	20:30 Debagoiena zuzenean	22:30 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak	21:30 Berriak
22:30 Debagoiena zuzenean	21:00 Kontzertua	21:25 Astea iruditan	23:00 Berriak	21:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean	22:00 Amaia DJ
23:00 Berriak	21:45 Ikusmira	22:05 Amaia DJ	23:30 Harmailatik	22:00 Harira	21:30 Berriak	22:30 Debagoiena zuzenean
23:30 Amaia DJ	22:00 Debagoiena zuzenean	22:30 Idemtitateak	00:00 Debagoiena zuzenean	22:30 Debagoiena zuzenean	22:00 Gipuzkoa Pedalka	23:00 Berriak
00:00 Debagoiena zuzenean	22:55 Astea iruditan	23:05 Debagoiena zuzenean	00:30 Berriak	23:00 Berriak	23:00 Berriak	23:30 Amaia DJ
00:30 Berriak	23:00 Bertso saioa	23:55 Astea iruditan		23:30 Harira	23:30 Gipuzkoa Pedalka	00:00 Debagoiena zuzenean
	23:30 Amaia DJ	00:00 Jaiak 2014		00:00 Debagoiena zuzenean	00:00 Debagoiena zuzenean	00:30 Berriak

ARRASATE IRRATIA

'Opera abeslaria' haur antzerkirako sarrerak zozketan

Hilaren 25ean, Amaia antzokian, 17:00etan, haur antzerkia eskainiko du Deabru Beltzak taldeak. *Opera abeslaria* izeneko ikuskizuna eskainiko dute eta bertara joateko sarrerak zozketatuko dira irratian. Parte hartzeko, deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi irratia@goiena.com helbidera.

Asteko gainbegiratua asteburuan izango da 10:00etan hasita

Zapatuan eta domekan, 10:00etan, asteko hainbat elkarrizketa berreskuratu-ko dira. Tartean, Ointxe saskibaloitako taldeko Josu Larreategi entrenatzaileak denboraldi berria izango du berbetagai eta Gazte Bulegoko Dorleta Kortazarrek hainbat lan eskaintzaren berri emango du.



Felix eta Mari Tere

Felix Garay eta Mari Tere Lete urriaren 17an ezkondu ziren orain dela 50 urte. Domekan urrezko ezteiak ospatuko dituzte Zumelaga jate-txean. Etxekoen partetik, "zorionak bihotz-bihotzez eta urte askotarako! Bereziki Ainhoaren eta Jonen partetik".



Juanito eta Tomasi

Juanito Arroiabe eta Tomasi Aranguren urriaren 15ean ezkondu ziren, orain 50 urte. Zorionik beroena eta muxu handi bana zuen urrezko ezteietan, familia osoaren partetik, batez ere Judith, Aimar, Alaitz eta Galderrek.



Iratxe eta Josu

Iratxe Gonzalez de Audicana eta Josu Beitia zapatuan Gatzagako udaletxean ezkonduko dira eta gero familiarekin Gure Ametsa jatetxean ospatuko dute. Ondo pasatu Argentina aldean, bikote! Baina indarrak hartu azaroaren 8an gurekin eguna ondo zelebratzeko. Zorionak! Kuadrillak.



Leire eta Aitor

Leire Murillo eta Aitor Biain zapatuan, urriaren 18an, ezkonduko dira Oñatiko San Asentzioko ermitan. "Oso ondo pasatu eguna, bikote! Baita eztei-bidaian ere Argentina aldetik! Musu handi bat etxeko partetik".



Nekane eta Igor

Nekane Gardoki eta Igor Lete zapatuan, urriaren 18an, ezkonduko dira. "Egun zoragarria igaro dezazuela eta ondo pasatu Australia inguruan! Zorionak eta muxu asko lagunerekin eta familiarekin partetik!".

ESKER ONA

Antonio Aranzabal Albizu

Bergaran hil zen 2014ko urriaren 6an, 88 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2014ko urriaren 17an.

ESKER ONA

**Paulino Manso Jauregi**

2014ko urriaren 11n hil zen.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2014ko urriaren 17an.

ESKER ONA

Jacinto Zabaleta Kortabarria

2014ko urriaren 7an hil zen, 83 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, urriaren 18an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2014ko urriaren 17an.

ESKER ONA

Jose Luis Urcelay Gamboa

2014ko irailaren 26an hil zen, 69 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, urriaren 18an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.

Esker on bertaraten zareten guztioi. Oñatin, 2014ko urriaren 17an.

ESKER ONA

Angela Lezeta Letamendi

Arrasaten hil zen 2014ko urriaren 2an, 91 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Zirkunstantziek ekarri zintuzten gugana betiko, eta eskaini zenigun zure bizi osoa. Maite zaitugu; gero arte, tia Angela.

Arrasaten, 2014ko urriaren 17an.

MEZA

Conchita Madinabeitia Uriarte

Sor Arantxa, Mesedetako Karitateko ahizpa

Donostian hil zen 2014ko urriaren 11n.

Anai-arrebak: M. Luisa eta Sebastian (†), Jose Luis (†) eta Lucia. Illobak: Conchi, Isabel, Roberto (†) eta Andoni.

Haren aldeko meza domekan izango da, urriaren 19an, 12:30ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.

Aurrez eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2014ko urriaren 17an.

OROIGARRIA

**Mikel Odriozola Igartua**


Oñatin hil zen 2005eko urriaren 17an, 50 urte zituela.

Nun hago, zein larretan, Aña Mendiko artzaina.

Gogoan zaitugu.

Etxeokak. Oñatin, 2014ko urriaren 17an.

URTEURRENA

**Antonio Uribesalgo Uribetxebarria**

2013ko urriaren 14an hil zen, 69 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 19an, 11:30ean, Aretxabaletako Andra Mari parrokian.

Betirako gura bihotzetan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Aretxabaletan, 2014ko urriaren 17an.

HILETA

**Jose Luis Aguirre Laspeñas**

San Javierren (Murtzia) hil zen 2014ko urriaren 14an, 81 urte zituela.

Haren emaztea: M. Pilar Martínez Bascaran. Seme-alabak: Eduardo eta Charo, Oscar eta Sonia. Bilobak: Unai, Oihane, Ainara eta Nerea. Anai-arrebak: Conchita, Ricardo, Carlos, M. Carmen eta Enrique. Ezkon anai-arreba, biloba eta gainerako senideek jakinarazten dute:

Haren aldeko hileta-elizkizuna bihar, zapatua, urriak 18, 19:00etan, Bergarako San Pedro parrokian izango dela.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2014ko urriaren 17an.

HILDAKOAK

Argimiro Sanchez Bellido. Salamancan, irailaren 25ean. 77 urte.

Jose Luis Urzelai Ganboa. Oñatin, irailaren 26an. 69 urte.

Angela Lezeta Letamendi. Arrasaten, urriaren 2an. 91 urte.

Lorea Zubizarreta Murua. Arrasaten, urriaren 5ean. 95 urte.

Antonio Aranzabal Albizu. Bergaran, urriaren 6an. 88 urte.

Jazinto Zabaleta Kortabarria. Oñatin, urriaren 7an. 83 urte.

Paulino Manso Jauregi. Bergaran, urriaren 11n.

Conchita Madinabeitia Uriarte. Donostian, urriaren 11n.

Juan Carlos Guridi Inza. Oñatin, urriaren 11n. 77 urte.

Maria Ortiz Romero. Arrasaten, urriaren 11n. 90 urte.

Domingo Imaz Iturralde. Arrasaten, urriaren 11n. 79 urte.

Juana Rodriguez Diaz. Arrasaten, urriaren 11n. 78 urte.

M. Cruz Ezkurra Murua. Arrasaten, urriaren 12an. 94 urte.

Felisa Elkorobarrutia Lazkano. Arrasaten, urriaren 13an. 76 urte.

Migel Iturrospe Peña. Eskoriatzan, urriaren 13an. 86 urte.

Jose Inazio Galdos Galdos. Arrasaten, urriaren 14an. 70 urte.

Petra Paunero Pascual. Arrasaten, urriaren 15ean. 77 urte.

M. Angeles Garai Arregi. Arrasaten, urriaren 15ean. 90 urte.

Victor Lazpiur Astigarraga. Zarautzen, urriaren 15ean. 62 urte.

Milagros Ugalde Lezeta. Eskoriatzan, urriaren 15ean. 94 urte.

Jose Luis Agirre Laspeñas. Murtzia, urriaren 14an. 81 urte.

Aitor eta Ilargi

Aitor eta Ilargi zapatuan ezkonduko dira Oñatin. Ondoren, Lasa jatetxean bazkalduta ospatuko dute. "Zorionak, bikote! Ondo pasatu eguna eta disfrutatu Argentinan! Zuen lagun guztion partetik!".

Alex eta Loinaz

Alex Salar eta Loinaz Mosteiro urriaren 18an ezkonduko dira Arcos de Quejanasen. "Egun zoragarria pasa dezazuela familia eta lagun artean eta argazki asko atera New Yorken eta Mexikon. Muxu potolo asko familiaren eta lagunaren partetik!".

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

Goiena: irakurriena Debagoienean.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

MUSIKA

BERGARA San Joxepe abesbatza
San Joxepeko abesbatzak emaldia egingo du beste abesbatza baten laguntzarekin.
Gaur, egubakoitza, Santa Marinaran, 20:00etan.

BERGARA Mikel Garate, Ekaitz Aranberri, Urtzi Azkue eta The Funk Junkers

Txapa Irratiaren 30. urteurrena ganoraz ospatzeko, 30 orduko maratonia egingo dute. Askotariko ekintzak egingo dituzte. Tartean, kontzertua egingo dute goian aipatutako taldeek Seminarioan. Bihar, zapatua, Seminarioan, 21:00etan.

BERGARA Udal Musika Banda

Urriko kontzertua egingo dute. Besteak beste, Igor Larrañagak sortutako *Bergarako zezenzaleak* pasodoblea estreinatuko dute. Larrañagak berak zuzenduko du lehen pieza hori.
Etzi, domeka, pilotalekuan, 12:30ean.

BERGARA Unai Azkarate

Txapa Irratiaren maratoniaren baitan, kontzertua egingo du bar-karlari bergararrak.
Etzi, domeka, Seminarioan, 13:30ean.

ERAKUSKETAK

OÑATI 'Amets kabi'

Domeka da azken eguna. Erakusketan parte hartu dute Ricardo Ugarte, Jose Ramon Anda, Jose Zugasti, Iñaki Ruiz de Eguino, Iñigo Arregi, Iñaki Olazabal, Kolobika Jauregi eta Guillermo Olmo eskultoreek.
Urriaren 19ra arte, Gandiaga Topagunean.

ARETXABAETA Manuel Montiel

Manuel Montiel argazki onenen bilduma ipini dute ikusgai. Aste-

NON-ZER

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

URRIA 17
URRIA 23



BERAGRA Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloa: Bergarako Orfeoia
Bergarako Orfeoia itxiko du XV. Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloa Bergarako

Santa Marina parrokian. Aitor Biainek zuzentzen duen taldearekin batera Aitor Oleak parte hartuko du organo-jotzaile lanetan.
Bihar, zapatua, Santa Marina parrokian, 20:00etan.

lehenetik zapatura arte egongo da ikusgai.
Urriaren 31ra arte, Arkupen.

BERGARA Angela Silva

Palentzian jaiotako artistak olio teknika erabiliz egindako lanak bateratu ditu, *Olatualdi* bilduman.
Domeka da azken eguna.
Urriaren 19era arte, Aroztegin.

ARRASATE 'Ura eta Hiria 2020'

Mondragon Unibertsitateko Ingeniaritzako 3. mailako ikasleek urarekin zerikusia duten gaien berriak bildu dituzte erakusketan.
Urriaren 22ra arte, Kulturaten.

ARRASATE 'Colores'

Montse Roldanen, Bingen de Pedroren eta Natxo Vicenteren lanak batzen dituen erakusketa.
Urriaren 19ra arte, Harresi aretoan.

ESKORIATZA Errekaren gaineko argazki zaharrak

Uraren eta Errekaren Aste barruan, errekaren gaineko argazki zaharren erakusketa dago Ibarraundi museoan.
Urriaren 18ra arte, Ibarraundin.

OSPAKIZUNAK

ARETXABAETA XVIII. Gastronomía eta Folklore Jaia

Zaraia mendizale elkartearekin batera Udalak antolatutako jaietan hamabi postu inguru egongo dira. Gainera, hiru emaldia egingo dituzte: Laudiotik etorriko den Gaztela eta Leongo San Fernando dantza taldeak; Donostiatik, Galizia Etxeko dantza taldeak; eta Errioxako Villamediana de Iregua herrietik datozen Voces del Ebro jota taldeak. XX. patxaran lehiketa ere jokatu dute.
Etzi, domeka, Herriko plazan, 10:00etan.

LITERATURA

BERGARA 'Hondakindegia'

Iñigo Astiz poetaren eta Mikel Aierbe literatura irakaslearen eskutik, musikaren laguntzarik gabe, antzerkiaren eta poesiaren bitartez, lurra oinarri duen emaldia egingo dute.
Gaur, egubakoitza, Zabalotegin, 20:00etan.

OÑATI Tertulixan, euskaraz

Tertulixan, euskaraz. Irene Nemirouskiren *Odolaren sua* aztertuko dute.
Urriaren 21ean, udal liburutegian, 18:30ean.

UMEAK

ESKORIATZA Umeendako jolasak

Udazkeneko jolasak egingo dituzte neska-mutikoekin Tortolis ludotekan.
Gaur, egubakoitza, Tortolis, 17:30ean.

OÑATI Espeleotxiki abentura

6 urtetik gorakoendako. Izena emateko edo informazioa eskatzeko: 943-08 20 00 telefonoa.
Etzi, domeka, Arrikruzten, 10:30ean.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

ESKORIATZA 'Ura eta erreka Deba ibarrean' dokumentala

Uraren eta Errekaren Astearen barruan, *Ura eta erreka Deba ibarrean* dokumentala eman dute asteon. Gaur da dokumentala ikusteko azken eguna.
Gaur, egubakoitza, Ibarraundin, 18:00etan.

ARETXABAETA Elikaduraren gaineko proiektzioak

Hiru atx gubernuz kanpoko erakundeak eta Elkarheitzenean antolatuta elikaduraren gaineko hiru film emango dituzte: *Tres historias y un vaso de leche*; *El futuro de nuestra alimentación esta en juego*; eta *Campesinas, semillas de cambio*. Deialdi irekia egin dute.
Urriaren 20n, Arkupen, 18:30ean.

DANTZA

ARRASATE Herrixa Dantzan

Herrixa Dantzan ekimeneko ikasurtea gaur hasiko dute. Maiatza bitartean, hileko hirugarren egubakoitzetan elkartuko dira Uarkape tabernan (19:30-21:00). Patxi Montero izango da irakaslea.
Gaur, egubakoitza, Uarkape tabernan, 19:30ean.

IRTEERA

ESKORIATZA Leintz Gatzagara Ezkurtxorekin

Leintz Gatzagara joango dira Ezkurtxorekin Arizmendi Ikastolako kideak: ibilaldiak, jolas tradizionalak, ipuin kontaketa eta txokolate-jana izango dituzte neska-mutikoekin bertan. Hain zuzen, guztiak ur botila hutsa eraman dezatela eskatu dute antolatzaileek.
Bihar, zapatua, Akeita autobus geltokian, 15:00etan.

OÑATI Mendi irteera

Ibai lagun egitasmoaren barruan, mendi irteera egingo dute, *Berategi eta Arranoaitz*; *bi erreka eta haibat sekretu* izenarekin. Natur Eskolako kideek emango dituzte azalpenak ibilbidean zehar. Ogi-tartekoa eramatea gomendatzen dute antolatzaileek.
Etzi, domeka, Foruen plazan, 08:30ean.



Arrasateko Udalarri esker

'Deabru Beltzak' taldearen 'Opera Abeslaria', haurrentzat antzezlanak ikusteko sarrerak ditugu

Amaia Antzokia. Arrasate.
Urriaren 25ean, domeka, 17:00etan

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [Deabru Beltzak] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.com WhatsApp: KLUBA [Deabru Beltzak] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.
Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba



Ozenki elkarteari esker

'Don Giovanni', Mozart-en opera ikusteko sarrera bikoitza dugu

Amaia Antzokia. Arrasate.
Urriaren 30ean, eguna, 20:00etan

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [Don Giovanni] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.com WhatsApp: KLUBA [Don Giovanni] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.
Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba

ARRASATE Aggressive Combat, Knock Out eta Madskins

Goian aipatutako hiru taldeek punk-oi! musikarekin girotuko dute Arrasateko gaztetxea. Aggressive Combat arrasatearrek 10 urteko ibilbidea egin dute dagoeneko, eta euren errepertorioa errepasatuko dute. Eurekin, Knock Out madrildarrak eta Madskins algortarrak. Sarrera, 5 euro.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.



AGGRESSIVE COMBAT

ARETXABALETA '100 m2'

Txalo taldearen antzezlanean, Inake Irastortza, Ana Elordi eta Ramon Agirre dira protagonistak. Sarak etxe berria erosi du: zabala eta argitasun handikoa. Baina etxeko jabeak –bizi iraupen laburreko emakumeak–, hil arte, han bizi gura du. Bien artean sortzen diren bizipenak kontatuko dituzte. Sarrerak, lau euro. Urriaren 23an, Arkupen, 19:00etan.



GOIENA

DEBAGOIENA

BERGARA Erreka auzolanean garbitzeko deia

Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako *Ura eta erreka Deba ibarrean* delako astea bukatzeko, Arrasaten, Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan erreka auzolanean garbitzeko

deiak egin dituzte. Deialdi irekia egin diete herritarrei. Bihar, zapatua, aipatutako herrietan.

HITZALDIAK

ELGETA Pilota modalitateak
Pilotaren ondarea zabaltzeko asmoarekin, Oiartzungo Txost

pilota elkarteko kide Jose Mari Mitxelenak jardunaldi berezia egingo du.

Gaur, egubakoitza, pilotalekuan, 19:30ean.

OÑATI Zaintzailea nola zaindu

Hitzaldiaren izenburua: *El cuidado del cuidador/cuidadora*. Lidia Martinez izango da hizlaria. Urriaren 21ean, Pake Lekun, 17:30ean.

AZOKA

ARRASATE Elkartreke azoka

Musika eta literatura izango dira protagonista elkartruke azokan. Eramandako gauza bakoitza beste batengatik trukatu ahal izango dute.

Gaur, egubakoitza, azoka plazan, 18:00etan.

OHARRA

ARRASATE Kaleak itxita

Tafyd krosa dela eta, alde zaharreko hainbat kaletan zirkulazioa moztu egingo dute 20:00etatik 21:00etara arte: Maalatik San Frantzisko biribilgunera kalea itxi egingo da eta Garibai kalean txandaka ibiliko dira autobusak. Korrikalariak kale horretan bide bakarra erabiliko dute.

Gaur, egubakoitza, alde zaharrean.

IKASTAROKAK

ELGETA Munduko dantzak

Delia Señorrek eta Javier Muelak emango dute ikastaroa, eta egun bakarrekoa izango da: urriaren 19an. Izena emateko (25 euro): 607 20 45 03 (Virginia Imaz) edo formacion@oihulariklown.org. Etzi, domeka, Espaloian, 10:00etan.

OÑATI Jabekuntza Eskola

Andraitzek dantza afrikarrak, batukada feminista eta emakume zaintzaileendako tailerrak egingo ditu. Eteon izango dira eskolak. Oñatiko emakumeendako tailerrak dira. Gutxienez zortzi pertsona eta gehienez 25 onartuko dituzte. Informazio gehiago gura duenak Andraitzen bulego-ra jo dezake, edo mezua bidali a.jabekuntzaeskola@gmail.com helbidera.

Andraitzen bulegoan edo aipatutako atarian.

ZINEMA

ARRASATE

AMAI ANTZOKIA

Lasa eta Zabala
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Maya erlea

Zapatua eta domeka:
17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Torrente 5
Egubakoitza eta zapatua:
22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Rhumba

Zapatua eta domeka:
17:00.

EIBAR

COLISEO

Lasa eta Zabala
Zapatua: 17:00, 19:45,
22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

Marsella
Zapatua: 17:00, 19:45,
22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Operacion cacahuete
Zapatua eta domeka:
17:00.

Torrente 5
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

BOULEVARD

Las tortugas Ninja 3D
Egubakoitza eta domeka:
20:30.
Astelehenean eguenera:
20:40.

The equalizer

Egubakoitza eta zapatua:
00:30.
Egubakoitzetik eguenera:
18:45, 21:30.
Zapatua eta domeka:
16:00.

Las tortugas Ninja

Egubakoitza eta zapatua:
00:30.
Egubakoitzetik eguenera:
18:00, 20:10, 22:20.
Zapatua eta domeka:
15:50.

Relatos salvajes

Egubakoitzetik eguenera:
17:30, 20:00, 22:30.

Lasa eta Zabala (euskaraz)
Egubakoitza eta astelehenean eguenera:
18:10.
Zapatua eta domeka:
16:00.

Lasa y Zabala
Egubakoitzetik domekara:
20:20, 22:30, 00:40.
Zapatua eta domeka:
18:10.

Aviones
Domeka: 17:30.

Tarzan
Zapatua: 17:30.

Torrente 5
Egubakoitza eta zapatua:
00:45.

Marsella
Egubakoitza eta domeka,
eta astelehenean eguenera:
18:00, 20:15, 22:30.

Operacion cacahuete
Zapatua eta domeka:
15:45.

Anabelle
Egubakoitza eta zapatua:
00:50.
Egubakoitzetik eguenera:
18:20, 20:30, 22:40.

El corredor del laberinto
Egubakoitza eta zapatua:
00:45.
Egubakoitzetik eguenera:
17:45, 20:05, 22:25.

Perdida

Egubakoitzetik eguenera:
18:30, 21:30.
Zapatua eta domeka:
15:30.

Ahi os quedais

Egubakoitza eta zapatua:
00:50.
Astelehenean eguenera:
17:30.

El niño

Egubakoitzetik domekara:
19:30, 22:15.
Astelehenean eguenera:
19:30, 22:15.
Eguena: 22:30.

La isla minima

Egubakoitza eta zapatua:
00:15.
Egubakoitzetik eguenera:
17:45, 19:55, 22:05.

Lucy

Egubakoitza eta zapatua:
00:45.
Egubakoitzetik domekara,
eta astelehena, martitzena
eta eguena: 22:45.

Frozan

Egubakoitza eta domeka:
15:35, 17:45.
Zapatua: 15:35.

La abeja Maya

Egubakoitza: 17:30.
Zapatua eta domeka:
15:30.

Como entrenar a tu dragon

Zapatua eta domeka:
15:40.

Operacion cacahuete

Zapatua eta domeka:
15:40.

El chico del millon de dolares

Eguena: 20:00.

Un viaje de diez metros

Eguaztena: 22:45.

Boyhood

Astelehenean eguenera:
17:30.

FLORIDA

Relatos salvajes
Egubakoitzetik domekara:
17:30, 20:00, 22:35.
Astelehenean eguenera:
17:30, 20:00.

Las tortugas Ninja

Egubakoitza: 16:30,
18:40, 22:35.
Zapatua eta domeka:
12:00, 16:30, 18:40,
22:35.

A escondidas

Egubakoitzetik eguenera:
20:30.

El niño

Egubakoitzetik domekara:
18:20, 22:35.
Astelehenean eguenera:
18:20.

Torrente 5

Egubakoitzetik eguenera:
16:30, 20:45.

Perdida

Egubakoitzetik domekara:
17:00, 19:45, 22:35.
Astelehenean eguenera:
17:00, 19:45.

La isla minima

Egubakoitzetik domekara:
16:30, 20:40, 22:35.
Astelehenean eguenera:
16:30, 20:40.

Un viaje de diez metros

Egubakoitzetik eguenera:
18:25.

Magical girl

Egubakoitzetik domekara:
17:45, 20:15, 22:35.
Astelehenean eguenera:
17:45, 20:15.

Lasa eta Zabala

Egubakoitza: 16:30,
18:30, 20:30, 22:35.
Zapatua eta domeka:
12:00, 16:30, 18:30,
20:30, 22:35.

Operacion cacahuete (euskaraz)

Zapatua eta domeka:
12:00.

Como entrenar a tu dragon 2

Zapatua eta domeka:
12:00.

Guardianes de la galaxia

Zapatua eta domeka:
12:00.

KRITIKA

Amodio arriskutsuak

Donostiako Zinemaldiko Urrezko Maskorra eskuratu zuen *Magical girl* pelikulak eta Carlos Vermutek zuzendari onenaren saria. Film oso originala, bitxia eta saikaezina da. Kontrakoak diruditen sentsazio eta osagaiekin jokatzen du: suntsigarria eta dibertigarria; errealista eta zentzugabea. Oso ezberdinak diruditen osagaien erabilera egokiak lortzen du ikusleak aurretik zituen eskemak haustea. Askotan antzematen dugu filmen istorioak nondik nora joango diren. Bada, kasu honetan, ez da halakorik gertatzen. *Magical girl*-ek harrizko ahalmena du, eta, horrela, ikuslearen jakin-mina bizirik mantentzen du. *Magical girl*-en hasieran, eskola baten, maisu baten eta ikasle baten arteko eszena bat dago. Hortik, denbora jauzi bat dago. Lan gabe dagoen irakasle batek oso gaixorik dagoen alabari, hark amestutako opari oso garestia egin nahi dio. Beste istorio baten, arazo psikologiko larriak dituen neska bat ikusiko dugu: bikotekidearekin duen harremana kili-kolo dabil. Zoriak edo patuak, batek daki, bi istorioen pertsonaiak

MAGICAL GIRL ★★★★★

Zuzendaria: Carlos Vermut.

Herrialdea: Espainia.

Aktoreak: Barbara Lennie, Luis Bermejo, Jose Sacristan, Lucia Pollan.

elkartuko ditu eta honekin batera hasierako eszena horren barruan agertuko gara berriro ere. Zinema beltza eta misteriozko zinema, arrazoia eta fantasia elkartuko dira, hutsune enigmatikoz betetako istorioan. Ikusleak ipini behar ditu puzzlean falta diren pieza guztiak.

Amodioak ere garrantzi handia du pelikulan. Maitasun sentimenduek batzuetan menpekotasuna sortzen dute. Pertsona baten menpean egonda, kasu larrietan, pentsatzen ez ditugun gauzak egitera bultzatzen gaituzte. Sarritan, buruaren eta bihotzaren norgehiagokan, bide arriskutsuena hartzen dugu. Arrazoia eta irrika, eguneroko bizitzaren azpitik beste mundu ilunago bat egon daiteke. Eta bi mundu horien baterako existentziak, zoriaren laguntzarekin, aldi berean asaldagarria eta dibertigarria den filma ekartzen du.

ANTONIO ZABALA

KURSAAL
ESZENA

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

www.kursaal.org

CHRISSE HYNDE
("The Pretenders" taldeko abeslaria)

Kursaal Auditorioa



Asteazkena 22 / 20:00

Urria 2014

45 €

SARREREN SALMENTA
www.sarrerak.kursaal.org
www.entradas.diariovasco.com

Kursaal Leihatila

Astelehenean ostiralera: 11:30-13:30. Eta ostegun,
ostiral eta larunbatean baita ere 17:00tik 20:00etara.

ORDU
GAZTEA
<30
<30MIN
3€

Babesleak:

fundación **edp**

euskaltel

EL DIARIO VASCO

Laguntzaileak:

kutxa gizarte ekintza

Sabale

OS

herza ivc

SEZ

Giroa

ESTRATEGIA

Gipuzkoa



goiena

2014-10-17

BUKATZEKO

Irakurlea berriemaile, aplikazio berrian

- ▶ Goienaren mugikorretarako aplikazio berriak parte hartzeko bideak eskaintzen dizkio herritarrari
- ▶ Herritarrek ohar, kexa, iradokizun, albiste edo argazkiak bidaltzeko aukera izango dute, mugikorretik

MIREN ARREGI | DEBAGOIENA

Batura Mobile enpresak garatu du aplikazio berria, Goienarekin batera. Oinarrian, honako ideia hau: komunitatea berriemaile egitea. Herritarraren parte-hartzean erraztasunak ipintzea.

Irakurlea berriemaile

Hain zuzen ere, bide horretan, zuzenean parte hartzeko bideak eskaini gura ditu Goienak, eta aplikazio berriak hainbat atal berri ditu parte-hartze horrekin lotuta: *Kexatu*, *Txalotu*, *Bidali argazkiak* eta *Oharrak bidali* dira horiek. "Pantailaren leku preferentzia dute, horiek baitira gurekin di-da harremanetan jartzeko aukera errazten dutenak", dio Iban Arantzabalek, Goienako zuzendaria nagusiak. Hala, kexak eta salaketak egiteko bidea da *Kexatu* atala; Goienak albiste bezala landu edo bere horretan argitaratu ditzake horiek. Sarean eta baita papereko GOIENAN ere izango dute lekua herritarrek egingako salaketek. *Txalotu*, berriz, ekimen edo gertakariak auzatzeko txokoa izango da eta, kexetan bezala, Goienako hedabideetan oihartzuna izango dute. *Bidali argazkiak* da aplikazio berriak duen hirugarren atal berria; bada, izenak argi esaten duen moduan, hori izango



Herritarra, Goienaren mugikorretarako aplikazio berriekin. | IRATI GOITIA

da albisteak proposatu, irudiak bidali edo zerbaiten berri emateko atala. *Oharrak bidali* atala, azkenik, jakinarazpen, prentsa-ohar zein abisuen lekua da; Goienako kazetari eta arduradunekin zuzenean komunikatzeko bidea.

Aplikazio berriarekin, aurretik herritarrek parte hartzeko eskaintzen zituen aukerak zabalduko ditu Goienak: "Zer hoberik denok poltsikoan daramagun mugikor hori baino, ohar, iradokizun, albiste edo argazkiak bidaltzeko. Horrela, herritarra ere kazetari bihurtzen da", dio Jon Berezibarrrek, Goienako kazetariak.

Zerbitzuak ere bai

Goienaren beste apustu garrantzitsu batzuk ere badira aplikazio berrian, hala nola eskelak, gida eta *Aurreztu.com*. Jakina, *Goiena.eus* webgunea kontsultatzeko aukera ere egongo da. Webgunea *responsive* da, eta, hala, egokitu egiten da edozein pantailaren tamainara.

Lehengoa eguneratzea

Aurreko bertsioa izanez gero, lehengo aplikazioa eguneratu besterik ez da egin behar; bestela, doan jaits daiteke aplikazioa, sistema eragileari dagokion denda digitaletik.

AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA



Ikastitis prematuroa?

aster hizkuntza akademia bat irekiko dute Donostian. Hiru hilabetetik gorako haurrentzat. Bai, jaioberrientzat. Hitz egiten ikasi aurretik, ingelesa ikastera! Kontxo, kontxo...

Jaioberria igerilekura eramatea. Hori ere nahiko zabaldua dago. Lau hilabetetik gorakoak. Urtebete bete aurretik, hori bai. Hala komeni omen da. Gero umeak erreflexu innatoak galtzen dituelako.

Lagun baten alaba biolina jotzen ikasten hasi da. Neskatok bi urte ditu. Semea ere apuntatu nahi zuen, lau urtekoa. Baina zaharregia dela esan diote. Metodo hau hiru urte artekoentzat dela. Colina metodoa. Jolasen bidez ikasten ei dute biolina jotzen.

Ai, eta musikoterapia. Hori, jaiotze aurretik ere erabil daiteke. Aurikularrak sabelean jarrita, adibidez. Umea erlaxatzeko. Ikastaroak daude horretarako ere. Musikaren laguntza, jaioberriek hobeto egiten ei dute lo.

Eta egongo dira gehiago, zalantzarik gabe. Umearen behar mental, fisiko, emozional, sozial eta kognitiboak asetzeko ikastaroak. Denak onak, seguru. Baina ikastaritis arriskua ere hortxe dago... Berandu baino lehen umeari dena eman nahi horretan, ikastaritis prematuroa?

ARRASATEKO BASERRIKO
PRODUKTUEN AZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2014
urriak 18

azaroak 15

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Ezpelegu eta Garapen
Ekonomikoen Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta
merkatariek konfiantza,
herbilatasuna eta kalitatea
eskaintzen dizkizute.

